


LUIS DE CASTRESANA



GERNIKÁKO BESTE ARBOLA

GERNIKÁKO BESTE ARBOLA

EDITORIAL LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA



LUIS DE CASTRESANA

EDITORIAL
L.G.E.V.

OTRAS OBRAS DE ESTA EDITORIAL

OBRAS BILINGÜES

(Obras publicadas en dos o más idiomas o dialectos. No se incluyen los Diccionarios, que van en capítulo propio).

CANCIONERO POPULAR VASCO, (2 vols.), Resurrección M.^a de Azkue, prólogos de Manuel de Lecuona y José María Martín de Retana, epílogos de Ambrosio de Zatarain y Juan Oñativia, y notas de Louis Dassance, Juan San Martín, José María Satrustegui, Antonio de Zabala y Ambrosio de Zatarain.

ANTIGUAS DANZAS DE GUIPUZCOA, Juan Ignacio de Iztueta, prólogo y versión castellana de Santiago Onaindia.

OBRAS INEDITAS DE IZTUETA, José de Garmendia.

PERU ABARKA, Juan Antonio de Moguel, prólogo de R. M. de Azkue, versión castellana de J. C. Cortázar.

EL PRIMER LIBRO IMPRESO EN EUSKERA, Bernat Dechepere, prólogo de Nicolás de Alzola Guerediaga y primera versión castellana de Lino de Aquesolo.

LOS EJERCICIOS ESPIRITUALES DE SAN IGNACIO, Luis Eguía Rezola, prólogo de Manuel Lecuona.

ORREAGA, Arturo Campión.

DIALOGOS EUSKERICOS GUIPUZCOANOS Y VIZCAINOS, Iturriaga e Iriarte.

LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LITERATURA VASCA, Santiago de Onaindia.

HISTORIA DE GUIPUZCOA-GUIPUZCOACO CONDAIRA, Juan Ignacio de Iztueta.

IGLESIAS RUPESTRES VISIGOTICAS EN ALAVA. LA CAPADOCIA DEL PAIS VASCO O EL COMPLEJO RUPESTRE MAS IMPORTANTE DE EUROPA, José María San Sebastián «Latxaga».

ANTROPOLOGIA VASCA. (Volumen I). Resúmenes en euskera, castellano, francés, alemán, ruso y japonés).

OBRAS EN EUSKERA

OBRAS COMPLETAS DE TEATRO, (3 vols.), Antonio María Labayen.

LA BIBLIA EN EUSKERA, (3 vols.), Capitán Duvoisin, prólogo de Lino de Aquesolo.

50 CANCIONES VASCAS PARA HOY, Kerexeta.

OBRAS VASCAS COMPLETAS DE AGUSTIN DE KARDABERAZ, (2 vols.), prólogo de León de Lopetegui, S. I., edición dirigida por Antonio de Zavala.

IPUIÑAK, Resurrección M.^a de Azkue.

ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK, Jaime de Kerexeta.

JAKA'RA OÑEZ NAPARROA'N ZEAR, José María San Sebastián, «Latxaga».

ORREAGA, Arturo Campión.

MILLA EUSKAL OLERKIAK, Santiago de Onaindia.

GERNIKA'KO BESTE ARBOLA, Luis de Castresana, versión euskera de Jaime de Kerexeta.

IPARRAGIRRE'REN BIZITZA, Luis de Castresana, versión euskera de Jaime de Kerexeta.

Euskal Biblioteka Labayru



1027684

LITERATURA / N. 5384

GERNIKA'KO BESTE
ARBOLA

LUIS DE CASTRESANA

GERNIKA'KO
BESTE ARBOLA

Kerexeta'tar Jaime'k
euskeratze askatuz
eginda

Ixatxak'en ogei ta lau margozkiz apainduta

Bizkai'ko Aureski-Kutxaren babespean argitaratuta

EDITORIAL
LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA
BILBAO, 1979

Primera edición en euskera tras veintitrés ediciones, con cerca de un millón de ejemplares en total, en lengua castellana.

Las ilustraciones de la presente edición son reproducciones de óleos del pintor basauritarra IXATXAK, realizados expresamente a 73 x 60 cm. para esta obra.

© LUIS DE CASTRESANA

© JAIME DE KEREXETA

© EDITORIAL LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA (1979)

Apartado 1510 - Calzadas de Mallona, 8

Teléfs. (94) 4169611- 4156811 - Bilbao-6

Director: JOSE MARIA MARTIN DE RETANA

ISBN: 84-248-0433-3

D.L.: BI 2.979-1978

LEENENGO ZATIA

URTEERA

*Agur nere biotzeko
amatxo maitea,
laster etorriko naiz
konsola zaitea.*

(Iparragirre)

I

Portu-kaletik beera yoiazan, geltokirako bidetik. Gabez euria izan zan eurrez eta orain aize otza ta bustitsua ebillen, baiña goiza eguzkitsu ta baretsu egoan. Santi'k ezkerretara, are-zakuz ia estalduta egoan tren-bide txikiko tunelerantz begiratu izan ez ba'leu, Barakaldo'n guztia bakea ta gelditasuna zala pentzatu aal izango eban unetxo baten.

Baiña Barakaldo'n ez zan bakerik, gerratea baiño; eta eguasten bateko amarrak ziran eta ez aitita ta amàma ikustera joaten ziraneko domeketariko bat, illuntzean nekatuta eta pozik etxera biurtzen zirala. Beste egunak lakoa izan ba'litz, orain lez Santi beronen oiñetako barriakaz osintxoak zapaltzen ikustean, amak ari auxe esango leuskion: "Orrelaxe ondatzen dozuz berealaxe oiñetakoak", eta buruari asarre-antzean eragingo leuskion; eta bere aitak begirakune zorrotz eta isilletariko bat egingo leuskion, Santi'k astiñaldi bat baiño min geiago artzen eban begirakunea.

Baiña gaur aren amak ikusi-ez egiten dau Santi, onek oiñetakoak bideko osintxo guztietan amorruez eta gurata sar-tzean; eta maleta txiki biak eroiazan aitak aurrerantz begira-tzen eban, nora begiratzen ez ekiala. Goiz aretan ez egoan asa-rre egiteko astirik.

Begoña'k Santi'ri astiro begiratu, eskutik oratu eta gogor sakatu eutsan. "Ni galduko nazan bildur da, joanaldia neu bagarik egiteko bildur da. Neu bear nau", pentzatzen eban Santi'k, Begoña'ri adorea emoteko, irribarre arin bat azpiz begira-tuta, atzamarrak legunkiro sakatu eutsazan. Begoña zerbait bildurtuta lez egoan, eta bera zan baiño txikiagoa zirudian arek, umeagoa. Galtzerdi zuriak eroiazan jantzita, txarolezko oiñetakoak eta txori ori ta aundi bat buruan. Amak, goiz are-tan, buruko txori ori ipiñi eutsanean, "txori orrek gozo-kutxatit-korapilloa dirudi", esan izan eban Santi'k. Amak ez eban ezer esan. Begira ta begira egon yakon, eta gero, bat-batean, eskaratzera joan zan arin. Ba-ekian Santi'k zer egite-ra: negar egitera.

Orain, laurak isillik yoiazan, aurpegi illun eta astunaz. Yontxu'k ezin lagun egin izan eutsen. Goiz aretan goizean-goiz jagi izan zan, Foruen plazan dagoan Zirilo'ren dendara joate-ko. Aurreko gabea auzoko batek Santi'ren amari auxe esan izan eutsan guztiz isilpean: "Zirilo'k eta onen morroiak iru zaku azukara baltzizka sartu dabez dendan ixilka-ekutuan; neuk ikusi dodaz".

Yontxu ta Santi egozan lo-gelan. Batzuetan, loak artu bai-ño leen, Yontxu'k gauzatxoak esaten eutsazan isilpean, mutil aundi bati lez. Santi'k, bera bere anaiak mutil aundiari egokio-nez artu egiala nai eban, adin bardiñeko lez. Izan be, Yontxu'k ba-ebazan amazapi urte, praka luzeak eroiazan, tabakoa erreten eban ekutuan, eta domeketan, Portugalete'n, dantzan egiten eban neskakaz (orain ez egiñarren be); aspalditxotik Yontxu'k Miren'egaz bakarrik egiten eban dantzan, bere erdi-emaztegaia zan Erandio'ko neskatilla bategaz. Bein, apalon-doan, Yontxu'k auxe itandu izan eutsan bere aitari: "Aita, urten naiteke gaur gabeon? Soiñua joko dabe goiko plazan eta lagun batzukaz batzeko naz". Santi zerbait larrituta geratu zan itaun orrezaz. Adi-adi geratu zan aitaren erantzuna entzuteko, aitari ta Yontxu'ri, Yontxu'ri ta aitari begira-begira. Aita, Yon-txu'ri aurpegira begiraturik, une baten isillik geratu zan. Gero, "emoiozu beebarruko giltza", esan eutsan amari, eta, "laster

etorri", Yontxu'ri. "Bai, aita", erantzun eban Yontxu'k; eta amak, beebarruko giltzaz, burdiñazko giltz aundi ta astun bat azpiz, etorri ta Yontxu'ri emon eutsanean, une a bere anaia-ren bizitzan guztiz larria zala konturatu zan Santi.

Santi'k, antzi egiñik, bere matrailla ta okotzean zear eskua eroan eban. Bere anaiak ordu batzuk leenago esan izan eutsazan berbak entzuten ebazan oraindiño: "Zaindu egizu Begoña eta ez egizu kanpoan barrabankeriarik egin". Nagusi batek ume bati lez egin izan eutsan berba; baiña, bat-batean, urten baiño leen, Yontxu'k, Santi besarkaturik, "laster urten bear dautsu bizarrak", esan izan eutsan. Iñoiz be ez eutsan esan orrelako esaera gozorik bere anaiak, eta Santi'k maiteki-ro ta eskerronez begiratu eutsan. Gero Yontxu arin-arin urten izan zan, besterik esan bagarik, eta ogia erosten zan txandan jartera joan izan zan. Etxeko atea astiro-astiro ta zaratarik atara bagarik isten entzun izan eban Santi'k.

Orain, Portu-kaletik jatsiten zirala, amak, noizean-bein, zearretara begiratzen eutsen Santi'ri ta Begoña'ri, eta zerbait esateko gogoia ebala zirudian, baiña isildu egiten zan eta antzi bat iruntsiten eban. Amaren begirakuneari ez erantzuteko aalegiñak egiten ebazan Santi'k. Ez eutsan aurrez-aurre begi-ratu nai, ori egiten ba'eban, ama barriro biotz-zotinka ta negar baten asiko zana ba-ekian-eta.

Ume batzuek pelotan ziarduen etxe bateko atzeko orman. *Pekatsua*, Sabin, Yokin eta aste batzuk leenago bere gurasoa-kaz Santander'tik etorri izan zan andikote bat egozan an. Andi-kote au, mutiko bizkor eta indartsua zan, baiña ez ekian pelotan ia ezer be. Ez ekian peloteari sakea eragiten be; eta aregaz jokutzen ebana, ona egoan!: galdu egiten eban beti.

—Kaixo, Santi —esan eban *Pekatsua*—, nora zoaz?

Santi'k, ezpanak bustirik, aurrera jo eban.

—Ez dozu nai pelotan jokatu? —esan eban deadarka Sabin'ek.

Santi'k buruaz ezetz esan eban. Ba-ekian, berba egiten ba'eban, abotsa bustia ebala konturatuko zirana.

—Santi ta Begoña kanpora doaz —azaldu eban aitak.

—Laster biurtuko dira? —itandu eban *Pekatsua*.

—Ez dakit —erantzun eban aitak, iñori begiratu bagarik—. Au amaitu daitenean.

Andreak antzi egin eban, eta betazalak ikaraka asi ya-kozan.

—Andra, Jaungoikoarren —esan eban senarrak isillik antzean.

Aurrera jo eben bidean, eta Sabin'ek eta enparaduak barrero pelotan asi ziran. Santi'k atzeruntz begiratu eban, arei begiratzeko. Eta bat-batean bertan gelditzeko, oiñetakoak kendu eta abarketak jazteko gogo bizia izan eban. Orduantxe ikusiko eban Santander'ko arek eskuko pelotan zelan jokatzeko. Izan be, bein, oraindiño umea zala, "Aundia izan zaitezanean, zer izango zara zu?" itandu eutsoenean, Santi'k, "ni, pelotari", erantzun eban ezpai bagarik. Eskolatik urtenda, pelotalekuan naiz etxeetako orma-osteetan naiz elizpean jokatzeko eban pelotan. Leenengotan zerbait nagi eukan ezkerra; eta aste bitan baiño geiago, zauri txiki bat atxakitzat artuta, eskumako eskua zapiaz lotuta eroan izan eban. Olan, nai ta nai ez, ezkerra erabilten eban. Pelotarik bear ebanean, Santi'k berak egiten eban bat: kanika bat artule-ariaz batzen eban bira ta bira, pelotea egin arte. Batzuetan narrua josten eutsan gainean listariaz, eta gero koipeaz igurtziten eban, pelotalekuetan erabilten ziran benetako peloten antza izan egian.

Yokin'ek agur egiten eutsan eskuaz; Santi'k be besoaz erantzuten eutsan, eta burua aurrera biurtu eban. Beeko plazan, merkatu-ondoan, andrak eta umeak txandan egozan. Teillatu baten gainean iru izki ikusten ziran: U. H. P., eta soiñu-kioskoan izki andi batzuek *Gora Euzkadi askatuta* eta *Ez dira sartuko* iragarten eben. Laba andiak suzko agokada txikiak jaurtiten ebezan eta Bilbo'tik Santurtze'rako tranbia, bere aitita ta amama ikusteko Santi'k artzen ebana, tringilitrangala yoian orduantxe.

—Ordu-orduan dator —esan eban aitak—. Laster etorriko da tren.

Santi'k Laba Andietako aurreko erlojura begiratu eban: amarrak eta ogei ta bost ziran. Aideari euri ta ke-usaiña erion. Mutiko batek, tranbiaren burdin-bidean, garagardo-bonbillen txapa-buruak ipinten ziarduan, tranbia-txirringak zapaldu ta lautu egiezan. Geltoki-aurrean, etxe andiaren irugarren etxebizitzan, andra batek abesten eta erropa batzuk eskegiten ziarduan.

Geltokiko gelan lagun banakea egoan itxaroten: iru andra, basarritar aurpegiak, isilpean berbetan; gudari bi alkarriri tabako-orria emoten; neskato bat eskuan aro bat ebala eta zerbait itxaroten. Merkatu-toki bat zabaldu eben, eta, norbai-

tek bere txandea itzirik aurrerago joan nai ebalako, andren asarre-deadarrak entzuten ziran.

Geltokiko gelan guztiak zutik egozan; iñor be ez egoan jesarrita orma-ondoko egurrezko jarlekuetan. Santi, onen ama ta Begoña be ez ziran jesarri. Aita, maletak lurrean itzirik, tren-txantela ataratera joan zan.

—Bilbo'ra —esan eban—. Joateko bi ta joan-etorriko bi.

Eta orduan Santi negarrez asi zan. Begoña be negarrez asi zan, negar-unpuluak eskuaz sikatzen ebazala; eta amak, eskumako besoaz Santi'ren burua inguraturik,

—Zaindu zure arrebea, seme —esan eutsan, uleak aidean izten eutsazala.

—Bai, ama.

—Zu, onezkero, mutil andia zara, Santi; amaika urte dozuz.

—Ia amabi —zeaztu eban Santi'k—. Orrillean beteten dodaz.

—Bai, seme —esan eban amak—. Zaindu egizu ondo. Ez dakiola ezer jazo Begoña'ri.

—Ez, ama.

—Ez egiozu asarrerik egin edozein txikikerigaitik. Eta ez jo; zuk, batzuetan, zeure odol beroa ataraten dozuneah...

—Ez, ama.

Santi'k, Begoña'gandik askaturik, sudur-zapia atara eban, eskuetako izerdia sikatzeko. Begoña'k, ari sudur-zapia kendurik, zintz egin eban.

Ba-ekian Santi'k, egunak zirala, bera ta Begoña joan egin-go zirana. Egun batzuk leenago, baita asteak be, itxaroten eben ori, eta amak biderako gauzatxoak erosten eta atontzen ziarduan, sarritan eta isilpean antzika ta erdi-negarrez asten zala. (Bere amak isillean negar egiñarren, Santi'k beti igarten eutsan.) Baiña orduantxe bakarrik geltokiko leiatillean bere aitak "Joateko bi ta joan-etorriko bi" esan ebanean, orduantxe bakarrik konturatu zan ziur Santi: egia zan bera ta Begoña bayoiazana, eta, bearbada, ez zirana barrirò Barakaldo'ra biur-tuko. "Eta, bearbada, edozein egunetan, egazkiñen edo *Cervera*'ren bonbaketaren baten, edo gaur berton, gu joan gaitezanean...", etorri yakon burura Santi'ri; eta naibagez beterik jarri zan, egunen baten, bearbada, bere gurasoak bonbak eratsitako etxe-azpiren baten aurkituko ebezala-ta.

Aitak alde egin eban leiatilletik, esku baten tren-txantelak

eukazala eta beste eskuaz diru-aldatzeak sakelean sartzen ebazala. Santi'k, leenengo, aitari eta gero amari begiratu eutsen, eta orduantxe jakin eban zenbat maite ebazan, arein bearrizanean egoala, eta aurrerantzean arekandik urrun, Barakaldo'tik urrun izango eban bakarraldia. Baiña bereala bere nebatxoagana aldatu ebazan bururapenok, eta agintzari au sortu eban bere buruan: "Neuk zainduko zaitut, Begoña". Eta bere biotzeko pitxi eder bat lez artu eban bere arrebatxoa, txarolezko oiñetakodun eta txori oridun neskatotxoa.

—Tira, goazan. Ba-dator trena —esan eban aitak.

"Batek ba-daki biar ordu onetan nun egongo garan!", esan eban Santi'k berekautan; artu ebazan berak maleta biak —ez eben pisu andirik— eta andenera joan ziran. Aitak esku bata lepo-gaiñean ezarri eutsan.

—Zelan zagoz, seme?

—Ondo —esan eban Santi'k—. Ondo, aita.

Trena urrutian etorren. Ibai-gaiñean dagoan burdiñazko zubi-ondoan etorten ikusten zan, atzean ke-moltzoak izten ebazala. Zenbat bidar, Galindo'ko ur areitan, zenbat bidar joan ete-zan Santi, itsas-beeretan, lopotzatan arrak artzera, Morro-ra ta Puntara arraiñak artzera joateko, meaz beteriko bagoneta ta gabarra artean zear? "Zenbat bidar?", itandu eutsan Santi'k bere buruari; eta aldi baten erantzuna billatzen jardun eban. Baiña larregi ziran, guztiak gogoratzeko. Buruari eragin eta Sestao'n egoan mendi-gaillurreko guda-geisotegirantz jaso ebazan begiak. Geltokiko andenetik begirata, gaztelu baten edo mendi-gaiñean egoan itsasontzi baten antza eban. Antxe egoan bere osaba Lazaro. "Osaba Lazaro", esan eban agin-artean. Une baten bere ondoan euki eban; une baten Santi'k aren abotsa entzun eta aren irribarrea ikusi eban, baita aren atzamar azurtsuak eta oinkada gelditsu ta baretsuak be.

Gudua asi zanean, osaba Lazaro guda-oiñera joaten leenengoetarikoa izan zan. Barriri etorten be leenengoetarikoa: bala batek birikia zulatu eutsan aldetik aldera. Osagilleen ustez, ez zan luzaro bizi izango. Santi ta bereak astean bein joaten yakozan ikustaldia egitera, eguen arratsaldeetan. Osaba Lazaro'k "ritx" edo opiltxo batzuk emoten eutsezan, aste-barruan bere jatorduetan "aurreratzen" ebazanak. "Ez, Lazaro, ezelan be ez", esan izan eban Santi'ren amak leenengo egunean, zaurituak, agur egiterakoan, opiltxoak emon eutseza-

nean. Baiña arek: "Ez dodaz bear, egia." Gero, Santi'ri begiraturik, "tira, eroan egizuz. Umeentzat" esan eban.

Opiltxoakaz biurtu ziran etxera, zerbait lotsatuta, baiña besapean dirutza eroan bai'egien. Barakaldo'n, janariak negurtuta egozan eta ez zan jateko-ondarrik geratzen. Aurrerantzean, aste guztietan, osabea ikustera joaten ziranean, osaba Lazaro'k bi, iru, baita lau "ritx" be emoten eutsezan; eta Santi'k, osabea maite be maite eban ezkerro, bein baiño sarriagotan jardun eban berekautan pentsatzen ea osabea ikustera ala arek jaten ez ebazan "ritx"-en billa joaten ete-ziran. Santi'k naiago izango eban osaba Lazaro'k eurai ezer ez emotea. Gose izatea nai izango eban eta osaba Lazaro'k jakin egiala bera maite ebelako, bere osaba Lazaro zalako joaten yakozala ikustera, eta ez opiltxoak jasotearren.

Konturatu be agin bagarik.

—Ez da ilgo, ezta? —esan eban.

Aitak begiratu egin eutsan, zerbait arrituta.

—Zer jazoten yatzu, Santi? —itandu eban amak, arduraz beterik.

—Osaba Lazaro ez da ilgo, ezta? —azaldu eban Santi'k.

Aita aurpegi illuna ta astuna zan eta arek ez eban eran-tzun; baiña ama oituta egoan bere burua ukatzen, baita, bearrrezko ba'zan, guzurra esaten be, Santi ta onen anai-arrebak baretzeko.

—Ez, seme —esan eban—. Olakorik!

Ba-ekian Santi'k amak guzurra iñoana, eta irribarrea eskertu eban. Trena gelditu egin zan, arnas-estuka. Bete-betean be ate bat gelditu yaken aurrean eta tren-gelatxoa ia utsik egoan. Beti lez, Santi ta Begoña leiatil-ondoan jesarri ziran. Ez eban iñok berbarik egiten. Santi'k, burua kanpora atarata, inguru guztira begiratu eban, arnasea be begietatik artzen bai'leuan. Bat-batean, leenengoz ikusi bai'leuan ikusi eban dana, ikusmena artzen dauan itsu baten garbitasunaz. Eta Barakaldo'ko mundu txiki etxekoi aretan Santi'rentzat beste luze-zabal bat eta beste zentzun bat izan eban.

Portu-kalea, beretzat beti mendi baten aldapea lakoa zana, egun aspergarri bat lako luzea zana, orain aldatz-gorako kale bat zan, laburra ta txikia. Beti urdiñabarrak, zerbait itunak eta edozelakoak iruditu izan yakozan etxe areik, kale areik eta plaza areik, orain, bat-batean, zoragarriak eta kutunak agertu ziran. Eta kale-metro bakotxak, plaza-arku bakotxak,

kaletik igaroten edo leioan agertzen zan edonok, beebarrukisketa bakotxak eta ke-zulo bakotxak, teillatu bakotxak, samurtasun eratsu ta negurribagea eban. Eta Barakaldo ez zan Santi'k urteetan pentzatu izan eban lako andia, berak beragaz alde guztietara eroan aal izango eikean lako txikia ta bereberea baiño.

Pentzaten geratu zan, zerbait ikaratuta bere bat-bateko aurkitzeaz. Urteera-ordua eldu izan zan, eta Santi'k, aurretiaz, erbesteratze-tristurea izan eban.

—Santi —esan eban Begoña'k—, zer diarduzu pentsatzen?, zer jazoten yatzu?

—Ezer be ez, Begoña —esan eban arek.

Irribarre egin eutsan, berari falta adorea neska-toari emoteko aalegiñak egiñik. Geltoki-nagusiaren txistu zolia entzun zan —Lasesarre'ko "reffere"-aren txistua ekarri eban gogora Santi'k—, eta trena, tirakada bat emonik, astiro-astiro ibiltzen asi zan. Bat-batean, Santi'k eskumatara begiratzeko bearrian sutsua izan eban, baiña burdiñazko zubira ez, ezta guda-geisotegira be, lurrera baiño. Antxe egoan "Barakaldo Futbol Club"-en ostiko-pelota zelaia —"bere" ekipoarena—, eta antxe egoan urte oro Karmen'etako-jaiak ospatzen ziran landa andia. An, gau baten, garagardotegi baten, kanpokaldean, Begoña ta sendi adiskide batzuk, bere gurasoakaz, jesarrita egozan (Miren ez zan neska bataz ziarduan dantzan Yontxu'k). Inguruan, dana zan poza ta txurro-usaiña, soiñua, etxapli-goak, "tiobiboak" eta alaitasuna. Bitartean, Santi zibilluan ebillen, amak, amargarren bidarrez, "Jausiko zaralaaa" zirautsan artean. Antxe, ain zuzen be, ille batzuk leenago, gari-lleko gau baten, norbaitek barri au ekarri eban: "Ez dakizue? Gudua asi da. Oraintxe esan dau irratiaik."

Guztiak geratu ziran isillik aldi baten, eta gero, Santi'k ulertzen ez ebazan politikaz eta gaiakaz egin izan eben berba. "Ene Jaungoikoa!", esan izan eban aren amak; eta aitak Santi'ri ta Begoña'ri begiratu eutsen, eta orduan ez eutsan Santi'ri iñok barrerik egiten txakoliñik ez ardaorik gustatzen ez yakolako. Aitari asarre-une bat etorri yakon, eta auxe esan eban: "Santi, ez dozu entzuten zure amak diñoana? Jatsi zaitez zibillutik!" Gero, eskua bekokira eroanik, beste berbots isillago ta baretsuagoaz, "ezer be ez, seme —esan eban—. Egizu zeuk nai dagizuna." Baiña Santi gelditu egin zan zibilluan. Bereala, etxera biurtu ziran, ia berbarik egin bagarik, eta gau aretan

Santi'k ez eban berandu arte lorik egin. Bere ogean egon zan makur-makur, begiak zabalik, bere amak jantokian, isilka Begoña'ko Amari zelan otoitz egiten eutsan entzunik.

Trenaren txirringak ariñago ebizan orain, eta "Ba-noa, ba-noa, ba-noa" iñoen. Lasesarre eta Karmen'go Andra Mari'etako jaiak eta futbol-zelaia urruntzen yoiazan, urruntzen, urruntzen. Santi'k, konturatu bagarik, eskuak bere gerriko barrira eroan ebazan —gerrikoak belarri bat eukan, *Barakaldo*'ren eskuduaz eta koloreakaz: oria ta baltza—, bere aitak goizean emon izan eutsan gerriko aretara. Segundu bat geroago tunelak illunetan itzi ebazan, eta aitaren berba biozkoiak adorea emoten entzun ziran, illunetan posporu bat iziotu bai'leuan. Eta

—Itxi egizuz leiatillak, Santi —esan eban aitak—, begietan ikatz-samarrik sartu ez dakizuen.

Santi, leiatillak itxirik, bere aurrean begira geratu zan, ezer ikusten ez ebala.

II

Bilbo'ra joaten zan bakotxean, tranbiatik edo trenetik jatsitean, Santi'k leenen egiten ebana auxe zan: oinkada batzuk emon, gelditu eta astiro-astiro bere ingurura begiratu. Uri andiak zarraratxoa egiten eutsan. Leenenego aldiz be somatu eban zarrara ori, oraindiño berba egiten be ozta-ozta ekianean, eta gero be bai, domeka batzuetan bere aitita-amamak ikusterra joan izan zan guztietan. Argietara, berebillen joan-etorrietara, laguntaldeari, zubietara eta batez be ibaira begiratzea oso gogoko yakon. Bera itsas-gizona ez zanarren, legorreko baiño, legor barru-barrukoa baiño geiago lilluratzen eben Santi ibaiak eta karramarroz beteriko ibai-bazterrak; ibaiak eta onen itsas-beera usaiñak, kafe-esne usaiñak, ibaiak eta itsas-ontziak euron metalezko kezulo txiki ta zapalak, euron mastak eta sortaketa-lanak.

Barakaldo'tik Bilbo'ra joateko —zazpi kilometro—, ordu erdi egiten zan trenez eta ordubete tranbiaz, azken au merkeagoa zan-eta. Baiña bide ori egitea Santi'rentzat beti jazokun arrigarri bat izaten zan. Barakaldo'n, erri andi ta lantegi-artean, bizikerea lauagoa ta berezkoagoa zan, etxekoagoa; kaleak eta plazak, beste mutikoakaz berba edo jolas egiteko balio eben; Bilbo'n, ostera, kaleak norbait batetik bestera eroa-

teko ziran soillik. Beste onezaz be konturatu zan: umeak, aurpegi astun eta illunagoak ziral, geisorik bai'legozan. Ia guztiak jai-egunetako jantziakaz ebizala zirudian, zapata eta txamarreaz, eta batzuk korbateaz be bai. Santi'k ez eban ikusi an iñoiz be mutikorik etxe-osteetan pelotan jokutzen, eta bein bakarrik, Lezama'rako geltoki-ondoan, ostiko-pelotan mutiko batzuk gomazko pelota bataz.

Baiña txiñel bat agertu zan, mutiko batek "Txiñela!" esan eban eta guztiak, ariñeketan, iges egin eben, pelotea bertan-beera itzirik. Bein, antxiña, Barakaldo'ko neskazaar aberats batek arratsalde oro aizea artzera ataraten eban txakur uletsu bat ikusi izan eban Santi'k. Txakurtxo ori guztiz ona ta etzekoia zan; aausi (zaunka) egiten be ez ekian; eta Santi Bilbo'ra etorten zanean eta umeren bat ikusten ebanean, zegaitik ez ekiala, txakur a ekarten eban gogora.

Santi'k gorantz begiratu eban, Gran Via'rantz; burua biurtu eta Artxanda'rantz gero, eta Arenal'era, Merzedez'ko nasara ta Ribera'ra.

—Eldu gara —esan eban aitak.

Okotzaz Udaletxea izentatu eban; andixek zan urteerea. Laguntalde andia ikusten zan arri-mailletan; autobus batzuk laguntaldearen erdian egozan geldituta; soiñulariak entzuten ziran, euskal-abestiak jotzen.

Igaro ziran zubitik. Santi'k ulertu ez eban zerbait esan eban amak, eta aitak arduraz begiratu eutsan.

—Ez zagoz onik, ala?

—Ez da ezer —erantzun eban amak.

—Oraindiño astia dago. Nai dozu zerbait artu?

—Bai, kafe apur bat —esan eban arek.

Arriaga-kafetxean sartu ziran eta aitak kafe-esne bi eskatu ebazan.

—Zuk nai dozu ezer, Santi?

—Ez, aita.

—Eta zuk?


—Esne apur bat —esan eban Begoña'k.

—Ez dozu ezer jan nai, alaba?

—Ez —esan eban Begoña'k—. Esne apur bat bakarrik.

Santi kristalezko atetik begira geratu zan. Kristaletatik begiratzea gogoko yakon, bekokiaz kristala estutuez, sudurra zapaldurik eta bere arnaseaz kristala laiñotzen ebala.


—Zer egiten dozu, Santi? —itandu eban aitak.



1. Luis de Castresana eta "El otro Arbol de Guernica" ezagututa gero, liburutik margozteko gogoa izan neban, eta olantxe asi nintzan.



2. Portu-kaletik beera yoiazan, geltokirako bidetik.



3. Amak, goiz aretan, buruko txori ori ipiñi eutsanean, "txori orrek gozokutxatil-korapilloa dirudi", esan izan eban Santi'k.



4. Ume batzuek pelotan ziarduen etxe bateko atzeko orman.

Apurka-apurka egiten eban zurrut kafe beroa, tabako-orria batzen eban artean.

—Begiratu —esan eban Santi'k.

Begiratzea, ikustea yakon gogoko. Zugatz bati begira orduak egiteko lain zan, azten ikusi bai'leukean, edo-ta orma bateko zirrikitu-artearen eguzkitan dagoan sugelindara bati; edo-ta, kalean alkarri ogei bidar "Gero arte" esan ondoren, alkarregandik banandu bagarik berbetan ziarduen gizon batzui. Santi'ri bizia begietatik sartzen yakon, eta mundu onetan zerbaiti bildurrik izatekotan, itsu gelditzeari eutsan. Mutiko barrukoia zan eta gauza txikien jakin-miña eban. Egun oro, liburu bat irakurtean, bere etxeko leiora urtetean edo bere eskolako mutiko barri bategaz berba egitean, beti ikasten eban aregandik zertxobait, zertxobait aberatsagoa egiten eban zerbait. Sakelean beti gauza barriren bat eukitea lez zan; ez, osterara, praktako sakeletan —emen, kanikaren bat, txakur txikiren bat eta sudur-zapia eukazan soillik—, bere barruko tokiren baten egin izan ebazan sakeletan baiño.

Santi'k gauza asko gordeten ebazan iñok be ezagutzen ez ebazan sakel ezkutu areitan: aurpegi ta berbots adiskideen gogorapenak; lur bustiaren usaiña; baserrian zapaldutako orbel-otsa; teillatuak eta kristalak joaz euri-tantak dantzan egiten eben arratsalde euritsua; sutako edo kezuloko errauts-artearen erretako pataten usaiña; Susana andrearen seme txikiaren garrasia, Ugarte'n, bidean, alde batetik bestera igarotetan, Somorrostro'tik etorren kamioi batek arrapatu ebanean; bizikeleta-argia karburozko argiaz, illuntzean, *Babcock Wilcox*'erantz Galindo-bide gaiñetik yoiala; goizalde argitsuak Enkart-errietako mendietan, zugatz-artearen zerua urratzean eta zugatzetako iruntza tantaka jaustean; udagueneko arratsalde goibel eta otz-minduak; zearo adoretzen edo kikiltzen eben pozak eta illunaldiak, eta iñori iñoiz be agertu ez eutsazan eta iñok be, bere amak be ezagutzen ez ebazan milla biotzikara, ots, zarrara, usain eta irudiak. Gauza guztiok Santi'k tokiren baten gordeta eukan sabaian batzen ebazan. Eta noizean bein bere sabaian ixil-ixilik sartu eta bertako gauzatxoak eta pitxi ederrak aztertzen ebazan.

Oraintxe, esate baterako, *Arriaga*'ko kristaletatik Udaletxera begiratzen eban artean, ez eban pentzatzen erbesterako bere urteeraz, ezta bere aitaz, ez Begoña'z, ez guduaz be. Santi "sabaian" sartu ta katuari begira egoan, sabaitik kanpora

jaurti nai izango eban gauza bakarrari. Baiña ezin eban, eta onek artegatu egiten eban.

Ia zazpi urte zala jazo zan, bizi izatera joan ziran etxean, Ugarte itzita Erreka-Ortu'ra joan ziranean. Etxe ori eskola-ondoan egoan, Kruzeta'tik San Salvador del Valle'ra doan bide zabalean, eta etxe txiki bat zan, bee-tokiaz eta etxebizitza bataz. Etxe-ostean ortutxo bat eukan, eta pikondo bat bertan. Katu bat euken etxean, katu zuri bat, bere begi diztiratsuakaz.

Jantokiko leioaren aurrean egoan pikondoa. Arratsalde baten, eskolatik etxeratzean, Santi'k txori baten txiru-liruak entzun ebazan, eta leioa zabaldu eban, txoriari begiratzeko. Leenengotan, zugatzaren adarrak soillik ikusi ebazan, eta, an goian, adartxo baten, zerbait ikaraka. Baiña, orria zan ala txoria? Santi, leio-barrean ukondoak ipiñirik, adi-adi jarri zan. Bai, txoria zan. Ari begira irribarre egiñik, "Ogi-apurak bota bear dautsadaz", esan eban berekautan. Eta, orduan, katua ikusi eban. Katua zain jarri zan, begira-begira. Aren begiak katuari josita egozan. Santi geldi-geldi geratu zan, lilluratuta lez, eta katuari ta txoriari begiratu eutsen, txoriari ta katuari. Deadar egin nai leukean, zerbait egin edo esan, katua edo txoria uxatzeko. Baiña ez eban ezer be egin. Katuaren egoera gaiztoa ikustean, agokadearen zain eroapen andiz egoala, ikaratu egin zan, eta ez eban zirkiñik egin. Eta ogei miñutu geroago, katua pikondotik gora igoten asi zan, narraz eta astiro-astiro; eta txoria, pikoka, leengo tokian geldi. Eta ordu batzuk igaro ziran —ala miñutu batzuk izan ete-ziran?—, eta katua gorago igo zan, narraz. Eta bat-batean, zapart egin eban, arrigarriri; txoria, bere egoai eragiñik eta bere ankatxoak luzaturik, garrasika asi zan, baiña bere deiak orri-otsetan eta katuaren zurrumurrutan galdu ziran. Santi'k, arrituta, katua zugatzetik jatsiten ikusi eban, arrapakiña agotik dingilizka ekarrela; gero, katua leku ezkutu batera joan zan, bere jaia ospatzera. Santi okadaka asi zan. Oraintxe be, ainbeste urte igarota gero, mutikoak amesetan egiten eban, pikondoa, txoria ta katu gaiztoa ikusten ebazala.

—Tira, berandu egin bear yaku —esan eban aitak—. Amai-kak eta laurenak dira.

Deia amaikak eta erdietarako zan. Santi'k, aurreraturik, maleta bat artu eban. Aitak, bestea. Andik urtenik, Arenal'ean zear joan ziran, Udaletxerantz. Amak iñoiz baiño txikiagoa ta zurbillagoa zirudian. San Nikolas'eko elizatik igarotean, iru

ume ta senar-emazte bi ikusi ebezan, bide-zorro ta maletakaz. Gizonetariko batek kartutxu-ual eta pistola bat eroiazan kaleko txamarra-gaiñean, eta pipea erreten eban. "Orreik be badoaz", esan eban berekautan Santi'k, umeai begiraturik. Zortzi urte-edo ebezan mutiko bi ziran, eta areik baiño neskato nagusitxoago bat, amar-amaika urtekoa, eta onek zapi gorri bat eroian buru-gaiñean. Irurak pozik yoizala zirudian.

Udaletxe-aurrean eltzean, Santi'ren amak orrazi bat atara eban zorrotxotik. Santi, ikaratuta, banandu egin zan zerbait amagandik.

—Zatoz, orraztu zagidazan —esan eban amak.

—Ez dot nai —erantzun eutsan Santi'k.

Laguntaldeak begiratu egiten eutsen. Zapi gorridun neskatoak, Santi'ri begirakune zuri bat egiñik, beste mutikoai zerbait esan eta irurak barre egin eben. Santi lotsatu egin zan. Ez ete-zan konturatzen bere ama, bera lako mutiko andi bati ezin zeitekiola ulea orraztu laguntalde guzti aren aurrean eta, batez be, beste ume batzun aurrean? "Ume bat nazala uste izango dabe", esan eban Santi'k zerbait asarratuta. Amak, alan be, orrazia eskuan eukan.

—Itzi egiozu, andra —esan eban aitak.

Santi'k eskerroneko begirakunea egin eutsan aitari. Amak, etsi onean, orrazia zorrotxoan gorde eban. Santi'k arnasea artu eban. Udaletxeko maillak igoten asi ziran jentartetik. Dana zan naastea ta joan-etorria: umeak eta andrazkoak negarrez; maletak eta bide-zorroak oiñen aurrean; txistulariak soiñua jotzen, guztiak entzun bai baiña iñok be jaramonik egiten ez eutsela; turuta, tronboe ta txintxiñak diz-diz eguzkitan, eta Euzkadi'ko ikurriña zabal-zabal aizetan Udaletxeko balkoian; igo ta jatsi egiten ziran bizkor bardin-bardin jantzitako gizezkoak; aurpegi-illun eta nora begiratzen ez ekiela egozan gurasoak, ainbeste negar-murriñen aurrean zerbait minduta lez.

Udaletxeko ate-aurrean, mailladi-goian, Santi'ren aitak auxa itandu eban:

—Nun dago gaur doazan umeen toki ori?

—Leenengo etxebizitzan, eskumako areto nagusian —esan eban gizon lodi batek—. Ez dago galtzerik.

Ez egoan galtzerik, ez. Barruko eskillara guztia lagunez beterik egoan, txandea gordeten, utsune bat aurkitzeko ta eskumako leenengo etxebizitzako areto nagusian sartzeko.

—Orreik be ba-doaz? —itandu eban Santi'ren aitak, itauna iñori be zuzendu bagarik.

—Bai —erantzun eban matrailla gorrizkadun andra batek.

Eta bere ondoan isil-isilik eta geldi-geldi egoan zeiren bat urteko ume bati begiratu eutsan; umeak begiak lurrean josita eukazan.

Astiro-astiro gora igoten yoiazan, laguntaldea aretoan sartzen zan artean. Mailla bakotxa igotean, Begoña'k gogorra-go oratzen eutsan Santi'ren eskuari, eta ama geroago ta zuria-go jarten yoiar eta arnas-estuka asi zan. Azkenez, eurak be sartu ziran eta luzaro itxaron eben, zirkiñik egin aal izan bagarik. Santi'ren aitak laguntaldearen artean tabako-orria atara eban, baiña amak,

—Iñok be ez diardu erreten —esan eutsan.

Egia da —esan eban aitak, eta tabakoa barriro sakelean gorde eban. Miñutuak aurrera yoiazan eta aldia luzatzen. Ume askok komunera joan nai eben eta euren amak auxe esaten eutseen belarrira: "Baiña, ume, ezin dozu unetxo baten itxaron?"

Santi'k barriro bere "sabaian" sartu nai izango leukean, negar-murriñik entzun bagarik eta jente-artean egon bagarik, eta ibilli aal izan edo, besterik ezean, oiñai eragin. Begoña'ren atzamarrak izerdiaz bustita egozan Santi'ren eskuan eta ez egoan eskua sakelean sartzeko ta sudur-zapia atarateko unerik.

Bat-batean, deadar bat entzun zan, baiña iñok ez eban deadar arek iñoana aditu. Barriro be deadar bat, eta barbaroa isildu egin zan.

—Ea au zerbait eratzen dogun —esan eban norbaitek samurkiro.

Isillune-erdian, txistua entzun zan, txistua bakarrik, danbolin bagarik, zortziko itun bat joten ebala. Eta areto guztian bat-bateko samiña zabaldu zan.

—Itxi leioak —agindu eban norbaitek.

Gero, deadar batek barriro:

—Orain, maleta ta bide-zorro guztiak autobusetara eroan bear dozuez; beraz, nai ba'dozue, ezarri egiezue neskato-mutikoen izenak, gero naasterik sortu ez daiten.

Persona nagusiak, alkarri arkatzak eskaturik, euren semeen izenak papeletan ezarri ta maletai ta bide-zorroai lo-

tzen eutseezan. Gizon batzuk maletak autobusetara jatsiten asi ziran.

—Maleta guztiak, bat itzi bagarik —esan eban deadar-rak—. Ez izan janari-ardurarik. Dana dago atonduta. Iñok ez dau ezeren bearrik izango joanaldi-bitartean. Eta orain, mese-dez, jarri zaitezte guztiok or barrenean, orma-ondoan. Neskato-mutikoen izenak irakurri bear doguz. Izenak izentatzean, ona etorri daitezala, nire ondora.

Berbaro andia jagi zan.

—Gero egingo dautsazue alkarri agur; ez arduratu —esan eban abotsak.

Eta beste abots bat, andrazko-abotsa, legun eta biziro, izenak irakurten asi zan. Guztiak adi-adi jarri ziran.

—Xabier Agirre Albitzu.

Mutiko bat, txapelaz eta jerseyaz, urten zan leenen. Leenena zalako ta guztien begien aurrean yoiialako, lotsatuta lez egoan. Gizon andi ta lodi batek, betaurrekoakaz, beatz-muturretan ipiñi zan laguntaldearen artean, mutikoari eskuaz adore-kiñuak egiteko. Norbaitek mutikoari argazkiak atara eutsazan.

—Gorka Arana Gaillaitzegi, Iñaki Arteaga Berrio, Manu ta Sabin Goiria Unamuno...

Izenak erle-burrundarea zirudien aretoko isilletan. Eta izenak eta izenak.

—Mikel Urkizu Barrenetxea, Jose Mari Zearsolo Ugalde...

—Berealaxe gatoz gu —esan eban berekautan Santi'k, Begoña'ri begiraturik.

• —Santiago ta Begoña Zelaia...

Santi'k ez eban bigarren abizenik entzuteko eroapenik izan. Guzti a aalbait ariñen amaitzea gura eban. Begoña'ri eskutik oratu eta, iñori ta iñora begiratu bagarik, aurreko ormara jo eban.

—Koldo Zilaurren Bediaga...

Andra batek ume bakotxari kartoitxo bat ezarten eutsan.

—Santi zara zu? —itandu eban andreak—, eta zu Begoña?

—Bai —esan eban Santi'k.

Baiña andrea, erantzunari itxaron bagarik, bakotxari kartoitxoa ezarri eutsan, kate-orratz batz sama-ondoan loturik.

Santi'k bere begietan bere amaren begirunea somatzen eban eta burua zerbait makurtuta eukan, kolorezko azpiko oia-

lari begira; oialak Bilbo'ko ikurdia ta idazkun au eukazan: *Bilbo'ko uri guztiz bikain, guztiz zintzo ta garaitu eziña*. Santi'ren ezkerreko oiñetakoa, orain siku ta zikindua, Bilbo'ren bigarren b gaiñean egoan. Iztarria zerbait zerratuta eukan eta sudurrean azkurea asi yakon. Azka egin eban eta bereala ezkerreko matraillan azkura itzela sortu yakon. "Ez egin azka", agindu eutsan bere buruari; azka-egiteari jarraitzen ba' eutsan, azkurea gorputz guztira zabalduko yakona ba-ekian-eta; azka geiago ta azkura geiago. Eta ori gogora ekarriaz, gogora ekarriaz bakarrik, gorputz guztiko azkurea somatu eban. Buruari eragin, bere amari ta aitari begiratu, eta, bere amaren irribarreak adorea emoten eutsala ikustean, azkurea kendu egin yakon.

Ume guztiak alde baten eta gurasoak bestean egozan. Ez zan maletarik ez bide-zorrorik ikusten, eta ume guztiak euren agiri-kartoitxoak euken bularrean. Abotsak berba egin eta Santi'k jaramonik egin ez eutsan zerbait esan eban: ume guztiak —seireun-edo— ondo zainduta egongo zirala ta laster etorriko zirala barriro; umeak Barakaldo'ko San Bizente auzunako eskolako irakasle zan don Segundo'ren ardurapean yoiatzala; guduaste batzuk edo ille batzuk barru amaituko zala, urrean; ume guztiak sarritan bialduko ebezala barriak etxera, baita idazten ez ekienak be...

Andra batek.

—Jose, ene seme!... —esan eban deadarka. Negarrez asi ta zorabiatuta geratu zan, eta aretotik kanpora atara bear izan eben. Ume bat aparteko eraz asi zan negar egiten, barrezka lez; baiña negar a Santi'ri zanetaragiño sartu yakon eta leituta geratu zan, bere bizitzan entzun izan eban negar-zotiñik larriena zan-eta.

—Geldi, geldi, mesedez. Mesedez —esan eban abotsak—. Ordu erdi beranduago gabiz. Ingles guda-ontzi bi Bermeo'n dagoz umeai itxaroten. Eta orain... agur egiozue alkarri.

Naaste itzela sortu zan. Alkarren begiruneak, oinkadak eta besoak negar-unpuluena artean. Dana deadarra: "Ama!", "Seme!", "Zaindu zure burua", "Idatzi", "Ez jan *regaliz* askorik, tripako miñak egiten dautsuz-ta", "Ona izan", "Idatzi eiguzu egunoro... astean bein bai beintzat", "Aita, ez dot joan nai; etxean nai dot geratu", "Ba-dakit ori, seme; neuk be ez dot nai zu joatea. Baiña jatekorik gutxi dago, ugariago dira egazkiñen bonbak, zoritxarren bat jazo legikezu. Neuk be guda-oiñera joan bear dot. Ez, seme, obe da emendik urrun-

tzea", "Ondo da, aita, zeuk esan dagizuna", "Jantzi ondo", "Esan egiozu irakasleari begiak ikusi dagizuezala noizean bein: betaurrekoak aldatu egin bear izango dautsuez, bearbada", "Eroaizuz iru ogerlekook; zaindu egizuz ondo, bada-etzpada be", "Ez busti-busti egin ulea, bestela kaska-motz geratuko zara-ta", "Zaindu zure burua ta jantzi askoaz ibilli, ortik zear otz andia izaten da-ta"...

Santi'k eta Begoña'k aita ta ama laztandu egin ebezan. Amak, barriro be, abots makalaz auxe esan eban:

—Zaindu egizu ondo Begoña, seme.

—Bai, ama.

—Idatzi sarritan —esan eban aitak.

—Bai, aita.

—Entzun dozue gizon orrek esan dauana: guduaste laster amaituko dala.

—Bai, aita —esan eban Santi'k.

Begoña'k ez eban ezer be esan. Bere amari besarkatuta egoan, begiak zabalik, negar egin bagarik, ezer ikusi bagarik.

—Tira, tira. Bizkortu, mesedez —esan eban abotsak.

Isillune baten ondoren, berben bidez adorea emon nairik, joanaldi-agurra bai'litzan, auxe esan eban gaiñera abotsak:

—Eta orain, goazan onezkero.

Aretoa, astiro-astiro, usten-usten joan zan.

—Ba-goaz —esan eban Santi'k.

Santi'k aitari begirune luzea egin, amari eskuak maitekiro estutu, amagandik askatu ta bira erdi emon eban, Begoña beragaz eroanik.

—Madarikatuak guduak, madarikatuak gudu guztiak —egin eban deadar bat-bateko asarre-bitsetan.

Santi, atetik urten eta iñori begiratu bagarik, ariñeketan jatsi zan eskillaretatik. Ez zan konturatu, ariñeketan joatean, Begoña'ren esku izerditsiak berea askatu ebanik eta neskatoa bakarrik geratu zanik, metro batzuk atzerago, eskillaran.

—Santi, Santi! —egin eban deadar Begoña'k.

Bildurrez beteriko abotsa atara eban. Santi'k, biurturik, irribarre egin eutsan. Ari itxaron, eskutik oratu (beragandik banantzeko bildurrez "Santi, Santi!" dei egin eutsanean baiño geiago iñoiz be ez eban maite izan bere arreatxo) eta biak batera jatsi ziran eskillaretan beera. Soiñulari ta txistulari-arte zear, ia beterik egozan autobusetariko baten sartu ziran.

Persona nagusiak orain autobusetako leiatillai begira ziarduen, kristalak joten, azken-burubideak emoten, sudurzapiakaz agur egiten. Santi'k bere gurasoak eskillaretan beera jatsiten eta autobusetara ariñeketan etorten ikusi ebazan.

Zuriz jantzitako andrazko batek, besoan gurutze gorri bataz, barrutik autobuseko atea itxi ta.

—Ondo zagoze guztiok? —itandu eban.

Batzuek komunera joan nai eben, beste batzuk egarri ziran, geienak zorabiatuta lez egozan. Baiña iñok ez eban berbarik esan.

—Ederto. Ba-goaz orain —esan eban emakumeak.

Kalean deadarka baten asi ziran. Soññulariak "Euskogudariak gara" joten asi ziran. Urten zan leenengo autobusa, eta berealaxe bigarrena. Santi ta Begoña yoiazan autobusa be motor-zarataka ta ikaraka asi zan.

Santi'ren gurasoen aurpegiak ikaraka ikusten ziran kristal-artetik, eta gero, astiro-astiro, dana atzean geratzen yoian, soññuak itotako berben artean, motor-otsaren artean eta kristalen ormearen artean.

Santi'k, bere jesarlekuan geldi, bere lepoak eusten eutsan Begoña'ren buruari begira egoan. Zugatzak eta etxeak geroago ta ariñago urruntzen zirala ikusten eban, autobusa aurreruntz eta areik atzeruntz. Begoña'ren buruko "txoria" tximurtuta egoan eta bestetan baiño illunago.

—Laster biurtuko gara etxera, ezta? —itaundu eban Begoña'k.

—Bai, laster —esan eban Santi'k—. Ez izan ardurarik. Gudua berealaxe amaituko da. Ikusiko dozu.

Begoña'k bere burua barriro be Santi'ren lepoan ezarri eta, baretsu, antzi egin eban. Ba-ekian ustea Santi'gan jarri zeitekeana. Arek laster biurtuko zirala esan ezkerro, laster biurtuko ziran. Santi'ren esku zaintzaille ta adoretua somatu eban bere ule-gaiñean eta aren berbotsa entzun eban, samurkiro zirautsala:

—Ez izan ardurarik, Bego. Laster egongo gara barriro etxean.

III

Areik bai zirala benetako itsasontziak! —pentzatu eban Santi'k, eta ez Barakaldo'tik Erandio'ra ibai-ertzetik ertzera

ibilten zan ontzia lakoa, ezta Bilbo'ko ibaian, Campo Volantin'etik Uribitarte'ra eta Uribitarte'tik Campo Volantin'era ibiltzen ziran txalupak lakoak be.

"Destroyerrak" zirala esan izan eban don Segundo'k, eta "destroyerrak" "ondatzailleak" adierazoten dauala. Inglesitsasontziak ziran eta ez euskotarrenak; eta gudurakoak, eskopeta lako kaiñoiakaz, baiña andiak, sekulako andiak. Kanpokaldea, aurretik atzera, ezkerretik eskumara, beetik goragiño, galtzaillu-orri andi ta lodiz zearo estalduta egoan. Barrura igo-tean, Bermeo'n, aren izena izki baltz andiz marraztuta egoala konturatu zan Santi: *H. M. S. Campbell*. Igeri egiteko tresnai eta txalupai begiratuta, areik be izki bardiañak eukezan. Beste itsasontziak *H. M. S. Franch* eban izena; Franch edo antzekoa: Santi'k ez ekian ziur-ziur. Begiratu orain eta itsasoratzen yoian ezkerretara ta zerbait aurreratuta, milla bat eta erdi-edo, olatu andiak jasorik eta kezulotik ke-moltzo oso estua ta baltza jaurtirik.

Santi egun baten La Naval'en egon izan zan eta itsasontzi baten ureratzea ikusi izan eban. Sota eta Aznar'en itsasontzi baten barruan be egon izan zan, eta barru guztia ikusi izan eutsan, zubitik makiñetako gelaragiño. Baiña janariak edo persanak eroateko itsasontzi areik ezbardiañak ziran; ulertzekoa zan areik ur-gaiñean ibiltea. Emen, ostera, *H. M. S. Campbell*'en barruan, "destroyer" au, onen sortaz eta galtzailluaz, ur-gaiñean eta ondoratu bagarik zelan egon zeitekean itauntzen eutsan Santi'k bere buruari.

"Itsas-injiñeru izan nai neuke eta itsasontziak egin", pentzatu eban Santi'k. Baiña ez eutsan bere buruari jaramon andirik egin, beste batzuetan be, zentzuna ebanetik, beste langintza batzuk be nai izan ebazan-eta: iru urte ebazala, langille batzuk etxe bat egiten ikusi ebazan, Ugarte'ko larrain-ondoan, eta orduan igeltzero izan nai izan eban; gaztaiñak artzera Duraiño'ra joaten zanean eta emendik goi mendiak ikusten gelditzen zanean eta gizonak bagoiak burdin-arriz beteten ikusten ebazanean, mea-langille; beste bein, abadea eliz-gelan idazten ikustean eta ango bakea somatzean eta ango argizari-usaiña artzean eta umeak eta andrazkoak abadeari eskuan mun egiten eutsoela ikustean, abade; beste bein, bere aitagaz *Babcock Wilcox*'era joan zanean, ordubete baiño leen "txapista" (olantxe eritzan Santi'k, lan sarreran eta amaieran, langilleen txantelak batzen ebazan arduradunari), marrazlari, idaz-

lari ta tornulari; beste egun baten, Barakaldo'n, Bata eta Gorostiza kalean zear yoiazala, eta guztiak "orreik Bata ta Gorostiza dira, Athletic'koak", ostikopelotari. Santi'k lorazain izatea be nai izan eban, Tiburtzio lez; onek ume guztiai "madari-lapur" esaten eutsen, eta bere ortuko kerezak auzunako kerezarik gorrienak, andienak, mamintsuenak eta gozoenak ziran, eta ez ziran banan-banan artzen, geienetan bi, iru edo lau kerezako urkilletan baiño; eta egazkari be bai, bere lengusu Andoni lez; au, ogei urte-edo ebazala, gudu-egazkari zan; Bizkai'ko egazkarietan gazte ta adoretsetariko bat zan eta Bilbo'ko egunoroko batek be ekarri eban aren argazkia, eta Santi'ri, liburuen aurrean ikasteko nagi zanean, etxean auxe esaten eutsoen: "Ikasi egizu gogor, zure lengusu Andoni'k lez"; langille-zain izan be nai izan eban, besteak zelan egiten eben lan begiratzan eban artean, berak tabako-orria erretoko; baita zorrotzaille be, inguruetakoko erri guztietan zear ibilteko eta bategaz eta bestegaz berba egiteko: "Zelan dago mutikoa? Ondezik? Or, ba", "Onik guztiok, Susana?", eta gero ezpankitarra antzeko a jo eta astiro-astiro joan txirringa bateko tramankulu aregaz, "El afiladoor" deadarka; eta soiñulari be bai, jantzi urdiña botoi oriakaz eta txapel gorria ipiñi, kioskora igo eta eskuakaz mutiko batek eusten eutsan soiñu-papelari begira jarteko; eta tranbia-zain, eta eskolako maisu, eta itsasontziburu, eta dendari, eta osagille, eta pelotari, batez be pelotari...

Ume batzuk *H. M. S. Campbell* ikustera joaten ziran, Gurutze Gorridun neskak eta gaztekeraz zertxobait be egiten eban ingles ofizial bat lagun ebezala. Enparaduak itsasontzigiñean egozan, olatuai ta itsas-usoai begira edo euren bururapenetan murgilduta. Asko, barriz, zorabiatuta be ba-egozan, eta okadaka, eta zurbilduta, eta etxera biurtu nai eben. Begoña be zerbait kolorea galduta ta zorabiatuta egoan.

—Ori berealaxe joango yatzu —esan eutsan Santi'k adorea emonaz—. Urik gura dozu? Nai dozu edontzitzo bat esne edo beste zerbait eskatu dagidan?

Baiña Begoña'k ez eban ezer nai. Legorrera eltzea bakarrik.

—Bide luzea daukagu oraindiño, ezta?

—Ez —erantzun eban Santi'k—. Zu nasai egon zaitez. Ikusiko dozu: laster elduko gara.

Baiña oraindiño, an barrenean, atzeko aldean, Bermeo'ko

kaia ta itsasertza ikusten ziran, orban baltz mee bat lez, odei-artearen mendiak agertzen zirala.

—Ea une baten loak artzen nauan —esan eban Begoña'k. Begiak itxi ta berealaxe zabaldu ebazan bildurtuta lez—. Ez zaitez joan, Santi.

—Bai zera! —esan eban Santi'k—. Gaiñera, nora nai dozu joan naiten, ba?

—Jakiña —esan eban Begoña'k, baretuta.

Begiak itxi eta aren arnasea bareagoa ta baketsuagoa egin zan.

Eguraldia ona egoan eta itsasoa bare. Baiña Santi zerbait larrituta egoan. Zorabiatu egin ez zanarren, bere buruaren zain egon bear eban olatuak gora ta beera egitean, itsasoa, arnas-artzean, ikaraka jarten zan-eta. Ikuspegia, oiñetan eta urrutian, itsas-mugan, itzulitara ipiñitako zerua lez zan. Santi'k ez ekian nun asten ziran odeiak eta nun amaitzen ziran urak.

H. M. S. Campbell igaroten zan lekuan ugara oso zuria izten eban, zidarrezko bide andi bat lez itsas-gain urdiñean.

Mutiko batzuek "Boga, boga, mariñela" abesten ziar- duen. Santi'k bere begirakunea an urrean jesarrita egoan nes- kato bategan ezarri eban; buru-gaiñean zapi gorri bat eukan, eta eguzkitan brist-brist egiten ebala zirudian. Udaletxean sar- tzean ikusi izan eban neskato bera zan, Santi'ri amak ulea orraztea nai izan eutsanean beste mutiko biri zerbait esan eta irurak barre egin eutsoena. Begirakunea zapi gorritik kendu nai izango leukean, baiña ara begira jarraitu eban. Neskatoak, begirakunea bere lepo-gaiñean josita somaturik, burua biurtu eta Santi'ri begira geratu zan bere begi andi ta isekariakaz. Alkarri begira egon ziran luzaro, begiak itxi bagarik.

—Zelan dozu izena? —itandu eban Santi'k.

—Eta zuri zer? —esan eban neskatoak. Baiña, isillune Baten ondoren.

—Lutzi —erantzun eban.

Santi'k ez eban ezer esan; eta neskatoak:

—Zuk Santi dozu izena.

—Bai. Zenbat urte dozuz?

Lutzi'k, une baten pentzaturik.

—Amar eta erdi —esan eban—. Eta zuk?

—Nik amabi —esan eban Santi'k.

Min artu eban bere guzurraz, eta berealaxe zuzendu eban:

—Obeto esan, laster egiten dodaz.

Astiro begiratu eutsan neskatoari, ule baltz-illunak ikusten izten ebazan zapi gorritik "katiuska" oiñetakoen ertze-ragiño.

—Nagusiagoa dirudizu —esan eban Santi'k—. Amaika edo amabi urte izan zegikez.

—Baietz uste dozu? —itandu eban neskatoak.

Onen berbotsa, oraintsu arte txeratsu ta adiskidetsua, orain kontrako antzekoa biurtu zan.

—Bai —esan eban Santi'k.

Neskatoak tentelkeriren bat esango ebala pentzatu eban Santi'k. Zapi gorridun neskatoak urrengo au esango eutsala-ta egoan: "Ikusi neban zelan ibilli yatzun zure ama ulea orraztu nairik, Udaletxean sartzean, eta zuk ez zenduala nai." Baiña Lutzi isilik geratu zan.

Onen ondoan, jesarrita eta tebeo bat irakurten, Santi'k San Nikolas eliz-aurrean eta Udaletxeko mailletan ikusi izan ebazan mutiko biak egozan.

—Zeure nebak dira orreik?

—Ez —esan eban Lutzi'k—. Auzokoak.

—A...! —Santi'k erdi-lotan egoan Begoña izentaturik—, ori neure arrebea da —esan eban.

Lutzi, ezer esan bagarik, ibiltan asi zan, oinkada arropu-
tzez, "emen nago ni, eta ez nañ zorabiatzen" esaten lez, neska-
tilla bat lez guztiz tente, alboraka egin bagarik, bernak zerbait
zabalduta, mariñel jator bat lez. Santi'ren ondolik igaroten zan
bakotxean, isekaz begiratzen eutsan, ezer esan bagarik.

Ume talde batek inguraturik, don Segundo'k zerbait
azaltzen ziarduan. Santi urreratu egin yaken. Don Segundo'k,
Santi ikusi ta.

—Kaixo, Santiago —esan eban.

—Hola —esan eban Santi'k.

Poz andia artu eban Santi'k, don Segundo'k beste umeen
aurrean gogoan izan eta bere izenaz izentatu ebalako. Santi'k
don Segundo leendik ezagutzen eban. Astebete zan ozta-ozta,
aitagaz eta Begoña'gaz, San Bizente'ko aren eskolara ikustal-
dia egitera joan izan yakola; baiña beste bein be agurtu eben
alkar, antxiña, Santi'k Foruen plazan zear don Esteban'egaz
igaroten ikusi ebanean; don Esteban au Arteagabeitia'ko esko-

lako zuzendaria zan, eta eskola orretan ikasi izan eban Santi'k
auzuna orretan bizi zanean, Portu-kale ondoko lau etxebizitza-
ko etxera aldatu aurretik. Don Esteban eta don Segundo
anaiak zirala esan izan eutsan norbaitek.

—Itsasontziaren leenengo izkiak, H. M. S. —esan eban don
Segundo'k ikaskaia azaltzen lez— *His Majesty Service* adiera-
zoten dabe, edo bardin dana, "Erregearen serbitzuan". Ingla-
terra'n, gobernuko gauza guztiak eta egazkin eta gudu-
itsasontzi guztiak iru izkiok daroez.

Santi'k don Segundo'ri begirune andia eutsan. Gizon
eroapentsu ta adikorra zan, umeak anditxoak lez artzen ebaza-
na; beste maisu batzuek, ostera, ikasleak ume lez artzen
ebazan.

Don Segundo'k, itsasontzi-gaiñekaldean ara-ona ibiltan
zala, berari jarraitzen eutsoen umeai gaiak azaltzen ziarduan;
baiña Santi, zirkiñik egin bagarik, bere lekuan geratu zan, Ipa-
rragirre'ren bertsook gogora ekarten ebazala:

*Agur, nere biotzeko
amatxo maitea,
laster etorriko naiz
kontsola zaitea.
Jainkoak berak nai du
ni urez joatea;
ama, zertarako da
negar egitea?*

Arrats-beerea zan, eta eguzkia itsasoan ostentzen astiro-
astiro. Une aretan, aizeak irratitik ekarrita, "Illunabarra" ize-
neko abestia entzuten zan itsasontzi-gaiñean:

*Illunabarra:
eguzkia asten da
jetxitzen, jetxitzen,
dizdizera ederra
zaiola gutxitzen.
Diamantezko printzak
zaizkanean galtzen,
urrezko bola baten
itxuran da jartzen.*

*Eta geldi-geldi,
eta geldi-geldi,
eta geldi-geldi,
geldi eta
itsaspera sartzen.*

Geroxeago, illargi gorri antzekoa agertu zan, itsasoko urak berde, ubel, ori antzekoak jarten ebazala. Urrutian, ke-aria botaten ebala, arrain-ontzi bat yoian Bermeo'rantz. Eguna otzitzen asi zan, eta orduan ez zan legor-marrarik ikusten; illunabarrean, zerupean, makiña-gelatik igoten zan zaratotsak eta itsas-usoen kurrizkadak bildurra sartzen eben. Santi'k batbateko ondeza somatu eban bere barruan. Eta bere etxea, eskaratzeko beroa, jantokiko maia loraz jositako mai-zapiaz, irratia araza-gaiñean, batzuetan gelditu eta beste batzuetan, arazeari ostikada bat emon ezkerero, ondo ibiltzen zan irratia, bere anaiagaz lo egiten eban gelea, aitaren tabako-orriaren usaiña, apalondoan astiro-astiro erreten ebanean, tabako-ontzia, tabako-papela ta su-biztutekoa mai gaiñean izten ebazala...

—Santi —deitu eban Begoña'k.

Begoña'k arrausi egin eta bere ingurura begiratu eban.

—Obeto zagoz, Bego?

—Bai —esan eban Begoña'k. Eta oraindiño itsasontzian eggala ba-ekianarren.

—Ez gara oraindiño eldu? —itandu eban.

—Ez. Onezkero laster gagoz.

Eta Santi, berekautan, berba egiten asi zan, itz bakotxa buruz argi-argi iñoala: aurrerantzean ezin izango zala bere sabaian berak nai egianean sartu, orain Begoña zaindu bear izango ebala-ta; orain mutil gogor lez agertu bear ebala aren aurrean, bildurrik eta ezeren ardura bagarik, bestela a geiago larritu eta txarrago izango litzakeala...

Lutzi ibilli ebillen, nasai-nasai, buruko zapi gorriaz burua estaltzen ebala. Noizean bein Santi'ri begiratzen eutsan, begiakaz irribarre zuria egiñik, begiakaz bakarrik, agoaz egin bagarik; baiña Santi'k igarri egin eutsan: a ez zan irribarre zuria, ituna baiño, guztiz ituna. Aurrez-aurre begiratu eutsan, berak be irribarre egiten eutsala, baiña Lutzi'k ibiltari ekin eutsan, tente ta isilik.

Udaletzeko andrazkoak leenen izentatu eban mutikoa,

txapelaz eta jerseyaz jantzita egoana (Xabier eban izena. Xabier Agirre Albitzu, Santi'k gogoan ebanez) zutik egoan, berari begira jesarrita egoan ume-talde baten erdian. Xabier mutiko alai zan, baita besteak egiten ebena egiteko be oso tre-bea, eta itsasontzian yoiazan mariñelak berba egiten eben antzera ziarduan berbetan. Umeak barrezka baten ezin geiago.

—*Aloo, jou ar yu, bois? Nais dei gui jav tudei. Com, com, bois. Dis güey, plis.*

Ori entzun eta guztiak barre-santzoka astea gauza bera zan, eta areitariko bi barre-ondezak jo ebazala esan zeitekean. Esku biakaz tripai eusten, barrearen barrez negar-unpuluak erien begietatik beera. Umeai begiratu ezik, barrezka baiño irrintzika egozala zirudien geiago.

Orduak aurrera yoiazan astiro-astiro *H. M. S. Campbell* itsasontzian. Beste itsasontzia, barriz, *Franch*, ozta-ozta ikusten zan urrunean, geroago ta illunagotzean. *Franch*'ek ataraten eban ke-moltzo illunagaitik ekian Santi'k itsasontzi au non egoan.

Bilbo'ko kafe-etxe dotoretako serbitzari batzun antzera, soiñeko zuriz jantzitako Gurutze Gorridun andereñoak eta mariñel batzuek gailletak, York-pernilla, limonada ta esnea eskintzen asi ziran. Baiña, batek edo bestek izan ezik, beste umeak ez eben ezer artzeko gogorik. Geroago ta otz andiagoa somatzen zan eta guztiak legorrera eltzeko ta ikararik egiten ez eban lurrean oiñak ipinteko gurariz egozan.

Eta orduan,

—E, begira, begira! —egin eban deadar norbaitek.

Santi ta enparaduak begira jarri ziran. Eta legorra zan. Mutiko batek lur a Prantzia-aldeko Laburdi zala esan eban, Donibane Lohitzun eritzan kaia edo ondokoren bat; itsasontzi guztiak araxe joaten zirala entzun izan eutsala esaten don Segundo'ri.

Santi'k, Begoña'ri eskutik oraturik eta itsasontziaren aurrekalderantz arduraz begiraturik, aurrean, urrunean, argi batzuk diz-diz egiten ikusi ebazan.

—Laster elduko gara, Bego —esan eban—. Ikusten dózu? Begoña'k, itsasora begira.

—Barrero itsasontzian joan bearra izango ete-dogu, Santi? —itandu eban.

—Ez dakit —esan eban Santi'k—. Ez dakit. Baiña ez zagoz larrituta, ezta? Ba-dakizu zeugaz egongo nazana beti.

Argiak urrerago egozan. Leenen, zeruaren eta itsasoaren artean marra baltz bat ikusi zan, eta gero, etxe-kerizpeak lez, urruneko argi geiago. *H. M. S. Campbell*'eko ume guztiak, baita zorabiatuta eta okadaka ibilli ziranak be, itsasontziaren aurrekaldera jo eben, aurrerantz begiratzeko. Eta alkarri pozbesarkadak emoten eta barre geiago egiten asi ziran; eta "Boga, boga" abestu izan eben mutikoak, orain ekin eta ekin egiten eutsoen abesti berari, eta beste batzuk be alkartu egin yakezan. Don Segundo'k aurrerantz begiratzen eban eta gero umeai, eta gero Prantzia-aldeko Euskalerrirantz. Gau illuna zan eta legorretik ur egozan.

Santi, une baten bere "sabaian" sartu zan, une baten bakarrik, eta bere aitak aitatu izan eutsan barakaldar mutikoa ekarri eban gogora, urte asko ta asko zala Joan Sebastian Elkano'gaz munduari bira emoten mariñel lez joan izan zan mutikoa. Santi'k be bere burua mariñel lez artu eban, lurralde ez-ezagunera yoiala, baiña iguin bagarik, alai ta baikor. Begiruneaz buruko zapi gorridun neskatillea billatu eban eta ez eban ikusi. Bere eskuak Begoña'ren lepo-gaiñean ezarri ta,


—Legor-ondoan gagoz, Laburdi'ko lurraldean —esan eutsan.

Portuan abotsak, deadarrak eta berbotsak entzuten ziran. Etxeak ikusten ziran, eta etxeetako argiak zeintzuk ziran bereizten ziran, zeintzuk kaleetakoak eta zeintzuk nunbait, an urrun, igaroten ziran berebilletako argiak. Bat-batean, argi zuri areik España-aldeko Euzkadi'koak ez zirala konturatu zan Santi, beste lurralderen batekoak baiño. Euzkadi'ko argiak ziran, bai, baiña Prantzia-aldekoak. Zain eta begira-begira geratu zan, begiak zabal-zabalik, Begoña'ren eskuari gogor oraturik.

Eta une aretan, *H. M. S. Campbell*'ek bere abiadea gelditzen eban artean, zeruan banan-banan izarrak asi ziran agertzen.

IV


Dana zan isilla ta illuna kanpoan, kristalen kanpokaldean. Urrun eta goian, txoferraren buru-gaiñetik, zerua illuna zan eta izarrak, betazal bagariko begi txikiak bai'litzazan, begira-begira lez egiten eben diz-diz. Santi'k Barakaldo'ko bere adiskide bat ekarri eban gogora, begi-kiñurik egin bagarik




5. Bilbo'ra: joateko bi ta joan-etorriko bi.



6. Ez dakizue? Gudua asi da. Oraintxe esan dau irriatiak.



7. Zatoz, orraztu zagidazan —esan eban amak.
Ez dot nai —erantzun eutsan Santi'k.



8. ... baita zorrotzaille be, inguruetako erri guztietan zear ibilteko.

begiratzen ebana. Sarritan Santi'k bere buruari auxe esaten eutsan: "Ea begi-kiñua nok egiten dauan leenen, berak ala nik"; eta Santi zan beti. Zuzen-zuzen begiratzen eutsan, esamez: "Ez dodaz begiak itxiko, ez dodaz begiak itxiko"; baiña asmo orretan asi eta gatxago egiten yakon zabalik eukitea. Eta orduan bein bakarrik ez, baita sarritan be isten ebazan begiak, kiñu urduri bat bai'leuan. Eta beste mutikoak, Urko izenekoak, nasai-nasai begira egoan, bein bakarrik be begiak itxi bagarik.

Autobusean guztiak isil-isillik egozan. Iñok ez eban abesten, ez berbarik egiten; ume guztiak loak artu ebazan, Santi ta aurreko jesarlekuan egoan neskatoa izan ezik; Santi'k neskatoa leiatillako kristaletik ikusten eban, norabaitera begira. Iñora be ez, bidean guztia illun-illun egoan-eta. Ez zan zugatzik, ez posterik, ez etxerik egoanik igarten. Andereñoak aspaldi zanik atzamatu ebazan argiak, eta orain argi txiki urdin batek bakarrik egiten eban argi sarrerako ate-ondoan, txoferraren aldean. Baiona, Euzkadi'ko azken-uria, atzean itzi izan eben ordu bete-edo zala.

Noizean bein erriren baten zear igaroten ziran, eta erriko argiak tximistak lez sartzan ziran autobusean, umeen aurpegi nekatuak argituaz; ume batzuek aldameneko lagunaren lepoan eukan burua etzunda, beste batzuek besoak gurutzetuta aurreko jesarleku-gaiñean, aurpegia gora begira ta agoa zabalik... Auzune baten zear igaroten ziranean, Santi'k leiatillatik begiratzen eban, autobusean yoiala zerbait ikusteko ta lotan egozan erriak ezagutzeko gurariz; etxe areitan, gaiñera, beste izkuntza bat berba egiten ebezanak bizi ziran. Ez eban iñortxo be ikusi igaro ziran erri txiki areitan.

Begoña lo-zorroan egoan. Eskumako besoa kristalgaiñean eukan eta esku-gaiñean burua. Goizean leenengo aldiz ipiñi eban *txori* ori ta gogorra, orain guztiz tximurtuta eukan; eta Begoña'ren aurpegiak, luzatu ta baketsuak, guztiz nekatuta egoala agertzen eban.

Begoña ez egoan patxadaz, bernak soortuta eta iztarria siku-siku ebazala. Gaiñera, oiñak egun guztian oiñetako estu arein barruan eukazan ezkerro, minduta eta erreta eukazan, batez be beatzetan eta ostikoetan. Lotuta eukan egoera geldi aretatik be alde egin gura izango leukean. Atsegin txiki bat artu eban, orraitio, ibillaldi aren ondoren ogean edo lurrean etzungo zala pentzaturik, anak eta besoak zabal-zabalik.

Begiak itxita, "berandu da, urrean —pentzatu eban San-

ti'k—, eta gau guztia autobusean egingo dogu bearbada. Ea zerbait lo egiten dodan." Lo-zorian geratu zan luzaro, eta astiro-astiro loak artzen ebala konturatuaz batera, beste erri baten sartu ziran eta autobusa kaleetako argien diztiraz bete zan. Erri au ez zan ordurarte somatu ebezan erri txikiak lakoa, erri andi-andia baiño, askozaz be argi ta etxe geiagoaz. Kale nagusietatik igarotean, txoferrak bi edo iru bidar jo eban klasona, eta ume batek arrausi egin ebala entzun eban Santi'k; eta beste batek.

—Non gagoz? —itandu eban indartsu.

Iñok be ez eutsan erantzun. Baiña Santi'k, burua biur turik.

—Ez dakit —esan eban.

Eta Begoña'ri begiratu bat egiñik, itauna egin ebanari.

—Ez egizu deadarrrik egin, zu —esan eutsan—, guztiak iratzartu egingo dozuz-ta.

Autobusa barrero be illunetan sartu zan. Orain ariñago yoiazan, orduko larogei edo larogei ta amarrean, bearbada.

Santi'k barrero itxi ebazan begiak, eta lotan geratu zan. Baiña klason-otsak entzunda, Santi ikaraz iratzartu zan. Zegaitik iratzartu ete-zan? Jagita, leiatillatik begiratu eta ez eban ezer ikusi. Baiña zerbait aldatu izan zan, zerbait jazoten zan: ziur egoan orretzaz; eta beingoan konturatu zan: autobusa gelditu egin zan.

Aurrekaldeko ume bi jagi egin ziran euren jesarlekue-tatik.

—Zer jazo da? —itandu eban areitariko batek.

—Jatsi naiteke une baten, andereño? —itandu eban beste ume batek.

—Zetarako? —itandu eban andereñoak—. Itxaron zerbait.

Andereñoa aurrekaldeko jesarleku baten yoiari. Eta txoferrari zerbait esanda, atea zabaldurik, urten egin zan. Atetik sartu zan aize meeak iratzartu egin ebazan ume batzuk. Begoña, ostera, ez zan iratzartu. Une batzuk igarota, andereñoa barrero etorri zan naikoa arin.

Andereñoa barruan sartu eta zutik geratu zan.

—Nok nai dau jatsi? —itandu eban.

—Neuk —esan eban aurreko ume batek.

—Baita neuk be —esan eban aren jesarlekuko adiskideak.

—Baita neuk be —esan eben atzekaldeko batzuek.

Santi'k, eskua jasota, eskolan egiten ebanez.

—Neuk be bai, andereño —esan eban.

Eta andereñoak:

—Jatsi zaitekeze nai dagizuenok. Baiña iñora joan bagarik, e? —agindu eban, atea zabaldurik.

Santi'k, jatsi zanean, atsegin andia somatu eban bedarra zapaltzean. Besoak eta anakak zabal-zabal egin ebazan. Gaua otza zan, baretsua. Zerua ez egoan baltz, Santi'k bere jesarlekutik uste izan ebanez, ozkarbi baiño, odei bagarik. Izarrak, goi-goitik, "morse"z egiten ebela itz zirudian, adiskide batzuk bai'litzazan, diztira ezkututsuaz eta atsegingarriz. Areitariko izar bik Santi'ri kiñuka ziarduela zirudian.

Neskato-mutikoak sartu-urtenak egiten ziarduen, eta autobusak orain beste bat zirudian: leen baiño biziagoa, pozgarragoa, atsegingarriagoa. Ume guztiak euren leketan jesarri ziranean.

—Bidean gelditu dan autobuseko ume batzuk onaxe etorriko dira —esan eban andereñoak—. Itzi egiezue lekue arei be, e?

Andereñoa Begoña'koa zan, dotorea ta mazala, ezpanak margozten ebazana, eta ule labor-laburra eroian. Emakume ia eldua zan. "Ogei urte gutxienez ba-ditu", uste izan eban Santi'k; eta itz egiten ebanean, esanaldiaren amaikeran, geien-geienetan "e?" esaten eban.

Santi bere lekuan jesarri zan, gorputza ozkirri-samar ebala. Ume batzuk sartzen zirala ikusi eban, eta jesarleku-billa ziarduela. Baiña jesarleku bi baiño ez egozan utsik, eta bederatzi ume igo izan ziran. Areitariko zazpi zutik geratu ziran zer egin ez ekiela. Orduan.

—Entzun —esan eban andereñoak—: zerbait estutu zaitze, guztiok jesarrita joan zaitezen.

Santi'k, begiak jasorik, bere ondoan zutik geratu ziranean aurpegiak begira asi zan. Eta areitariko bati barrero begira,

—Yosu! —egin eutsan dei.

Mutikoak, illuntasunean Santi'gana biurturik.

—Ba-al-dago or lekurik? —itandu eban—. Zerbait estutu zaitekez?

—Bai orixe —esan eban Santi'k—. Jesarri emen.

Eta lekua egin eutsan, Begoña ez iratzartzeko aalegiñak egiñik. Yosu jesarri egin zan. Lo-aurpegia eban, eta ulea be zerbait naastuta.

—Zerbait jazo yako gure autobusari —esan eutsan Yosu'k

Santi'ri—. Bake-bakean giñoiazan, eta bat-batean erre-usaiña somatuta, jatsi egin bear izan dogu. Ona egingo yakun, motorra iziotu ba'litz, gasoliñea suak artu ba'leu eta lotan egon ba'gintzaz!

“Ez nau ezagutzen”, pentzatu eban Santi'k. Ez zan arri-tzekoa ori, argi andirik be ez egoan-eta; aurpegia be ez eutsan ikusi izan, bearbada.

—Baiña, Yosu! —esan eutsan Santi'k—: ez zara nitzaz gomutatzen, ala? Santi naz.

Yosu begira-begira jarri yakon, bere aurpegia Santi'renara urreraturik, obeto ikusteko, eta agoa zabal-zabal egin eban, baita begiak be.

—Zu Santi Zelaia zara, Ugarte'koa.

—Jakiña, ba! —esan eban Santi'k.

Yosu'k Santi'ri begira jarraitzen eban, begiak zabal-zabalik.

—Guzurra dirudi —esan eban—. Eta gero.

—Kaixo, Santi —esan eban.

—Kaixo, Yosu. Zenbat urte alkar ikusi ez dogula?

—Urte bi bai, gutxienez.

—Bai, orixe gutxi gora-beera —esan eban Santi'k—. Gogoan al-dozu zelan saltatzen genduan biok batera San Joan gabeko suetan?

Alkarri begiratu bat egiñaz, poz-pozik jarri ziran, antxiñako jazoak gogora ekarriez.

—Zelan Ugarte'n? —itandu eban Santi'k.

—Beti lez —esan eban Yosu'k—. Zu Barakaldo'n bizi zara, ezta?

—Bai.

—Eta zelan an? Atsegingarri yatzu Barakaldo?

—Bai... —erantzun eutsan Santi'k, sorbaldea jasoaz—. Ba-dakizu,...

Bere ondoan lo egoan umeari begiratu eutsan, eta

—Begoña da —esan eban.

—Zein Begoña? —itandu eban Yosu'k.

—Neure arrebea, gizon —esan eban Santi'k.

—Ene! Ni Ugarte'n nengoala, ume txiki bat zan —esan eban Yosu'k—. Egunak arin igaroten dira, gero!

—Egia da —erantzun eban Santi'k.

Autobusa ibiltzen asi zan illuntasunean. Orain ume guztiak

jesarrita egozan eta autobus-barruan barrero be berotasuna, bakea ta isiltasuna ziran nagusi. Baiña Santi'k ba-ekian bera ta Yosu loak arin-arin artuko ez ebazana, alkarri azaltzeko gai asko ebezan-eta.

Antxiñako aldiak azaldu ebezan, luzaro. Logureaz egonaren, bietarik batek be ez eban loak artu nai. Isillean eta ezkutan egiten eben arraushi, eta, noizean bein, Santi'k auxe esaten eban: “Ez dakit zelan aurkitu dogun alkar emen”. Eta Yosu'k: “Egia; ez zendudazan Udaletxean ez itsasontzian ikusi.”

—Eta Ugarte'n, zelan? —itandu eban Santi'k.

—An beti bardin. Ba-dakizu a zelakoa dan.

—Bai —esan eban Santi'k.

Begoña'ren eta Yosu'ren artean jesarrita, burua jesarleku-gaiñean ipiñita, erri-miñez egoan orain Santi. Iñoiz be ez zan egon orain baiño Ugarte'tik urrunago ez urrago; eta orrek, une baten, min andia emon eutsan, ia negar-malkoak isurerazoteragiño.

Autobusa aurrera yoian. Utsik eta isil-isilik egoan erri batetik igaro ziran. Erriko argiak arin-arin argitzen eben autobus-barrua.

—Yosu —esan eban Santi'k isilpean.

—Zer?

—Zelan dagoz zure gurasoak?

—Ondo. Eta zureak?

—Oso ondo —esan eban Santi'k.

—Pozten naz.

—Logura zara, ezta? —esan eban Santi'k.

—Zerbait bai...

“Erdi-lotan dago”, pentzatu eban Santi'k. Berak be arraushi luze bat egin eban. Itxi egiten yakozan betazalak.

Yosu loak artu eban, baita Santi be. Autobusa aurrera yoian, joan eta joan. Illun egoan oraindiño, baiña eguna urratzen asi zan eta zerua, leen baltz-baltz egoana, orain zurizka antzekoa ikusten zan.

Eta ordu bi-edo geroago, ume guztiak Oleron'go kaleetan zear ebizan. Begoña Santi'ren eskutik yoian, eta Yosu arekaz batera.

—Onik zagoz, Begoña? —itandu eutsan Santi'k.

—Bai —esan eban arek—. Zerbait nekatuta.

—Oraintxe atsedendu gaitkez.

Santi'k legortuta eukan iztarria; otz zan, gaiñera, loguraz beterik.

Miñutu batzuetan ibiltari ekin eutsoen, barrero itz eta barre egiñik; ango erritarrak zerbait esatekoa egiten eutseen, prantzesez eta kiñuka. Eta an, etxe batzuen ostean, eskola-kolonia bat egoan: etxe andi batzuk, leio zabalakaz, ondoan lorak eta bedarra ebezala, baita ondartzat andi bat be, Ondarreta'koa ta Plentzia'koa biak batera baiño andiagoa.

Bakotzak bere maletea artuta gero, Begoña neskatoen logetara joan zan, beste neskatoakaz, eta Santi, Yosu'gaz eta beste mutikoakaz, mutikoen etxebizitzetara. Lo-gelea andia zan, goiza ederra ta argitsua, eta eguzkia leioetatik dana argitzen ebala sartzen zan. Guztia garbi-garbi egoan; oge-ondo bakotxean armario andi bat egoan.

Santi'k bere maletea oge-gaiñean ipiñi ebanean —alboetako oge biak Yosu'k eta Xabier Agirre'k artu ebezan—, don Segundo igaro zan, eta

—Zelan zagoz, Santi? —itandu eutsan.

—Oso ondo, don Segundo; eskerrik asko —erantzun eban Santi'k.

Ze ordu zan itandu eutsan Santi'k, eta don Segundo'k sakeletik erloju andi bat atarata, amarrak eta ogei zirala erantzun eutsan. Ogeita lau ordu leenago, Bilbo'ko Udaletxean egoan, eta orain bere gurasoakandik guztiz urrunduta.

Santi'ri bere amak maleta-barruan ipiñi eutsazan jantziak eta gauzak ikustean, umeldu egin yakozan begiak.

—Zu, Santi —esan eban Yosu'k.

—Zer?

—Laster amaituko da gudua, ezta?

—Bai —esan eban Santi'k—. Baietz uste dot nik.

Iztarran korapilloa egin yakon. Eta oiñetakoak kendu eta maletea lurrean itzita, ogean etzun zan luze-luze, begiak itxirik eta eguzkiak aurpegia jotzen eutsala.

V

Oleron'en, gauzak erosteko, ez eben txandarik egiten; ez zan gizonik ikusten kamioietan gudu-lekuetara joaten, ezta egazkin zaratatsurik ez adar-otsik be entzuten, ez zan ikusten iñor ariñeketan gordeleketara joaten...

Santi dardaraka asten zan adar-otsa entzuten eban bakotxean. Leenengotan ez, leenengotan jolas antzera artzen eban adar-otsa. Baiña geroago, gordelekuan guztiak isil-isilik egozala edo larrituta egiten ebela itz ikustean, Santi bildurrak artu eban. Batzuetan zaratots andi bat entzuten eben. eta "au urr jausi da", iñoan gizon batek, edo "au urrun lertu da". Guztiak gizonari begira geratzen ziran, eta Santi'k, begiak zabalzabalik, ia arnasarik be ez eban artzen. Gero, adar-otsa barrero entzuten zanean, "joan dira. Urten gaitekez", esaten eban norbaitek. Arnasa luze-luze bat egiten eben guztiak.

Santi'k Oleron-ugartean geien atsegin ebana, bakea zan; eta gutxien atsegin ebana, ez egoala Euzkadi'n, Prantzia'n baiño. Urrun egoan gaiñera, bere guraso, anai, erri ta adiskidea-kandik urrun; eta atzerrian igarotako aste areitan samurtu egin yakon biotza errimiñez.

Barakaldo'n egoala, eskolako orman Euzkadi'ko mapa txiki bat eskegita ikusten ebanean, Bizkaia billatzera joaten yakozan begiak, eta Bizkaia'n Bilbo, Barakaldo, Somorrostro, Portugalete. Emen, Oleron'en, ikasgelan, Europa'ko mapan, ez ziran agertzen ango errien, eskualdeen, itsasoen eta mendien izenak; Euzkadi'ko maparik be ez eban iñun ikusten. Beste bein be ikusi eban Euzkadi'ko mapa bat, Portugalete'ko denda baten; au, eskolako mapea baiño andiagoa zan; zazpi eskualde agertzen ziran (berez sei izanarren): Bizkaia, Gipuzkoa, Araba, Naparroa Goikoa ta Beekoa, Lapurdi eta Zuberoa. "Zegaitik ez geukan gure eskolan Euzkadi'ko mapa aundi-aundi bat?", pentzaten eban bein baiño sarriagotan. "Portugalete'ko denda aretako mapeak *San Sebastián* ekarri bearrean, *Donostia* ekarren; *Vitoria*'ren ordez, *Gazteiz*; *Pamplona*'ren ordez, *Iruiña*; *Bayonne*'ren ordez, *Baiona*... Zegaitik ete-zan ori?"

Santi'rentzat, Ugarte zan bere baserria, Barakaldo bere erria eta Bilbo bere uria. Irurokanako bere maitasuna bardintzua zan... Irurak itzi ebazan bertan-beera gorputzez, baiña bere barruan eroiazan egunoro.

Leenengotan, Santi zorioneko-samar bizi zan kolonian: pozik joaten zan egunoro eskolara, Begoña'ri etxeko idazkiak irakurten eutsazan, beste mutikoakaz pelotan eta ostiko-pelotan egiten eban, pozik ibiltzen zan ondartzan ariñeketan, oiñak be sartzen ebazan itsasoan, ingirian ondo ez ekian-eta. Egun guztian bere arazoetan jarduten eban eta gabetan beingoan artzen eban loak, nekatuta eta nasai-nasai.

Baiña egunak joan, egunak etorri, Santi ta enparaduak gogait egiten asi ziran, baita astiro-astiro, artegatzen eta larritzen be: gudua eurak uste izan eben baiño geiago luzatzen zan, eta euren etxeetara biurtu nai eben. Asieran oporraldi atsegin-garri zirudienak, orain luzeegiak biurtu ziran, erbestaldi izate-ragiño.

Egun aretan, eguerdi guztietan lez bazkalostekoa egitera joan ziranean, Joan Mari'k, Santurtze'ko mutiko batek, Euzka-di'ko ta España'ko gauzak txarto yoiatzala esan eban, eta gudua eurak uste izan eben baiño geiago luzatuko zala.

—Nire aitak, ostera, ez arduratzeko diraust —esan eban Santi'k—, gudua beingo baten irabaziko genduala eta laster biurtuko garala etxera. Auxe berau esan eban atzo don Segun-do'k be; Yosu'k eta biok entzun geutsan. Egia ez da, Yosu?

Yosu'k baietz esan eban. Beste mutiko batek, Martzelo'k, aita Otxandio'ko gudatokian il yakonak,

—Orixe berori esaten eban nire aitak be —esan eban—. Baiña il egin eben ta guduak iraun egiten dau, eta aste batzuk ba-dira emen gagozana. Noiz arte?

“Noiz arte?”, itandu eutsan Santi'k be bere buruari. “Noiz arte?”. Xabier Agirre'k, barriz, auxe itandu eban bat-batean:

—Eta gudua iñoiz be amaitzen ez ba'da? Eta betiko emen-txe geratu bear ba'dogu?

—Ez zaitez tentela izan! —esan eutsan Santi'k—. Zelan iraungo dau, ba, guduak bizi guztian? Aste batzuk geiago ta kitu: amaitu zan gudua.

—Ezet, postura —esan eban Xabier'ek.

Lo-gelan isiltasun sakona egin zan eta umeak alkarri begira geratu ziran, bildurtuta lez. Itz areik persona nagusiak Bilbo'n esan ba'lebezan, txartzat eta saldukeritzat artuak izan-go litzakezan; eta ori ume guztiak ekien.

Txomin'ek, Zorrotza'ko mutiko batek, leenen Xabier'i ta gero enparaduai begiraturik,

—Au, bearbada, ez da guretarikoa —esan eban.

Xabier'ek, aregana joanik, zartada bat emon eutsan aur-pegian eta atzamarka egin eutsan. Santi'k eta aita Otxandio'n il yakon mutikoak, bien artean sartuta, banandu egin ebezan.

—Jakiña, ba, Xabier geuretarikoa dana! —esan eban San-ti'k—. Ez da egia, ba, Xabier?

—Obe ez, obe ez —erantzun eban Xabier'ek.

Orduan, Txomin'ek, Xabier'egana urreraturik,

—Lagunak gara, ez, Xabier? —esan eutsan, eta eskua luza-tu eutsan.

Xabier'ek baietz esan eban buruaz, eta beste mutiko ba-tzuek sorbaldan ikutu eben. Baiña Xabier ez zan orrezaz nasai geratu: esan izan ebana zegaitik esan izan eban argitu nai eban.

—Nire arreba nagusiak atzo idatzi eustanez, beste ume pillo bat bialdu bear dabe erbestera. Ulertzen dozue? —itandu eban Xabier'ek—. Gu ez gara oraindiño etxera biurtuko; beste ume batzuek urten bear dabe Bilbo'tik. Ba-dakizue orrek esan nai dauana.

Bai, guztiak ekien —edo nagusitxoena beintzat bai— orrek esan nai ebana. Guduak eurak uste izan eben baiño geia-go iraungo ebala, eta geroago ta bonbaketa geiago izango zala, baita denden aurrean txanda geiago eta kamioi geiago gudato-kirako gizonez beterik. Eta Jaungoikoak bakarrik ekiala noiz arte egongo ziran eurak an, Oleron'en.

Biaramonean —eguen a zan—, ez egoan eskolarik arratsal-dean. Yosu'k, Xabier'ek eta taldeko batzuek arrantzara joateko asmoa agertu eutsoen Santi'ri. Baiña Santi'k ez eban nai izan. Bein, ainbat arrain artu eban Santurtze'n, eta beste egun baten Ondarreta'n be bai; eta arrezkero, lotsatuta lez egoan, askata-sunez bizi ziran arrain areik deadar txikienik be ezin egin eikeelako bere sareetan jausi ziranean, eta arraiñak bein be ez artzeko asmoa artu eban. Orregaitik, bere lagunakaz arraiñak artzera joan bearrean, etxeko idazkirik eldu ete-zan jakitera joan zan. Andereñoak baietz esan eta emon egin eutsan.

Bere gurasoen idazkiren bat jasoten ebanean, Santi'k sakelean sartzen eban, geroago irakurteko; eta beti iru edo lau aldiz irakurten eban. Geroago, Begoña'ri irakurten eutsan eta gero bere armarioan gordeten eban. Etxekoak beti bat esaten eutsoen: Begoña zaintzeko, asko jateko, gogor ikasteko, gudua laster amaituko zala, eurak onik egozala...

Jantokian, gabea, Santi'k Begoña ikusi eban.

—Etxeko idazkia jaso dot, Bego. Biar irakurriko dautsut.

Onik zagoz?

—Bai, eta zu?

—Bai —eta irribarre egin eutsan—. Ondo ikasten dozu?

—Ugariketa ikasten diardut —esan eban Begoña'k.

—Noragiño eldu zara?

—Zazpigarreneragiño. Nai dozu esan dagitzudan?

Guztiak euren lekuetan jesarrita egozan jantokian.

—Biar esango daustazu, zuri idazkia irakurrita gero.

—Ez aaztu, gero —esan eutsan Begoña'k.

Beste neskato batzuen ondoan jesartera joan zan, eta Santi bere maian jesarri zan, Yosu'ren eta Xabier Agirre'ren ondoan.

Lo-gelara eldu ziranean, Santi erantzi ta ogean sartu zan. Barruko papela ez apurtzeko, idazki-azala astiro-astiro zabaldu eta bere amaren izkia ikusi eban. Beingoan azkena ikusita, nasaitu egin zan: bai, bere amak, aitak eta Yontxu'k izenpetzen eben. Beste idazkiak lakoa zan, eskuz idatzita.

—Etxeko idazkia, e? —esan eutsan Yosu'k. Santi'k baietz esan eutsan buruaz, eta irakurten jarraitu eban. Unetxo bat geroago.

—Zer dozu, Santi? —itandu eutsan Yosu'k.

Santi'k ez eban ezer be esan. Yosu'k Santi negarrez ikusi eban, negarrez isillean. Yosu'k, kiñuka, Xabier'i esan eutsan. Beste mutiko batzuk be urreratu yakezan, eta guztiak Santi'ri begira geratu ziran. Santi'k idazkia irakurten ziarduan, bai, baiña beti orri bat, beste orrira igaro bagarik. Santi'ren begietatik negar-unpuluak jausten ziran...

Andereñoa etorri zan, argia atzamatzera, arrezkero lo egiteko ordua zan-eta. Zerbait jazoten zala konturatu zan. Santi'ren oge-ondora urreratu zan. Zer jazoten yakon itandu eutsan, eta Santi'k ez eutsan erantzun.

—Itzi egidazu idazkia irakurten, Santi.

Luzatu eban eskua idazkia artzeko, baiña,

—Ez ikutu! —esan eutsan Santi'k, papela alderatuaz batera.

Andereñoa une batzuetan isil-isilik geratu zan Santi'ri begira.

—Ogera guztiok —esan eban gero—, ordua da-ta.

Ori esanda eta Santi'ri begirakune bat eginda, joan egin zan. Biaramonerarte iñok ez eban jakin kolonian, osaba Lazaro, Santi ta Begoña'ren osabea, Sestao'ko guda-geisotegian il zanik.

Orain, Santi ta Begoña iñoiz baiño luzaroago egoten ziran alkarregaz. Alkarri begiratu bagarik eta ezertxo be esan bagarik egozan. Santi'k nonbait txatal baltz bat aurkitu eta bere jerseyko maukan josi eban. Santi'ren atsekabea andia be andia

zan. Gabean ogerakoan, isil-isilik, otoitz egin eban bere osa bearen arimearen alde.

Santi'k barriro be ikasketai ekin eutsen; ondartzan ibilter be asi zan, bakarrik sarritan, ango itsaz-izarrak eta txirlak artzen ebazala.

Alantxe igaro ziran egun batzuk, baita aste bi, iru ta lau be. Egundaren baten, zerbait jazoko zaneko zurrumurrua zabaldu zan kolonian. *Lau Begi* gatzizena eban mutiko batek kiñu bat egin eutsan Santi'ri (betaurrekoak eukazalako egiten eutsoen dei *Lau Begi*). Santi'k, aregana urreraturik.

—Zer nai dozu? —itandu eutsan.

—Enparaduak ez dagiela ezer jakin —esan eutsan *Lau Begi*'k—. Dei egiezu Xabier'i ta Yosu'ri.

Laurak batera egon ziranean.

—Albista batzuk dodaz —esan eutsen *Lau Begi*'k.

—Bai? —itandu eban Santi'k—. Eta ze albista?

—Ba-goaz emendik, eta laster gaiñera —iragarri eban *Lau Begi*'k.

—Nora? —itandu eban Xabier'ek.

Baiña ori ez ekian *Lau Begi*'k. Gabean ia mutiko guztiak ekien barri ori. *Lau Begi*'k ba-ekian geiago be, baiña ez eban ezer geiago esaten.

—Banandu egin bear gaitue alkarregandik, itxuraz —esan eban Txomin'ek—. Guztiok ez dogu toki berera joan bear.

—Bai, zera —esan eban Santi'k—. Ori ezin izan daiteke. Guztiok batera jarraitu bear dogu.

Baiña Txomin'ek bereari ekin eutsan.

—Ikusiko dozu zelan joango garan batzuk toki batera eta beste batzuk beste batera. Ez da olan, zu? —esan eban gaiñera Santi'k *Lau Begi*'ri begira.

Lau Begi'k baietz esan eban buruaz. Zurrumurrak andiagotu egin ziran urrengo egunetan: batzuk Prantzia'n geratuko zirala, beste batzuk Errusia'ra joango zirala, batzuk Beljika'ra, eta beste batzuk Ingalaterra'ra. Baiña iñok ez ekian ziur zurrumurru orreik nondik sortu ziran.

Orduan, Santi, adoretuta, don Segundo ikustera joan zan.

—Or diñoenez, batzuek joan egin bear ei'dogu eta batzuek toki batera ta beste batzuek beste batera gaiñera. Egia al-da ori, maisu jauna?

Don Segundo begira geratu yakon.

—Nok diño ori, Santi?

—Orixe diño or —azaldu eban Santi'k—: batzuek Beljika'ra joan bear dogula, beste batzuek ementxe geratu bear dabela, batzuek Errusia'ra joan bear dabela eta beste batzuek Ingalterra'ra. Ni zerbait eskatzera natorkizu...

Eta isildu egin zan. Baiña don Segundo'k adoretu egin eban:

—Esan, Santi: zer nai dozu niri eskatu?

—Begoña ta ni batera joan bear izango dogu edonora. Bera joan daiten tokira joan bear izango dot neuk be.

—Nasai egon zaitez, Santi. Biok batera joango zaree.

Orduan, don Segundo'k barri au iragarri eutsan:

—Beljika'ra. Zu ta zure arrebea ta beste ume asko Beljika'ra joango zaree nigaz.

—Eta besteak?

—Ez dakit oraindiño.

Santi une baten geldi-geldi geratu zan, isil-isilik, barria ausnartzen.

—Eskerrik asko, don Segundo —esan eutsan.

Santi'k, atea zabaldurik eta barrero don Segundo'gana biurturik.

—Laster goaz? —itandu eban.

—Egun gutxi barru.

Izan be bai. Sei egun barru, Santi, Begoña ta beste ume asko, Oleron betiko itzirik, Beljika'ra joan ziran. Beste batzuk Oleron-ugardean geratu ziran; oneitariko artean Yosu egoan: onek Santi'gaz joan nai eban, baiña ezetz esan eutsoen, ori ezin izan zeitekeala. Paris'eragiño trenez joan ziran; an sekulako arrera ona egin eutseen, ikurrin, itzaldi, karamelo ta soiñularitaldeaz, eta gero autobus batzuetara igo ziran.

Bidean ordu batzuk eginda gero, Beljika'ra eldu ziran; eta, Beljika'ko mugatik igarota bereala, gelditu egin ziran eta limonadea, esnea ta gaztae andi bat emon eutseezan; gaztaea guztiz gozoa zan, Santi'k bere bizitzan jan izan ebanik onena. Bidean aurrera egin eben, eta itsasondoan Oostdunkerke ize-neko toki batera eldu ziran. Lurralde guzti ari gatz-usaiña erion; area ta area ikusten zan inguruetan; andik urr, Ostende egoala esan eban norbaitek. Eta aurrera egiñik, itsas-ertzean egoan etxe andi batera eldu ziran. Ondartzan ezereztan ziran olatuen zaratotsa entzuten zan; eta itsasoan oial-ontziak ikusten ziran. Arratsaldeko seirak-edo ziran.

Santi, Begoña ta enparaduak autobusetik jatsiaz batera,

gasolina-usain sarkorra, orduantxe egindako jateko beroarena, itsasoarena eta kafe-esne usaiña somatu ebezan. Zuriz jantzitako emakume batek —sendoa bera ta ule gorrizkea, oso garbia ta adikorra—, ate-ondoan zutik, ume guztiak lepoan ikutzen ebazan, eta "onik etorriak, umeok", zirautsen.

VI

Etxe andi aretan aste batzuk egin ebezan. Leio zabalzabalak, liburutegia ta areto andi bat eukazan, berba egiten eta irakurten egoteko. Egunoroko ta aldizkariak egozan mai luze baten, baita illuntzeetan iziotzen zan bee-sua be. Atsegin-garria zan an egotea, pentzatzen, irakurten edo leiotik itsasora begira eta olatuen dunbotsa entzuten.

Egun-barruan, ikastordu-ostean, Santi, Xabier Agirre, Txomin eta Aresti, ondar-metetan zear ibillaldi bat egitera joaten ziran. Toki bakartu aretan —guztia itsaso, guztia ondar-meta, guztia ortzi—, Santi'k eta onen adiskideak toki ezkututsu baten egozala pentzatzen eben, erritik millaka kilometroetara. Egun baten, gizon eta zaldi-azurrak aurkitu ebezan ondarrean sartuta, baita obus-azalak, balak eta fusil zaar bat be. Biaramonean, Txomin'ek buru-azur bat aurkitu eban; lau adiskideak buru-azurrari begira-begira geratu yakozan, baita alkarrri be, eta leenengotan ez ziran ikutzen ausartzen. Baiña gero, artu ta don Segundo'ri eroan eutsoen. Onek, urte batzuk zirala, Beljika'n gerra ikaragarri bat izan zala esan eutsen, "1914'garrren urteko gerratea", eta lurralde aretan sekulako gudaketak egin ebezala; an aurkitu ebezan gauzak, gerrate aretako ondakiñak zirala.

Areitariko egun baten, Santi'k liburutegian "Don Quixote de la Mancha" ikusi eban; umeentzako argitarapena zan. Sarritan goratzen eban liburu au Santi'ren maisuak; alan be, ez yakon guztiz begiko egiten, lar goratzen ebelako, bearbada. Baiña irakurten asi zanean, biotza ostu eutsan; orduantxe ulertu eban Santi'k Cervantes idazle ospatsua baiño zerbait geiago zana: gizon bikaiña zan, apala, andia ta ona; eta bikaintasun ori eta apaltasun ori eta andi-izate ori eta ontasun ori liburuan idatzita egozan. Arrezkero, Santi'ren atsegiñik andienetarikoa liburuak irakurtea zan.

Barrero be orrilla zan eta Santi'k amabi urte egiten ebazan. Bere etxeakoak bestetan baiño idazki luzeagoa egin eu-

tsoen. "Zorionak, Santi", esan eutsan Begoña'k, eta amabi aldiz tiratu eutsan belarrietatik.

Domeka euritsuak egun guztietarik itunenak eta aspergarienak ziran. Santi'k eta beste mutiko batzuek zerbait irakurten eben artean, beste batzuek dametan edo partxisean jokatzen eben, eta neskato batzuek marraztu edo idazkiak egiten ebezan; baiña orduak ez zirala igaroten zirudian eta aparitako ordua iñoiz be ez zala eltzen.

Egun baten, jagitean, bera ondezik egoala esan eban Xabier Agirre'k. Ikustera etorri yakon osagillea, eta Xabier geiso-gelara eroan eben. Egun batzuk geroago, don Segundo'k, jantokian, maletak gertatzeko esan eutsen, biaramonean guztiak Bruselas'era joango zirala-ta. Santi don Segundo ikustera joan zan. Eta don Segundo'k, Santi'k zer nai eban igarririk,

—Oraingotan ezin izango da, Santi —esan eutsan—. Baiña uri berean egongo zaree biok eta zeuk nai dagizun guztietan ikusi aal izango dozue alkar.

—Begoña neskato-koloniara eta ni mutikoenera joango ete-gara? —itandu eban Santi'k.

—Ez. Oraingotan ez zaree koloniara joango, Santi. Beljekar-etxe batzuetara joango zaree bizi izatera; oso ondo artuko zaituee, eta antxe egongo zaree gudua amaitu ta zeuen etxeetara biurtu arte.

Santi itun eta larri jarri zan.

—Baiña ori ez da bidezko, ori ezin izan daiteke. Ezin banandu naikee nire arrebeagandik —esan eban Santi'k—. Baal-dakizu zein etxetara joango dan nire arrebea?

Don Segundo'k, izen-erreskada bat irakurrita.

—Bai —esan eban—, Marcel Bogaerts'en etxera. Oso onak eta adikorrak dira. Alaba bi nagusitxoak dabez: bata Lucienne eta bestea Simonne. Ondo konponduko dira Begoña'gaz. Ez izan ardurarik; ondo be ondo egongo da eta zeuk nai dagizun guztietan ikusi aal izango dozu.

Santi'k, don Segundo'k eukan orrira begiratu eta Begoña joango zan etxeko zuzenbidea idatzi eban: *Rue Stevens Delanoy, 32, Laeken, Bruxelles II*.

—Laeken, erregearen jauregia dagoan auzunea da, ba-dakizu? —adierazo eutsan don Segundo'k. Eta, —Santi, ez dozu jakin nai zu non bizi izango zaran?

Santi'k, buruari eragiñik eta ezer esan bagarik, alde egin eban andik, ia-ia negarrez.

Biaramonean, guztiak, jantokian batzeko euren maletakaz eskillaretan beera jatsiten ziran artean, Santi geiso-gelara joan zan, Xabier Agirre ikustera.

—Ba-zoaze, ezta? —esan eban Xabier'ek—. Nik ementxe geratu bear dodala diño osagilleak, eta laster etorriko dala Bilbo'tik beste ume-txanda bat.

—Zeure izena irakurri eben leenen Bilbo'ko Udaletxean —esan eban Santi'k—. Naikoa barre eragin zeutsen mutikoai *H. M. S Campbell* itsasontzian.

—Bai —esan eban Xabier'ek.

Alkarri eskua emon eta begietara begiratu eutsoen.

—Edozein egunetan ikusiko dogu alkar —esan eban Santi'k—. Agur, Xabier.

—Agur, Santi.

Santi jantokira jatsi eta Begoña'gaz eta enparaduakaz autobusera joan zan. Autobusa joaten asi zanean, burua biurturik, ondar-metetako etxeari begira egon zan, begietatik galdu yakon arte.

—Entzun, Begoña, entzun ondo.

—Asarre egin bear daustazu? —itandu eutsan Begoña'k.

—Ez. Begira: orain Bruselas'era joan eta an banandu egingo gara. Baiña ez estutu: uri berean egongo gara eta egunoro ikusiko dogu alkar, zeuk nai ba'dozu.

—Ez dot nai zu bagarik egon —esan eban Begoña'k.

—Ba-dakit ori, baiña... Ez zara zu konturatzen, Begoña; ez dago beste urtenbiderik. Gerratean gagoz, eta olantxe dira gauzak. Bruselas'era eldu gaitezanean, zu jaun bategaz eta andera bategaz joango zara; oso onak dira; alaba nagusitxo bi daukez, eta euren etxera eroango zaitue. Eta ni beste jaun-andra batzukaz joango naz ete eurenera eroango nabe. Don Segundo'k ba-dakiz gure zuzenbideak, eta ba-dakie nortzuk diran andra-gizon orreik. Neuk be ba-dakit zu bizi izango zaran etxeko zuzenbidea. Ez zaituz estutu, ba, entzun?, ez larritu. Neuk zainduko zaitut. Ba-dakizu amari zu zaintzeko itza emon neutsana eta nik beti beteten dot agintzaria. Ez da egia?

Begoña'k baiezko kiñu bat egin eban, ba-ekian egia zana-ta; ba-ekian, edozer jazoarren be, Santi'k agintzaria bete egi-ten ebana.

Autobusa, orain, astiro-astiro yoian uri baten zear, eta "Au Bruselas da, urrean", esan eban Santi'k. Illuntzea zan eta

argi asko ikusten ziran; zaratotsa entzuten zan ugari, giza-berbarotsa, klasonak... Santi'k etxe ta plaza andiak ikusi ebazan, eta Bruselas Bilbo baiño uri andiagoa ta garrantzitsuagoa zala konturatu zan. Autobusa bi edo iru lekutan gelditu egin zan, eta gero barrero astiro-astiro ibilli zan, kale baten inguruan, eta, plaza baten sarturik, etxe andi baten ondoan gelditu zan; etxearen aurrean gizatalde andia egoan batuta, pankartaz eta soñuz.

Eta umeak jatsiten asi ziran —Santi'k Begoña eskutik erorian—; gero, mailla batzuetatik igo eta egonleku andi baten sartu ziran. An egozan andra-gizon batzuek prantzesez egiten eben berba, beste batzuek flamenkeraz, beste batzuek gaztele-raz, baita euskeraz be. Santi'k ba-ekian euskeraz itz egiten, baiña Barakaldo'ko eskolan ez eben euskeraz irakasten, gaztele-raz baiño. Sarritan ausnartzen eban jokabide ori zer dala-ta edo zegaitik ete-zan... gaur egunean Europa'n ezagutzen diran izkuntzetarik antxiñakoena izanarren, zegaitik baztartzan ete-eben arela... Santi'k ezin eban ori bere buruan sartu.

Umeak maletak lurrian itzi ebezan eta geldi-geldi ta isililik geratu ziran. Apain-apain jantzitako gizon batek ondo-eterria egin eutsen labur-labur. Gero, Santi'k ba-ekiana esan eban arek: ume bakotxa beljekar baten etxera joango zala, guztiak sendi (familia) guztiz ezagunak, agurgarriak eta euskaldunen adiskideak zirala, banandu zeitez anai-arrebak sarritan ikusiko ebela alkar...


Jaun arek bere esatekoa amaitu ebanean, izenak irakurten asi ziran, eta, izena irakurten ebanean, mutiko bat edo nes-kato bat aurreratzen zan. Orduan, gizon bat eta andra bat urreratzen yaken; eta, ari aurpegi txeratsua agerturik, besarkatu egiten eben, prantzesez zerbait esanik.

—Begoña Zelaia —esan eben.


Santi, Begoña'ri eskutik oraturik, aurreratu egin zan. Onekana berrogei ta amarren bat urte ebazan gizon bat urten zan, eta onegaz batera beste andra eldu bat, lodia ta itxura adikorra. Prantzesez zerbait esanda, Begoña'ri mosu bat emon eutsoen.

—Begoña'ren nebea naz —esan eban Santi'k.


Gizonari ta andreari begietara begiraturik, "onak dirudie", esan eban berekautan. Don Segundo'k, arekana urreraturik, Marcel Bogaerts jaunagaz prantzesez egin eban berba. Gero, Santi'gana biurturik,



9. Gogoan al-do zu zelan saltatzen genduan biok batera San Joan gabeko suetan?



10. Ugarte'ko guttia atsegin eban: soka-dantzariak egiten ebena...



11. ... lapikoak eta pitxarrak konpontzen ebazan gizona...

12. Osaba Lazaro'ri guda-oiñean bala batek birikia zulatu eutsan aldetik aldera.



—Ez izateko ardurarik diño —esan eutsan—, ondo zainduko dabela eta maite-maite izango dabela. Begoña ikustera joan nai dagizunean, joan zaitezala; zu bizi izatera joango zaran etxekoan adiskide dirala.

—Eskerrik asko —erantzun eban Santi'k, eta Bogaerts jaunari eskua emon eutsan. Une aretan, abots batek "Santiago Zelaia" iragarri eban, eta oso dotore jantzitako jaun bat eta andra bat aurreratu ziran. Gizonak polito egiten eban gaztele-raz (euskeraz zer danik be ez), baiña soiñu txarraz. Andreak Santi'ri mosu bat emoten eutsan artean,

—Raymond Dufour dot izena eta au neure emaztea da, Arlette —esan eban gizonak—. Ondo etorria nire etxera, Santiago.

Ez eutsan Santi dei egin, Santiago baiño. Santi'k ez eban ezer esan, eta laztandu egin eban Begoña.

—Ez estutu, Bego —esan eutsan—. Ba-dakizu emen nagoana.

Bere itzak utsak eta alperrekoak zirala konturatu zan Santi. Bere burua oso txiki, oso makal eta gauza txatxarra zala ikusi eban, eta begiak bustiten asi yakozan. Bere ingurura begiraturik, ume asko negarrez egozala ikusi eban eta ez ebela persona ez-ezagun arekaz joan nai; eta, "gizonak gerrak gudatokian egiten dabezala diño, gero", esan eban bere kolkorako.

Orduan, norbaitek "Agur, Santi", esan eban. Berbots eza-guna zan, Lutzi'ren berbotsa: eskillaretan beera yoian andra biren erdian, onei eskuak emonda.

BIGARREN ZATIA

ALSEMBERG'EKO EUSKOTARTXOAK

*Babilonia'ko erreka-ertzetan negar
egitera jesarten gintzazan, Sion
gogoan genduala.*

(137'garren Salmua)

VII

Santi'ri aldapa-gora andia egin yakon Dufour'en etxean bizi izatea. Eta ez zan ondo artzen ebelako, ez. Asiera-asieratik aalegin guztiak egin ebezan Santi nasai-nasai egon zeiten eta arek ezertxoren bearrizanik izan ez egian.

Etxe andi ta polit baten bizi ziran, etxe-bizitza bikoan, *txalet* baten, Forest-auzunan; andik urr, lora-baratz bat egoan, egun guztian umez, umezaiñez, neskato-mutikoz eta usoz betarik. Jolas-tresnak eta zibilluak be ugari egozan. Santi'rentzat lo-gela argitsu ta adikorra atondu eben, liburutegia, Euzkadi'ko margoziak eta jostailuak ugari ebazala.

Leenengo gau aretan bere lo-gelan sartu zanean, zarrara andia artu eban ain apain ikustez.

—Oso polito dago —esan eban Santi'k—. Eskerrik asko.

Dufour andreak besarkatu egin eban Santi, eta, bere senarrari zerbait esanda gero.

—Gugaz zorioneko izan zaitezala esan dau, Santiago —esan eban Raymond Dufour'ek.

Arlette'k edontzi-bete esne ta gailleta batzuk ekarri eutsazan. Santi'k ez eban ezer artzeko gogorik; baiña etxekandreari eder egitearren, esnea artu ta gailletak itzi egin ebazan, ezin jan eikeazan-eta.

Ogea biguna ta garbia zan. Raymond Dufour'ek Santi'ren maletea oge-ondoan itzi izan eban eta Santi'k ez ekian zer egin. Birritan arrausi eginda gero, Arlette'k prantzesez berba batzuk esan ebazan, eta

—Ondo lo egin, Santiago —esan eban Raymond Dufour'ek—. Biar dendetara joango gara eta gauza asko erosi-ko dautsuguz. Eta Bruselas'ko kaleak ikustera be joango gara, uri au zelakoa dan ikusi dagizun. Gero, ostatu baten bazkalduko dogu, zure arrebearentzat zeuk nai dagizuna erosi-ko dozu, eta bera ikustera joango gara. Ondo deritzazu?

—Bai, jauna —esan eban Santi'k.

—Gabon, Santiago —esan eban eutsoen.

—Gabon —esan eban Santi'k.

—Komuna ta baiñu-gelea ementxe dagoz, eskumako bigarren atean. Ezer nai ba'dozu, esan nasai-nasai.

—Bai, jauna.

Joan ziran, ba, eta bakarrik itzi eben. Santi, barruz lurjota, ogean etzan zan, jantzita, negar egin bagarik, zer pentzatu ez ekiala. Alantxe egon zan luzaro. Gero, jagirik, oiñetakoak arin-arin erantzi eta oge-ondoan itzi ebazan, zaratarik atara bagarik.

Santi bere buruaz pentzatzen asi zan; nekatuta egon bagarik, lotsatuta egoan, bere egoereaz lotsatuta, an egoteaz lotsatuta, berea ez zan etxean egoteaz, Dufour senar-emazteak zelako maitasunaz eta ardurez artu eben ikusteaz. Naiago izango eban kolonia baten beste ume batzukaz egotea, iñori zorrik ez izatea...

Gero, maletea zabaldu eban: an egozan Barakaldo'tik ekarri izan ebazan sudur-zapiak, galtzerdiak, txapela ta barruko jantziak. Guztia ondo ta garbi egoan, zulo ta tarratada bagarik.

Etxeko idazki guztiak artu eta gaumaitxo-gaiñean ipiñi

ebazan. Komunera joatea be gura eban; baiña orretarako, lo-gelako atea zabaldu bear eban, komuneko atea be bai, gero itxi, barriro zabaldu eta itxi, bere lo-gelan sartu... Guzti ori oso gatxa zan zarata bagarik egitea.

Beraz, komunera joan bearrean, ogean sartu zan. Eta etxeko azken-idazkia artuta, barriro irakurten asi zan, bere osaba Lazaro'ren eriotzaz pentzatzen eta bere etxekoak gogora ekartzen...

Iratzartu zanean, argia atzamatuta egoan, eta idazkiak, egoki pillatuta, bere gaumaitxo-gaiñean. Loak idazkia irakurten artu izan ebala konturatu zan, eta beraz, argia iziotuta itzi ebala, eta "etorri egin dira", esan eban berekautan, guztiz lotsatuta. Arin-arin jantzi eta geldi-geldi geratu zan, zaratarik egiten ez ebala. Gaumaitxo-ondoan kutxatxo bat egoan eta beretzat zala ikusi eban; zabaldu eban eta eskuturreko erloju bat zan. Bederatziak eta ogei ziran. Amak Santi'ri bein eskuturreko erloju bat erosi eutsan, txikitan, baiña ez zan benetakoa, olgetakoa baiño. Au, oster, ez; erloju au egiazkoa zan, giltza emonda ibiltzen zana. Obeto begiratu ta "Made in Switzerland" jarten eban. Urrezkoa zirudian eta takada-orratza be ba-eukan.

Erlojua barriro kutxatxoan gorde eta kutxatxoa leen aurkitu izan eban tokian bertan itzi eban. Andrazko berbotsa entzun eban isilpean itz egiten, bera iratzartu ez zeiten-edo, eta norbait ibiltzen be bai. Lo-gelako atea astiro-astiro zabaldu zan eta baltzik jantzitako emakume bat agertu.

—Egun on, txiki —esan eban emakumeak.

Santi'k ez eban ezer esan eta emakumeak atetik bira egin eta "andera, andera, jagita dago", iragarri eban prantzesez. Santi'k ille areitan prantzesez be zerbait ikasi izan eban ezke-ro, "jagita nagoala esan dautso", esan eban berekautan. Zain geratu zan, Dufour andra-gizonak ikustean zelan artu ta agurtuko ebazan ondo-ondo jakin bagarik. Alette'k, lo-gelan sarturik, berba maitekor eta alaitsu batzuk esan eutsazan, eta gero Dufour jauna agertu zan.

—Egun on, Santiago. Ondo egin dozu lo?

—Bai, jauna.

Dufour andreak, gaumaitxora urreraturik, kutxatxoa artu ta Santi'ri eskiñi eutsan.

—Au zeuretzat da, Santiago —esan eban.

Santi'k kutxatxoa zabaldu, erlojua atara eta, bere eskue-
tan eukala, "au ez yat atsegingarri", esan eban berekautan,
eta oso lotsatuta geratu zan bere barruan. Zerbait esan bear
ebala be konturatu zan, eskertzarreko ez agertzeko.

—Oso polita da —esan eban—. Eskerrik asko.

Alette'k irribarre samur bat egin eutsan. Santi'ri erlojua
eskuturrean ezaririk, mosu bi emon eutsazan.

—Garbitu zara? —itandu eutsan Dufour jaunak.

—Ez, jauna.

—Zoaz eta arin-arin garbitu zaitez, baita agiñak be.

—Bai —esan eban Santi'k.

Baiña ez eukan agiñak garbitzekorik, ez pastarik, eta
orrek beeratu egin eban. Areik isilik eta geldi-geldi jarraitzen
eben ezkerro, Santi urten eta baiñu-gelara joan zan, barrutik
atea itxirik. Bestetan baiño obeto garbitu ebazan jaboiaz aur-
pegia, burua, belarriak eta eskuak; eta, ulea berak nai eban
eraz orrazturik, andik urten eta bere lo-gelara biurtu zan.

—Orain, gosaltzera —esan eban Dufour jaunak—; eta gero
Bruselas ikustera ta zerbait eroatera joango gara.

Kafea ta esnea, ogia guriñaz eta uretan berotutako
arrautza bat ekarri eutsoezan. Aizto bat ipiñi eutsoen guriña-
rentzat, zalitxo batzuk eta esku-zamau zuri bat. Santi'k ez
ekian jaten zelan asi be. Janari ta tresna guzti arein aurrean
jan baiño askozaz naiago eban bere lo-gelan, bakar-bakarrik,
kafe ta esne apur bat zurrut egin. Naikoa jan ebanean,

—Gertu zagoz, Santiago? —itandu eutsan Dufour jaunak.

—Bai, jauna.

Baiña Santi'k zerbait ekarri eban gogora: maletan eukan
txapela. Ez eban sarritan erabilten, eta Barakaldo'n be otz
andiaz eta zirimiria egiten ebanean bakarrik jarten eban. Bai-
ña orain, txapelaren bidez, bere nortasuna erakutsi nai eban.

—Parkatu, jauna —esan eban—; oraintxe etorriko naz.

Eta lo-gelara igota, maletea zabaldu, txapela artu ta
buruan ipiñi eban.

Urten ziran, ba; Dufour jaunak, berebil-barruan sarturik,
aurreko ta atzeko ateak zabaldu ebazan. Dufour andrea atzean
jesarri zan.

—Jesarri aurrean nigaz, Santi —esan eban Raymond
Dufour'ek—. Orrela obeto ikusiko dozu uria.

Alette'k bidean ikusten ebezan gauzak azaltzen ebazan
eta Dufour jaunak erderara biurtzen.

Santi adi-adi yoian, alde batera ta bestera begira. Bruse-
las uri oso andia zan, eta auzuna batek Sckarbeek eban izena,
eta erregeak jauregi bat eban Bruselas-erdian eta beste bat
Laeken'en; emengoxean bizi zan erregea. Bruselas'en, zugaz-
tiak eta lorategiak ugari egozan. Beste aide bat somatzen zan,
beste egurats bat; garagardotegi asko ikusten ziran, uso-pilloa
or-emen, zugatz andiak...

Berebilla lagunez beteriko kale baten gelditu zan; edoze-
tariko dendak egozan, eta maiak eta aulkiak be bai losadurara
atarata, eta andra-gizonak garagardoa edo kafe-esnea edaten
eben eta egunorokoak eta liburuak irakurten ebezan. Eta one-
tzaz konturatu zan Santi: kaletik igaroten ziran guztiak, andra
ta gizon —umerik gutxi ikusi izan eban—, guztiak ondo jantzita
yoiazan; andrazkoak apain-apain eta gizonezkoak kapeleaz
eta bizarra ondo kenduta. Eta guztiak eskuan zerbait eroien:
papel-zorroa, edo esku-makillea, edo euritakoa, edo egunoro-
koa, edo zorroa, edo liburu batzuk, edo txakurra, edo beste
edozer.

Jatsi ziran, ba, berebilletik; Santi'k txapela jantzi eban
poz-pozik. Jantzi-denda andi ta dotore baten sartu ziran.
Dufour jaunak dendako serbitzari bati berba egin eutsan eta
au Santi'ri negurriak artzen asi yakon. Gero, Santi'ri oial ba-
tzuk erakutsi eutsoezan eta zein eban naiago itandu eutsan
Dufour jaunak.

Santi'k edozein izentatu eban. "Zein oial geiago?", itandu
eutsan, eta Santi'k beste bat izentatu eban. Lotsea emoten eu-
tsan berari ainbeste gauza erosteak. Dufour andreak oial bat
aukeratu ta atzamarrakaz ondo ikututa, kaleko ateragiño joan
zan, argitan obeto ikusteko.

—Orain, egindako jantzi bat ekarriko dautsue —esan eban
Dufour jaunak—, ondo datorkizun ikusteko. Enparaduak etxe-
ra bialduko dautsuez bereala.

Ekarri eutsoezan, ba, txamarra ta praka barriak; Santi'k
jantzi ebazanean, "Oso ondo daukazuz", esan eutsan Dufour
jaunak. Koloreetako galtzerdiak, arkondara zuri bat eta oiñe-
tako gorrizka batzuk be ekarri eutsoezan. Zelan eukazan ikusi-
ta gero, azkenean txapela be jantzi eban, eta orain nasaiago
geratu zan, olan berea zan zerbait eroian-eta.

Zorroak berebillean sartu ebezan, eta ostatu dotore ta
siltsu batera joan ziran bazkaltzera. Santi'k gogo andi bagarik
jan eban.

Ondoko denda baten Santi'k andrakilla bat erosi eban Begoña'rentzat, eta berau bizi zan etxera joan ziran.

Begoña, Santi ikusiaz batera, negarrez asi zan.

—Onik zagoz, Bego? —itandu eutsan Santi'k.

—Bai.

—Ondo ikusten dozu etorri nazana.

—Bai —erantzun eban Begoña'k.

Alkarri begiratuta, biak lotsatuta geratu ziran eurena ez zan etxean bizi ziralako. Santi'k andrakillea emon eutsan eta Begoña'k, Dufour andreagana biurturik, eskerrak emon ebazan.

Gero, Santi'k Bogaerts'en alaba biak agurtu ebazan; nagusitxoak ziran: Lucienne'k amobosten bat urte ebazan, eta Simonne'k amaztiren bat.

Etxe arek ez zirudian Dufour'ena lako aberatsa ta dotorea, baiña txeratsu ta maitatsuagoa bai. Bogaerts jaunak noizean bein Santi'ri begiratu ta irribarre egiten eutsan, antxiñako adiskide bai'litzan. Pipaz erreten eban. Orman dingilizka pipa batzuk egozan, eta jarleku baten gainean autsonzi bat errauts beterik eta liburu bat zabalik. Santi'k atsegiñago izango leukean gudua amaitu arte antxe geratzea, Dufour'en etxera biurtu baiño antxe geratzea.

Bogaerts'en etxean ordubete baiño geiago egin eben. Begoña'k eta Santi'k ez eben luzaro berba egin; naikoa eben alkarri begiratzea. Dufour senar-emazteak jagi ziranean, Santi'k be bardin egin eban. Bogaerts jaunari eskua luzaturik, Bogaerts andreak eta Simonne'k eta Lucienne'k mosu bana emon eutsoen; eta, Begoña laztanduta gero, joan egin ziran. Berebillera igo eta barrero be bera bakarrik geratu zan Dufour andra-gizonakaz.

Santi'k bere eskerrona agertu nai eutsen; ba-ekian beti izango ebazala gogoan eta beti maite izango ebazala, beti, il arte; baiña, beste aldetik be, ba-ekian egoera arek ezin eikeala iraun, ezin eikeala arela bizi izaten jarraitu.

Gabez, bere etxeakoak ekarri ebazan gogora, Oleron-ugarteko kolonia, ondar-metetako etxea, geisorik geratu zan Xabier Agirre, eta Yosu; azken au, bearbada, Errusia'ra edo Ingalterra'ra edo beste edozein lekutara bialduko eben. Barriro be bere gurasoen idazkiak irakurten asi zan... Baiña oraingotan Santi ez eban loak artu argia iziotuta.

VIII

Egun batzuk geroago, Santi'ri egin izan eutsoezan jantziak eroan eutsoezan lo-gelara, eta Dufour'en neskameak Santi'ren armarioan sartu ebazan, Dufour andrea aurrean zala. Santi'k, gabeen bere lo-gelan sartu zanean, tamal andia izan eban Barakaldo'ko bere jantziak an ez egozala somatzean. Min andia artuarren, ez eban txistik be egin, Dufour andra-gizonak ez mintzearren; gainera, ez zan etxe aretan luzaro egongo ta...

Biaramon-goizean, gosalduta gero,

—Zerbait esan nai neuskizu, Santiago —esan eutsan Dufour jaunak.

—Bai, jauna —esan eban Santi'k.

—Esaidazu: gura izango zeuke prantzesa ondo ikasi? Orrela, Alette'gaz itz egin aal izango zeuke, beste batzukaz be bai, baita eskolara joan be. Esaidazu, ba: gura izango zeuke prantzesa ondo ikasi?

—Bai, jauna.

—Ondo da —esan eban Dufour jaunak. Eta bat-batean auxe itandu eutsan:

—Santiago, ez zeuke gura izango Arlette'ri ta niri beste era batera dei egin, beti Dufour jauna ta Dufour andrea esan bearrean?

Santi'k ez ekian zer erantzun. Arlette ta Raymond?, ala osaba Raymond eta izeko Arlette?, ala orrelako zerbait?

—Eta zelan nai dozu zuei dei egin? —itandu eban Santi'k.

—Bardin da —esan eban Dufour jaunak—. Ondoen deritzazunez egin dei.

Eta Santi'k, ari begiëtara begiraturik.

—Bai, Dufour jauna —esan eban.

Dufour'ek, astiro-astiro, tabako-orria iziotu ta autsonzia urreratu eban.

—Prantzes-ikaskizunai buruz, biar bertan asi aal izango dozu leenengo ikastaldia. Erosi dautsuguz liburuak. Ortze daukazuz.

Gaztelera idatzitako prantzes-gramatia batzuk ziran. Prantsez-gaztelera-zko ta gaztelera-prantzes iztegi bat be bagoan, eta narruzko zorro bat, kuaderno batzukaz eta lapitzaz.

—Neska irakaslea arratsalde guztietan etorriko da ona eta ordu biko ikastaldia emongo dautsu. Biar asiko dozu zure leenengo ikaskizuna.

—Bai, jauna.

Biamamonean emakume irakaslea etorri zanean, ogeitamarren bat urteko andrazko bat zala ikusi eban Santi'k, gutxi gora-beera Dufour andrearen adiñekoa. Adikorra zirudian. Dufour andreak liburutegira eroan ebanean —antxe emongo eutsazan ikastaldiak eta antxe egoan Santi ari itxaroten—, emakumeak eskua luzatu eta, irribarrez.

—Ni, Chapelain naz. Eta zuk, zelan dozu izena?

—Santiago Zelaia —esan eban Santi'k.

—Adiskide onak izango gara eta gogor ikasiko dogu, ez? —itandu eban arek.

Santi'k baietz esan eban.

Dufour andrea andik urten zanean, Chapelain ikastaldia emoten asi yakon berbots ben eta atsegingarriaz. Ordu biak egin ebezanean, Santi'k prantzesa laster ikasiko ebala uste izan eban, batez be itzak ikasi egizanean. Baiña gero ez yakon ain erraza egin. Aste batzuetan egun guztia bear izan eban ikaskizunak ikasten; irratia entzuten be adi-adi jarduten eban, itzen esanaia artu nairik.

Goiz baten, arratsaldean bere senide ta adiskide batzuk tea artzera etorriko zirala esan eutsan Dufour jaunak Santi'ri. Chapelain joan zanean —ikastaldiak ordu bietatik lauretara izaten ziran—, Santi beeko aretora eroan eben. Antxe egozan Dufour senar-emazteak beste andra-gizon batzukaz. Areitariko bat Dufour andrearen nebea zan.

Santi'k, barriro be lotsatuta, ia ezer be ez eban artu. Ez ekian zelan egon be, kanpotar arein aurrean lotsagarriren bat ez egiteko. Andrak mosu bat emon eutsoen, eta gizonak eskua. Dufour andrearen nebeak, begirakune adikor batzaz.

—Zelan doa ori, Santiago? —itandu eutsan.

—Guztia bearrean —erantzun eban Santi'k, Dufour senar-emazteai begiratuaz.

Isilik geratu zan. Guztiak berari begira egozan. “Zer ete daukat, ba, nik? —iñoan berekautan—. Ez ete-naz, ba, beste mutikoak lakoa?” Eta koloreak urten yakozan aurpegira. Andik urten eta bere lo-gelara joateko gogoia etorri yakon, txapela artu ta etxetik kanpora joateko gogoia. Baiña ez eban orrelakorik egin, ezta ezer esan be. Ba-ekian etxeko ugazabak guztiz onak zirana, ez ebela bera iraindu nai, bestetara baiño: bere ona ta zoriona gura ebela.

Santi'ri *Côte d'Or* izeneko txokolate gozo-gozoa erosten

eutsoen; orri-barruan kolorezko *kromoak* etorten ziran, errialdeak eta gizon ospatsuak ekarten ebezala. Santi'k kromook albur baten ezarten ebazan.

—Nai al-dozu alburaren eske joan, seme, Renard andreak ikusi dagian? —esan eban Dufour andreak Santi'ri begiraturik.

Santi'k ez eutsan ondo eritzi berari “seme” esatea. Begira-begira jarri yakon, baiña andrea ez zan berak esan eban itzaz konturatu. Santi'k, lo-gelara igorik, albuna ekarri eban eta andrak kromoak ikusten eta azalpenak egiten jardun eben. Noizean bein, Santi'ri begiraturik, itaunak egiten eutsoezan, azpilleko gailletak jaten ebezan artean.

—Zer deritzazu Bruselas'i? —itandu eutsan Dufour andrearen nebeak—. Erraz ikasten al-dozu prantzesa?

—Bruselas uri andia ta polita da —erantzun eutsan Santi'k—; prantzesez be ikasi dodaz berba ta esanaldi batzuk...

Biamamonean, Bogaerts etxekoak Begoña'gaz Dufour'en etxera joan ziran, Santi ikustera. Guztiak batera aldi baten aretoan egonda gero, Santi'k Begoña bere lo-gelea ikustera eroan eban.

—Au da etxearen ederra! —esan eban Begoña'k.

—Atsegingarriagoa yat Bogaerts jaunarena —esan eban Santi'k.

—Baiña au politagoa da, Santi. Ez?

—Bai; baiña emen, ez dakit, lotuta lez nago.

—Zegaitik, Santi?

—Ez dakit, ba; guztia onen garbi ta dotore dagoalako edo... Gaiñera, beti neure arduraz dagoz; kardantxilloa kaio-lan lez nago emen. Emen ez nazala luzaro egongo uste dot.

—Baiña, zegaitik ori? Guztia onak eta adikorrak dira-ta...

—Ba-dakit. Beti izango dodaz gogoan maitasun andiz.

Aste bi geroago, berak uste izan ebana jazo zan: Dufour andra-gizonakaz asarratzea. Jaieguna zan, edo Dufour'en ezkontza-urteurrena, edo areitariko baten urtebetetea. Santi, oi ebanez jagi ta bustialdi bat arturik, jantzi ta jantokira jatsi zan. Dufour senar-emazteak, gosalduta gero, urten egin zirala esan eutsan baltzik jantzitako emakumeak. Santi poztu egin zan bakarrik gosalduta aal izateaz. Gosaltzen asi zanean,

—Begira, Santiago. Zeuretzat da —esan eutsan neska-meak.

Santi'k jantokiko alde batera begiratu ta bizikeleta diztiratsu bat ikusi eban. Urreratuta, Dufour andrearen eskuak

idatzitako orritxo bat aurkitu eban bizikeleta-gaiñean: "Santiago'rentzat", jarten eban orritxoak; eta azpian, izenpetuta lez, "Aita ta Ama".

Santi'k, begiak itxirik, "Emen, barriro be", esan eban bere barrurako. Barriro maira joan zan, baiña ez eban geiago ezertxo be jan. Gero, bere lo-gelara igo zan; eta, bere idaztor-tza arturik eta barriro jantokira jatsirik, "Aita ta Ama"-ren orde, "Dufour jauna ta andrea" idatzi eban, eta bere lo-gelara igo zan.

Ondo ekian Santi'k Dufour andreak min andia artuko ebala orain idatzi ebana ikustean, baiña Santi'rentzat nai ta naiezkoa zan ori egitea. Bestela, bere gurasoai ta bere buruari saldukeria bat egitea izango zan. Eta leio-ondoan jesarrita, zer jazoko zan itxaroten geratu zan.

Ordubete baiño geiago igaro zan; etxea isil-isilik egoan; neskamea be urten egin zala zirudian. Gero, berebil-otsa izan zan eta berebilla etxe-aurrean gelditu zan: Dufour senar-emazteak ziran, kolorezko zorro bat ekarrela. Andreak, sakele-tik giltza atara, atea zabaldu eta "Santiago, Santiago!" egin eban dei poz-pozik. Baiña Santi'k ez eban zirkiñik egin, ez eban erantzun. Neskameak Dufour andreagaz itz egiten ebala entzun eban Santi'k, eta Dufour andreak negar egin eban. Orduan, eskillaretan gora oinkada-otsak entzun ebazan. Santi bildurtu egin zan, baiña geldi-geldi geratu zan, aulkian jesarrita.

Dufour jauna, lo-gelan sarturik, aurpegi illun eta itunaz, begira-begira geratu yakon.

—Min andia egin dautsazu —esan eutsan Dufour jaunak—. Negarrez dago. Iñoiz be ez dot negarrez ikusi.

Santi'k ez ekian zer erantzun; "parkatu" esan nai eutsan, baiña orixe esateko be ez zan gauza, eta kalera begiratu eban, Dufour jaunaren aurpegia ez ikustearren.

—Au ezin geratu daiteke olan —esan eban Dufour jaunak.

Dufour'ek alde egin eban eta Santi barriro be bera bakarrik geratu zan.

Orduak aurrera yoiazan. Eguerdian, neskameak bazkaria ekarri ta mai-gaiñean ipiñi eutsan. Baiña Santi'k ez eban ezer-txo be jan. Neskameak, barriro etorririk, eroan egin eban azpilla, barbarik esan bagarik. Orixe berori jazo zan askari ta apa-lorduan be.

Santi goiz ogeratu zan, lo egin nairik, baiña loa urrun zan.

Etxeko atea joten ebela entzunik, jagi egin zan; eta bere lo-gelako atea isil-isilik zabaldurik, nor ete-zan begira jarri zan: narruzko zorrotxo baltz bat ekarren gizon bat ikusi eban eta Dufour andrea geisorik egoaneko susmoa izan eban.

Barriro ogeratu ta lo geratu zan. Goizean goiz, iratzartu zanean, Dufour andrearen negar-zotiña entzun eban. Geroxeago, Dufour jaunak, Santi'ren lo-gelan sarturik.

—Emengo zeure nagusiakaz egin dot berba —esan eutsan—. Gaur arratsaldean etorriko dira zure billa eta beste leku batera joango zara. Gertu eukizuz, ba, zure gauzak.

—Ez dot nirea danik ezer be —esan eban Santi'k.

Dufour jaunak, ezer esan bagarik, alde egin eban. Neskameak maleta bi ekarri, areitan Santi'ren liburuak eta jantziak sartu, maletak ondo itxi eta ate-ondoan ipiñi ebazan. Santi'k ez eban ezer irakurri, ez esan, ez jan. Zorabiatuta lez egoan, eta, jazorikoaz atsekabetuta egoanarren, egin bear ebana egin izan ebala uste eban.

Arratsaldean, neskamea billa etorri yakon.

—Zeure zain dagoz aretoan —iragarri eban.

Arek maleta biak artu ta beera jatsi ebazan. Dufour jaunak don Gregorio'gaz berbetan ziarduan, ondar-metetako etxean don Segundo'gaz izketan bein baiño sarriagotan ikusi izan eban gizonagaz batera.

—Sekulako naibagea emon dautsazu, Santi —esan eban don Gregorio'k.

—Ba-dakit —esan eban Santi'k—. Damutzen naz benetan.

—Beste toki batera eroango zaitugu eta an beste ume batzukaz egongo zara.

—Euskotarrak? —itandu eban Santi'k.

—Orain beljikarrak dira guztiak, baiña laster Euzkadi'ko beste ume batzuk be etorriko dira.

—Begoña ikusten jarraituko aal izango ete-dot? —itandu eban Santi'k.

—Bai —esan eban don Gregorio'k—. Bogaerts jaunak badaki jazorikoa.

—Ondo da —esan eban Santi'k isillago.

Dufour jaunari begiratu ta.

—Geisorik dago? —itandu eutsan.

Dufour jaunak ez eban agorik zabaldu.

—Bai —azaldu eban don Gregorio'k—. Zaiñetako dardareak jo dau eta ondezik dago.

—Ikusi daiket? —itandu eban Santi'k.

—Ez —esan eban Dufour jaunak, Santi'ri begiratu bagarik.

Don Gregorio'k, Dufour jaunari agur egiñik, maleta biak artu ebazan. Santi'k ez ekian zer egin, ez zelan agur egin.

—Agur —esan eban.

Dufour jauna isilik geratu zan. Etxe-aurrean, gizon batek don Gregorio'ri maleta bata artu eta berebillera eroan eutsan. Santi be, Dufour jaunari begirakune bat eginda gero, berebilleruntz joan zan, Dufour jaunaren etxeko atea astiro-astiro izten zan artean.

Ordu erdi geroago, Santi etxe batera eldu zan; atean *Fleury* irakurten zan; Bruselas'en bertan egoan etxe ori, Forest-auzunean, 266'garren zenbakian.

IX

Fleury erdi ikastetxe, erdi umezurtz-etxe zan. Eun eta ogeiren bat neskato-mutiko bizi ziran, seitik amasei urteta-koak. Arein gurasoak alkarregaz bananduta, edo atzerrira joanda, edo guztiz geisorik egozanak ziran; beste batzuk, barriz, umezurtzak.

Etxe aren atzekaldean, bedartza ta zugatz-artean, geisotegi andi bat egoan. Bildurra be emoten eban gabez ara begiratzeak: an barruan argiak baiño besterik ez zan ikusten, eta geiso-zaintzailleak, zuriz jantzita, joan-etorrika ebizan berdatza-ondoko bideetatik. Noizean bein, geisotegitik norbait ataraten eben, ogetxo baten, gorputz guztia ta aurpegia be izaraz estalduta; ia egunoro geisoren bat edo beste ekarten eben geiso-berebillean, ezetariko zaratarik egin bagarik. Eta mutikoak, euren lo-geletatik, an jazoten zanari begira geratzen ziran leioetatik.

Fleury etxeak zuzendari bat eban, *Fleury* jauna; aren emazteak, zuzendari-andreak, izena Marie eban, baita euron alabeak be; au Santi'ren adiñekoa zan; betaurrekoak eroiazan eta beste umeakaz batera ikasten eban.

Irakasle ta zaintzaille egiten eben neskak egozan.

Noizean bein osagille bat joaten yaken; gizon naikoa zaarra zan, baiña beti alaitsu ta adikor agertzen zan. Iñok be ez ekian aren izenik, eta "Osagille jauna" esaten eutsoen.

Don Gregorio'k alde egin ebanean, Tys izeneko neska batek Santi gela batera eroan eban, Santi'k ekarri ebazan

agiri-orriak irakurrita gero etxeko agiri-liburuan aren fitxa idazteko. Ori eginda, neskeak lo-gela batera eroan eban. Lo-geleak amasei oge eukazan, alde baktxean zortzi; oge baktxaren ondoan armario txiki bat egoan, Oleron-ugartean euki eban antzekoa, baiña txikiagoa ta orman josita lez. Barreanean, leio andi bat egoan, geisotegira begira.

Santi'k bere jantziak eta liburuak armarioan sartuta gero, Tys andereñoak Santi jantokira eroan eban. Umeak apaltzen ziarduen. *Fleury* jauna ta onen andrea ta emakume ta zaintzaille batzuek barreneko mai batzuetan jaten eben, azpioltza antzeko baten gaiñean, ume guztiak ikusteko eraz. Tys andereñoak jesarlekuko toki bat izentatu eutsan (an ez egoan aulkirik ondar-metetako etxean lez, jesarlekuak baiño) eta Santi, iñori begiratu bagarik, jesarri egin zan. Aurrean ipiñi eutsena jan eta ez eban ezer esan.

Aren ondoan egoan mutiko batek —ule-gorria bera—.

—Zu barria zara, ezta? —itandu eutsan.

—Bai.

—Luzaro egon bear dozu emen?

—Ez dakit, ba —erantzun eban Santi'k.

—Nik Raymond dot izena. Eta zuk?

—Santi.

—Zelan? —itandu eutsan ule-gorriak.

—Santi —esan eban Santi'k, izkin biak argi-argi oguziaz.

—Nondik zatoz?

—Euzkadi'tik.

—Euzkadi'tik?

—Bai.

—Beraz, zu euskotarra zara?

—Bai, euskotarra ta euskalduna.

Santi'k ba-ekian itz bi oneik adierazoten ebena, bere osaba Lazaro'ren liburu baten irakurri eban-eta. Izan be, bera *euskotarra* zan jatorriz eta *euskalduna* izkuntzaz.

Barri ori batak besteari esan eutsoen bereala, mairik mai, eta guztiak Santi'ri begira asi ziran. Alan be, orain Santi ez zan lotsatzen, Dufour'en etxean lez, okerretara baiño: zerbait zorionekotzat izan eban bere burua, neskato-mutiko guztiak ikaratuta lez begiratzen eutsoelako.

Aparia amaitu ebanean, guztiak zutik jarri ta txandan urten ziran, itzik egin bagarik. Urten eta bereala, mutiko ba-

tzuk, Santi inguraturik, ari zerbait esaten asi yakoan. Baiña Raymond'ek, jantokian leenen agurtu izan ebanak.

—Kendu zaiteze, itzi gagizuez baketan —iñoan.

Santi ta Raymond eta beste mutiko batzuk lorategian egoan areitz andi baten inguruan jira-biraka ibilli ziran aldi baten, txilin batek jo eban arte. Orduan, Tys andereñoak txalo batzuk jo eta

—Naikoa da —esan eban—; ogera joateko ordua da.

Santi, lo-gelara igo, erantzi ta oge-jantzia jantzirik, ogean sartu zan.

Santi'k pasillorako ate-ondoan egiten eban lo, eta Raymond'ek leio-ondoan. Baiña Raymond, Santi'ren ondoan lo egiten eban mutikoagaz berba egiten asi zan, eta, ari liburu bat eta beste zerbait emon ondoren, Raymond Santi'ren ondoko ogera aldatu zan eta bestea Raymond'enera joan zan. Tys andereño zaintzaillea etorri zan eta konturatu be laster egin zan aldakuntza arezaz, baiña ez eban ezer esan.

—Tys andereñoa oso ona da —esan eban Raymond'ek—. Umea zanean, bera be geu lez ementxe egon zan.

Tys andereñoak, argia atzamatu ta "Gabon" esanda, alde egin eban. Oraindiño argitasuna sartzen zan leio zabaletik. Tys'en berbotsa entzun zan barrero, alboko lo-gelan "Gabon" iñoala, eta eskillaretan beera jatsiten ikusi eben. Alditxo baten isil-isilik geratu ziran guztiak; baiña geroxeago, mutiko batek, ogetik jagi ta eskillaretaragiño joanda, patiorako leio txikitik begiratu eban, eta, barrero lo-gelara etorririk,

—Jantokira doa —esan eban.


Eta guztiak berba egiten eta ogetik jagiten asi ziran, eta batzuk Santi'ren ogera be urreratu ziran. Baiña Santi lar nekatuta egoan eta lo egiteko gogoz, eta beingoan artu eban loak.

Egun batzuetan Santi nasai-nasai ebillen *Fleury*-etxean, eta laster asi zan bere lagunen kirol, arazo ta arduetan parte artzen be. Ikasle nagusiakaz jarri eben eta, ikaskizunak prantzesez izanarren be, naikoa erraz ikasten ebazan. Mutikoak gomazko pelotea zulatuta euken eta ba-ziran egun batzuk ostiko-pelotan jokatzen ez ebela; baiña Santi'k trapuzko pelota bat egin eta lokarriaz lotu-lotu egin eban. Leenengotan, beljikkarrak ez eben trapuzko peloteaz jokatu nai; Santi'k adoretu egin ebazan, eta ez eutsoen ain txarto eritzi. Arrezkero, sarritan jokatzen eben Santi'k egiten ebazan trapuzko pelotakaz...


Dufour'en etxea bertan-beera itzi izanda egun batzuk



13. Yosuk, Xabier'ek eta taldeko batzuek arrantzara joateko asmoa agertu eutsoen Santi'ri.



14. Begoña, Santi ikusiaz batera, negarrez asi zan.



15. ... eta amorrerazo egiten ebezan buru-andiak.



16. Kalean zear yoian abadea ekarri eban gogora, il-zorian egoanari elizakoak eroaten.

geroago, Bogaerts jauna etorri yakon ikustera goiz baten, bederatzietan-edo. Illaren leenengo domekea zan, eta, Raymond'ek Santi'ri azaldu eutsanez, illaren leenengo domekak "urteteko egunak" ziran eta illaren irugarren domekak, "ikustaldi-egunak" *Fleury'n*. Beste domeketan iñor ez zan urteten, ezta areik ikustera iñor etorten be; eguna jolastokian egiten eben, edo-ta autobusean joaten ziran joan-etorri bat egitera.

—Zelan zagoz Santi? —itandu eutsan Bogaerts jaunak, ari eskua emonik. Eta urten, tranbia batera igo, ia uri guztian zear ibilli eta Laeken'era eldu ziran. Tranbiatik jatsi eta Stevens Delannoy kalean sartzean.

—Dufour andra-gizonak maite-maite zenduezan eta guztiz onak ziran —esan eutsan Bogaerts jaunak—. Min andia artu dabe jazorikoaz.

—Neuk be bai —esan eban Santi'k.

—Zer? —itandu eban Bogaerts jaunak.

Irribarreka, zerbait gortuta egoala azaldu eutsan, 14'garrren urteko gerratean kaiñoillaria izan zala-ta.

—Neuk be min andia artu nebala diñot —esan eutsan Santi'k gogorrango.

—Ondo al-zagoz *Fleury'n*? —itandu eutsan Bogaerts jaunak.

—Ni bai —erantzun eutsan Santi'k.

—Ezer bear ba'dozu, ezer nai ba'dozu, esaidazu.

—Ondo da —esan eban Santi'k.

Eta orduan, Santi'k Bogaerts jaunari Dufour etxean jazo izan yakona azaldu eutsan, eta zegaitik kendu eban arako "Aita ta Ama"; izan be, alakorik onartzea, bere gurasoai salduke-ria egitea izango zala ta...

—Ulertzen dot —esan eban gizonak.

Santi'k atsegiñez egiten eban berba Bogaerts jaunagaz; gogoko egiten yakozan aren pentzakera, izakera ta berbakera. Urte askotako ezaguna zala esan zeitekean. Goiz atsegingarria emon eban Begoña'gaz eta Bogaerts jaunaren etxeokaz. Eta kaleetan zear ibillita gero, Begoña Bogaerts andreagaz eta Simonne ta Lucienne'gaz joan zan. Bogaerts jaunak Santi restaurante txiki batera eroan eban eta apaldu egin eben. Eta, barrero leengo tranbia arturik, *Fleury'ra* biurtu ziran.

Asteleeneko eguerdian, Santi'k, ume baktxaren aurrean eta kristalezko edontziaren ondoan, urez beteriko edontzitxo

bat aurkitu eban jantokian. Edontzitxo a zetarako zan itauntzeko astirik izan baiño leen, andereño bat ikusi eban, eskuan isurkai gorritzak beteriko bonbil bat eroala; ume bakotxaren edontzixora yodo tanta batzuk botaten ebazan, umearen urteak aiña. Santi'ren aurrean gelditu zanean.

—Zenbat urte dozuz? —itandu eutsan Santi'ri.

—Amabi —erantzun eutsan Santi'k.

Eta andereñoak amabi tanta bota eutsazan. Santi'k edontzixokoa zurrutada baten edan eban. Goralarría etorri yakon, eta zikinkería bat artu ebala esan eban berekautan. Yodo tantok umeak estul eta estul egiten ebenean edo eguraldi otz-beroak eldu ta otzeriak artzen ziranean emoten eutseezala esan eban Raymond'ek.

Eta orduantxe bete-betea, ago txarra kentzeko, arin arin jaten asi zanean, Tys andereñoak, maira urreraturik.

—Fleury jaunak zeugaz egin nai dau berba —esan eutsan.

Santi berealaxe jagi ta zuzendariagana urreratu zan.

—Dei egin daustazu? —itandu eutsan Santi'k.

Baiña zuzendariak jaten jarraitu eban.

—Dei egin daustazu, zuzendari jauna? —barríro be Santi'k.

Fleury jauna isilik egon zan miñutu bat baiño geiagotan.

—Etzi beste euskotar ume batzuk etorriko dira —esan eutsan azkenenan be zuzendariak.

—Zenbat, zuzendari jauna?

—Bederatzi neskato ta amabi mutiko. Beste lo-gela batzuetan oge geiago ipiñiko doguz, euskotar guztiak zure logelan zeugaz batera egon daitezán.

—Eskerrik asko —esan eban Santi'k—. Eskerrik asko, zuzendari jauna.

Fleury jaunak bere emazte, andereño ta zaintzailleai begiratu eutsen astiro-astiro. "Deadar eta zartada bagarik emon bear yake lotsea", iñoan bere begirakuneak; eta jaten jarraitu eban. Bitartean, Santi bere maira biurtu zan, bere burua zorioneko ta alaitsu ikusten ebala.

Urrengo gau bietan Santi luzaro egon zan loak artu bagarik. Aurregunean amabi ogetan izara barriak ipiñi ebezan eta gabeán lo-gelan Santi'k, Raymond'ek, Claude'k eta André'k soillik egin eben lo. Enparaduak beste lo-gela batera aldatu ziran.

Arratsaldeko leenengo orduan etorri ziran euskotarrak.

Santi'ren biotzak taupadaka ziarduan areik atetik sartzen ikustean eta banan-banan aurpegira begiraten eutsen artean. Barríro Oleron'go kolonian edo ondar-metetako etxean egotea lez zan, zerbait etxera urreratzea lez.

Sartzen ziran guztiak, mutiko ta neskatoak, andiak ta txikiak, "Nondik zatoze?" itauntzen eutsen, eta "Ni Santi naz. Barakaldo'koa naz" esaten eutsen. Guztiak bizkaitarrak ziran; guztiak egon izan ziran Bilbo'ko Udaletxean; guztiak ikusi izan eben don Segundo; guztiak ekien adar-otsa ta janari negurtua, dendetako txanda luzeak, bonbaketak eta Arenal'a zertzuk ziran. Eta Santi'k, pozaren pozez, ia negar egiten eban, "Ni Santi naz. Barakaldo'koa naz" esaten jarraitzen eban artean.

Eta bat-batean, bere lagun-laguna ikusi eban: Xabier Agirre Albitzu. Azkenengoz alkar ikusi ebenetik ordurarte urteak eta urteak igaro zirala zirudían.

—Xabier! —esan eban Santi'k deadarka.

Eta Xabier'ek, ari begiraturik.

—Santi! —esan eban.

Alkar besarkatuta, luzaro geldi-geldi geratu ziran, isilik; Santi bere burua Xabier'en sorbaldan ezarririk eta Xabier bere burua Santi'ren sorbaldan ezarririk.

Anai bi lez ziran.

X

Aberkide areik ogei ta bat ziran, bederatzi neskato ta amabi mutiko, Zuzendari jaunak iragarri izan eban. Arein etorrerreak zearo aldatu eban Santi'ren bizitza *Fleury'n*. Poz eta nasaitasunez bete eben. Egun batzuetan itaunka baten ekin eutsen: nondik etorri ziran, zenbat urte ebezan, ze izen eben, Barakaldo'n eta Bilbo'n bonbaketa asko izan ziran, oraindiño be gizonak gudatokira joaten jarraitzen eben, oraindiño be guduak luzaro iraungo eban...

Etorritakoen artean Barakaldo'ko mutiko bi egozan: Manu, amar urtekoa, don Segundo'ren eskolan ikasi izan ebana, eta Yon Kareaga, amaika urtekoa, mutiko lotsakorra, buru onekoa ta ondo azia.

Biotariko batek be ez eutsan Barakaldo'ko albista barririk esan, andik iru illabete baiño leenago urten izan ziran-eta; Oleron'en eta ondar-metetako etxean be egon izan ziran.

Etorri ziranen artean, Bilbo, Lekeitio, Ondarreta, Santur-

tze, Bidebieta, Somorrostro, Orduña ta Sestao'ko neskato-
mutikoak be ba-ziran.

Mutikoak Santi'ren lo-gelan eurentzat izentatutako ama-
bi ogeak artu ebezan, eta arrezkero, aste batzuetan, euskeraz
egiten baiño ez zan an entzun, areitariko batek be ez ekian
prantzesez-eta...

Leenengo asteetan, Santi'k egiten eutsen lagun euskota-
rrai edozetan. Beljekarren batek zerbait esaten, eta Tys ande-
reñoak aginduren bat emoten eutsenean, Santi'k "Auxe ta
auxe diño", zirautsen. Astiro-astiro, amabi mutikoak eta bede-
ratzi neskatoak beljikkarrakaz adiskide izaten asi ziran —neska-
toak ariñago—, eta ia guztiak prantzesez be naikoa ondo ikasi
eben, ikastaldietara besteakaz batera joateragiño.

Euskotarren arteko mutiko txikien bik, Eusebio'k eta
Balendin'ek, noizean bein negar egiten eben, eta an ez ebela
egon nai ta euren etxeetara biurto nai ebela esaten eben. Arein
negar-malkoak Santi'ri be biotza ikutzen eutsoen eta lausotu
egiten yakozan begiak.

Goiz baten, euskotarrak *Fleury*'ra etorri ta bosgarren
asteen, Santi'ri zuzendariaren gelara joateko esan eutsoen.
Joan zan, ba, eta antxe egoan don Gregorio. Eta Balendin'en
aita il egin zala esan eutsan don Gregorio'k, eta barri ori muti-
koari zelan emon ez ekiala.

—Ezagutzen dozu zuk, Santi. Lagun egingo daustazu ori
ari esaten?

—Bai —esan eban Santi'k.

Jolasaldian don Gregorio ta Santi jolastokira joan ziran,
zelan-alan Balendin'egaz bat egiteko.

—Pozik zagoz emen, Balendin? —itandu eutsan don Grego-
rio'k.

Balendi'ek ezetz esan eban, etxera joan nai ebala.

—Zelan, ba? —esan eban don Gregorio'k—. Guzti au oso
atsegingarri ta baketsua da, eta emen guztiak maite-maite zai-
tue, ez?

Balendin'ek txistik be ez.

—Zer?, ez dozu ostiko-pelotan jokatzen?

—Oni ta niri ez dauskue izten —esan eban Balendin'ek
Eusebio izentaturik—. Txikiegiak garala diño.

Asarre-antzean egoan Balendin. Don Gregorio'k itaun
geiago egiten jarraitzen eutsan, eta Balendin'ek batzuetan

erantzun eta beste batzuetan ez eutsan erantzuten. Don Grego-
rio gogaikarri egiten asi yakon, antza. Orduan.

—Gero arte, Balendin —esan eutsan don Gregorio'k—. Las-
ter biurto zara etxera; ikusiko dozu. Agur.

Eta aitari jazorikoa esan bagarik joan zan.

—Ez naz onelakoetarako gauza —esan eutsan don Grego-
rio'k Santi'ri—. Zelan esango dautsazu mutiko bati bere aita il
egin dala?

—Ez dakit, ba, ez dakit...

—Biar etorriko naz barriro; biar esango dautsat. Gaur ez
zan une egokia.

—Neuri itzi egidazu, don Gregorio —esan eban Santi'k—.
Neure lo-gelan egiten dau lo, eta beragaz nago egun guztian.
Eta une egokia aurkitu dagidanean...

—Ez —esan eban don Gregorio'k buruaz—. Eskerrik asko,
Santi. Neuk esan bear dautsat. Neure eginbearra da ori, ba-
dakizu...

—Bai —esan eban Santi'k.

Don Gregorio biaramonean barriro etorri zan. Eguerdi-
aurrea zan, eta umeak laster jantokira joan bear izango eben.

—Non egingo dot berba beragaz? —itandu eutsan don Gre-
gorio'k—. Iñok gogaitik egin ez daiskun tokiren baten...

—Geure logelan —esan eban Santi'k—. Ordu onetan ez
dago iñor be.

—Dei egiozu, ba, Balendin'i, eta eroan egizu zuen lo-
gelara. Antxe itxarongo dautsuet.

—Bai, jauna —esan eban Santi'k.

Balendin jolastokian billaturik —Eusebio'gaz egoan,
beti lez—.

—Zatoz nigaz, Balen —esan eutsan—. Don Gregorio'k
zugaz berba egin nai dau.

Balendin, itaunik egin bagarik, Santi'gaz joan zan; eta, lo-
gelan sartzeaz batera, don Gregorio'k eskutik oratu ta auxe
esan eutsan:

—Ba-dakit mutiko adoretua zarana, mutil andia, Balen-
din. Ume txiki bat ba'zintzaz, ez neuskizu esango, alakoai ezin
esan daitekue onelakorik-eta. Baiña zuri bai, ezta?

Balendin'ek ez eban agorik zabaldu, ez eban zirkiñik egin.
Don Gregorio'k esango eutsana igarri egin ebala esan zeite-
kean.

—Entzun, Balendin...

—Zer-edo-zer jazo yako nire aitari? —itandu eban Balendin'ek.

—Bai —esan eban don Gregorio'k—. Begira, seme...

Bat batean Balendin negar-zotinka asi zan. Eta aurpegia eskuetan estaldurik.

—Il egin da, ezta? —esan eban.

Itauna baiño baiezkoa geiago zan. Don Gregorio'k, eskua bekokira eroanik,

—Bai, Balendin —esan eban—. Zure aita gizon adoretzu bat lez il da. Arro egon bear dozu aretzaz.

Balendin'ek negarrari ekin eutsan. Gero, eskuak aurpegi-tik astiro jatsirik, leiورا urreratu zan, isil-isilik. Orduantxe baiño geigo iñoiz be ez eutsan gorrotorik izan Santi'k guduari, Balendin leio-aurrean arela ikustean, zirkiñik eta negarrik egin bagarik, zutik il bai'litzan.

Mutikoa bat-batean bere ogeruntz joan, auspaz etzan eta negarrez asi zan barriro, "Ama, ama, amaaa!" esanez.

Eta ez eban "Aita" esan, "Ama" baiño, bere ondora etorteko dei egiten lez...

Don Gregorio'k begiak bustita eukazan.

—Ez dozu bakarrik itziko, ezta? —esan eutsan Santi'ri.

—Ez —esan eban Santi'k, buruari eragiñik.

Don Gregorio'k alde egin eban buru-makur eta isilik. Santi'k, aldameneko ogean jesarririk, bere esku bata Balendin'en lepoan ipiñi eban. Ordubete geroago, Xabier Agirre'k zurezko azpil baten Santi'ren eta Belendin'en apartaia ekarri eban, eta areitariko batek be ez eban ezer txastatu.

Gabean Santi Balendin'en oge-ondora aldatu zan, lo egitera, orrela Balendin obeto zaintzeko. Balendin loak artu eban, euskotar guztiak, aren oge-ondora urreraturik, euren artean berbetan jardun eban ixil-mixilka, a ez iratzartzeko. Gero, guztiak, isil-isilik, euren ogeetara joan ziran, itun-itun, euren etxeakoak, etxeak eta gudua gogora ekarten ebezala.

—Gabon guztioi —esan eban Manu'k—. Biar arte, Jaungoikoak nai ba'dau.

Lo-gelea isil-isilik geratu zan; kalean ez zan zarata txikienik, ezta geisotegian be. Santi, astiro-astiro, loak artu eban. Gaberdian Balendin'ek, iratzartuta, barriro be "Ama, ama, amaaa!" egin eban deadar. Eta ogean jesarririk, negarrez asi zan. Santi be iratzartu egin zan; baiña ez ekian Balendin'i zer esan, bere itzak utsak eta alperrekoak izango yakozan-eta.

Balen... —esan eutsan.

Balendin'ek, negar-zotinka,

—Ez dot nai nire aita il daiten; ez dot nai, ez dot nai!

—esan eban.

Santi'k besarkatu egin eban eta negarrez asi ziran biak batera.

Balendin'en aitaren eriotzak ituna ta bildur-ikarea sartu ebazan euskotarren lo-gelan. Egun batzuetan etxeko albisten zain egon ziran, guztiak onik egozala eta areitariko iñor be il ez zala jakiteko. Mutiko batek, gabetan, bere buruko-azpian, orritxo au izten eban bere eskuz idatzita: *Santi, lotan ilten ba'naz, neure errian lurperatu naguela. Ez aaztu.*

Egunak aurrera yoiazan. Egunoroko bizikerea alde guztietan beste umeakaz batera egiñarren, euskotarrak geienetan euren artean batzen ziran, alkarri euren gauzak azaltzeko, euren gora-beerak jakiñerazoteko, euren etxeetako idazkiak alkarri irakurteko...

Beste egun batzuetan, barriz, alkartuta egonarren, ez eben jolasean egiten, ezta alkarregaz barbarik be. Kalera edo eurira begira egoten ziran, edo aizeak egiten eban zaratotsa entzuten, baiña guztiak beste kale bat az eta beste euri bat az edo beste aize bat az pentzatzen eben; Barakaldo'n, Bilbo'n, Sukarrieta'n, Sestao'n edo Lekeitio'n ikusi izan eben kaleaz; euren lagunakaz eskolatik urteeran edo mezatara joatean egin eban euriaz; txapelak eta zugatzetako orriak aidean eroanez euren errietan putz egiten eban aizeaz....

Sarritan, mutikoren bat negarrez asten zan, edo geldigeldi ta isil-isilik geratzen zan; eta enparaduak ez eutsoen zer jazoten yakon itauntzen, ba-ekien-eta: axe lako arratsaldeaz pentzatzen eban; areixek lako kale, denda ta etxeakaz, bardiñak eta guztiz ez bardiñak ziranakaz; aldameneko kaletik igaroten ziran lako gizonezko, andrazko ta umeak izanarren, ez zirala bardiñak eta Bruselas'koakaz ikustekorik ezertxo be ez euken gora-beeretan bizi zirala...

Iñoiz amairik ez eben orduak ziran, isillune luzeko orduak; eta orduan, mutikoak iñoiz baiño alkartuago egoten ziran, iñoiz baiño geiago somatzen eben alkarganako bearritzana. Aurpegi itunaz egiten eben barre eta berba bagarik ulertzen eben alkar.

Egunak joan, egunak etorri, guztia bardin zan *Fleury'*ko orma-arte: ikastaldiak; jolasak; Begoña ikusteko, illaren

leenengo domeka guztietako urteerak; liburutegiko irakurteak; jolastokian egoan aretxaren inguruan egiten ebezan batzar eta alkarrizketak —areitz ari *Gernika'ko arbola* eritzen—; bere etxeko idazkiak... beti bardin.

Baiña alako baten, eguastenez, biurrikeri-eguna izan zan.

XI

Biurrikeria goiz asi zan, leenengo orduetan, astiro ta geroago ta geiago. Eguraldi onak egiten asi ziranarren —udabarriko egun alaitsuak—, goiz a illuntsua ta urdiñabarra agertu zan. Txiliña entzunda laster, oinkada-otsak entzun ziran eta norbaitek argia iziotu eban. Tys andereñoaren berbotsa entzungo ebela uste izan eben, “Egun on guztioi” esanez; baiña beste batena zan, abots garratza ta otza eukan Jacquot andereñoarena. “Jagi laster guztiok!”, egin eban deadar, beste berba samurrik esan bagarik. Orrexek be goiz a besteak baiño itunagoa ta garratzagoa egin eban.

Arin-arin jantzi ta garbituta gero, txandan jarri ziran, jantokira joateko. Baiña, gosaltzera joan baiño leen, ogeak atondu bear ebezala esan eutsen Jacquot andereñoak; eta, ori bestetan gosari-ostean egiten ebenarren, mutikoak esana egin eutsoen. Eta ogeak atonduta, barriro txandan jarri ta jantokira jatsi ziran. Egun aretan kafe-esnea ez egoan bestetan baizen beroa. Gosari-ostean, lo-gelara biurtu ziran, txandan. Eskillarretatik igotean, Jacquot'ek André'ri txitximurkada bat egin eutsan; eta, lo-gelara eldu ziranean, Santi, Xabier, Agirre ta Raymond leiora urreratu ziran, berogailluan eskuak berotzera. Baiña lo-gelea zikinkerri utsa eginda egoala esan eban Jacquot andereñoak, eta garbitu egin bear ebela bereala. Areik esana egin eutsoen, gogo txarrez izanda be. Jacquot andereñoak ogeak aztertzen asi zan. “Zu, sartu ondo izarok!” Armarioak be arakatu ebazan: “Au be zikinkeriz beterik dago!”. Guztia egoan txarto arentzat.

Mutikoak lo-gelea atontzen ziarduen artean, bat-batean Jacquot andereñoaren abots zolia entzun eben:

—Zu! —esan eban.

Santi'k begiratu ta Jacquot andereñoak Tomas izentatzen ebala ikusi eban. Eta Tomas dardaraka egoan.

—Ni? —itandu eban Tomas'ek.

Jacquot andereñoak ez eban “Zu, bai” esan; baiña Tomás'en ogera begiratuta.

—Zatoz ona —agindu eban.

Tomas larri-larri urreratuta, Jacquot andereñoak ari matraillako bat emon eutsan. Tomas'ek Santi'ri begiratu eutsan. Santi geldi-geldi geratu zan, Tomas'i ta Jacquot andereñoari begira, eta gero beste mutikoai. Guztiak geldi-geldi egozan, Tomas'i eta zaintzailleari begira.

—Zer da au? —itandu eban Jacquot andereñoak. Jaso ebazan burusiak eta leenengo izarea, eta, eskumako besoa luzaturik, erkiñaz beste izarea izentatu eban.

—Nik ez dakit, nik... —esan eban Tomas'ek.

—Zer? Ez dakizula? —itandu eban Jacquot andereñoak.

Baiña ez eban jo. Burusiak eta leenengo izarea lurrera bota ebazan, beste izarea agirian geratu zeiten.

—Txiz egin dozu ogean —esan eban berbots zoliz.

Tomas negarrez asi zan. “Lotsaz egiten dau negar, geure aurrean esan daualako”, esan eban Santi'k bere kolkorako. Eta une aretan Jacquot andereñoak Tomas'i beste matraillako bat emon eutsan. Mutikoak ez eban zirkiñik ez itzik egiten, eta aren isil-egoteak geiago asarrerazoten eban zaintzaillea. Barriro be matraillakoak eta zartada batzuk emon eutsazan amorru biziz, gorrotoz beterik, eta iraindu egin eban, “Zikin ori, eusko-tar zikin ori!” esanez.

Santi'ri odola bururagiño igo yakon, eta

—Beljekar zikin ori! —esan eban deadarka.

Jacquot andereñoa Santi'gana biurtu zan, begiak gorri-gorri. Eskua jasorik eta ezpanai aginka, eskua jasota geratu zan. Santi zoro bat lez egoan. Eta, Jacquot andereñoari begiraturik.

—Joten ba'nozu... —esan eutsan.

—Joten ba'zaitut, zer, zér?

—Ez egizu ori egin —esan eban Santi'k—. Ez egidazu eskurik ezarri.

Jacquot andereñoak besoa jatsi ta barre egin eban ago-pean. Santi, burua makurturik eta une baten begiak itxirik, isilik geratu zan.

Jacquot andereñoak, ume guztiai begirakune garratz bat eginda.

—Zer egiten dozue or, arrituta lez niri begira? Atondu ondo lo-gelea —esan eutsen.

Gero, barriro Santi'ri begiraturik.

—Neuk konponduko zaitut zu —esan eutsan, asarrekeriz beteriko aurpegiaz.

Guztiak artu eben arnasea ateruntz yoiala ikusi ebenean. Bereala urtengo zala ta aldi baten ez ebela ikusiko ez entzungo uste izan eben; baiña, ate-zubitik.

—Zuzendari jaunari esango dautsat emen jazo dana —esan eban Jacquot andereñoak—. Ez da ain pozik geratuko euskotar batek ogean txiz egin eta beste batek nagusi bati "beljkar zikin ori" esan dautsala esan dagiodanean.

Berari odola burura igo yakola somatu eban Santi'k, eta,

—Auxe be esan egiozu —erantzun eban Santi'k—: zeuk iraindu genduzuzala leenen euskotar guztiok, Tomas'i "euskotar zikin ori" esanez. Zu ikustean, mutiko guztiak dardaraka asten dirala be esan egiozu.

Jacquot andereñoa andik urten eta eskillaretan beera joan zan. Santi, barriz, ogean jesarri ta geldi-geldi geratu zan. Biotz-zarrareak zearo makalduta itzi eban. Bildur eta suminaaste antzekoa igoten yakon iztarritik.

—Ori neskea! Jo egingo zenduzala uste izan dot —esan eutsan Xabier Agirre'k, eskua aren sorbaldan ezarririk.

Lo-gela guztia isilik geratu zan.

—Ez dakit ori zelan egin aal izan dodan —esan eban Tomas'ek lotsatuta eta erdi-barrezka—. Ume batek lez ogean txiz egitea! Urteetan ez neban egiten, eta orain, orain...

Santi'k eta beste lagunak ez eben ezer esan, Tomas'ek *Fleury'n* ogea bein baiño geiagotan bustiten ebala ba-ekien-eta. Osagilleagana joateko be esan eutsan bein Santi'k, baita ez egiala arenbeste ur edan be ogera joan aurretik.

—Esango ete-dautso zuzendariari? —itandu eban Manu'k.

—Bai, bearbada —esan eban Santi'k.

Santi'k, eskuturreko erlojura begiratuta.

—Ikastordua da laster —esan eban.

Tomas'ek, komunera yoiala esanda, alde egin eban.

Orduan, Tys andereñoa etorri zan; eta, iñori begiratu bagarik.

—Polito deritzazue emen jazo danari? —esan eban.

—Ez —esan eban Manu'k eta André'k, biak batera.

—Zer diñozu zuk, Santi? —itandu eban Tys andereñoak.

—Tomas'ek ogean txiz egin daualako, Jacquot andere-

ñoak jo egin dau Tomas, eta oni "euskotar zikin ori" esan dautso. Nik "beljkar zikin ori" esan dautsat ari.

—Eta zure jokabide orri ondo deritzazu?

—Ez, andereño. Baiña Jacquot andereñoaren jokaerea be ez da ona izan. Ez da bidezko euskotarrak iraintzea.

Tys andereñoak eta Santi'k alkarri begiratu eutsoen. Mutiko guztiak arein inguruan batu ziran. Txiliña entzun zan orduan, eta bat-batean neskatoen zurrumuru ta oinkadak, euren lo-gelatik urteten ikasgelara joateko.

—Zer jazoten yatzue? —itandu eban Tys andereñoak—. Ez dozue entzun ikastaldira joateko ordua dana?

—Bai, andereño —esan eban Santi'k.

Santi, Xabier eta beste guztiak, lo-gelatik urten eta eskillaretan beera, euren ikasgeletara joan ziran.

Jolas-ordua eldu zanean, Tys eta Jacquot andereñoak jolastokian egozan. Santi Jacquot andereñoaren ondotik igaro zan eta ez zan ezer jazo. Ikasgelara biurtzean, Tys andereñoak auxe esan eutsan:

—Aurrerantzean zure jokabidea ona ba'da, Jacquot andereñoak ez dautso zuzendariari gaur jazo dana jakiñerazoko. Tomas'ena be ez dautso esango, baiña Tomas'ek zuzendu egin bear dau bere burua. Ulertu dozu?

—Bai, andereño —esan eban Santi'k.

—Zoaz eta Tomas'i be esan egiozu ori, nasai geratu daiten —esan eutsan Tys andereñoak, irribarre samurra egiñik.

"Eskerrik asko" esan nai izango eutsan Santi'k, baita "Oso ona zara zu" eta "Guztiok oso maite zaitugu" be; baiña ori esan bearrean.

—Nongoa zara zu, andereño? —itandu eutsan.

—Zuk baiño urte gutxiago nebazanetik *Fleury'n* nago —erantzun eban arek—; baiña Ninde-le-Tremoloo'n jaio naz. Lovaina-aurrean dagoan erri txiki bat da, baiña guztiz ospatsua. Angoxea zan Aita Damian, ba-dakizu?

—Nor? —itandu eban Santi'k.

—Aita Damian, legenardunen misiolaria —erantzun eutsan Tys andereñoak—. Baiña zoaz orain, ikastaldira berandu eldu ez zaitez.

Jantokira joan ziranean, antxe egoan Jacquot andereñoa be, eta bera zan, gaiñera, egun aretan edontzixora tanta gorriak botaten ebazana. Jantokitik urtetean, beljkar neskato bat eta Edurne eztabaidan asi ziran. Santi'k ez eutsen jaramo-

nik egin eta aurrera egin eban Xabier'egaz eta bere lagunakaz. Beljekar neskatoak, deadarka, Edurne'k eroian jerseya Edurne'rena ez zala iñoan, berea baiño. "Ume oneik...", esan eban Santi'k berekautan. Eta oduantxe entzun eutsan beljekar neskatoari Edurne'ri esaten, guztien aurrean eta erime:

—Lapurra zara. Euskotarrak lapurrak zaree.

Ori entzutean, Santi asarre-bitsetan jarri zan, eta, txarre-na, antxe egoala Jacquot andereñoa. Onek entzun izan eban salakuntza, eta irribarre egiten eban. Santi'k begirakune bat egin eutsan eta andereñoak bereaz erantzun; gorrotoa ta biotz gaiztoko poza egoan neska aren begietan.

Santi'k, Edurne'gana urreraturik.

—Norena da jersey ori, Edurne? —itandu eutsan—. Neska-to orri ezer esan bagarik artu dautsazu, ala? Esaidazu egia: berea da?

Edurne'k ezetz esan eutsan, Bilbo'tik ekarri izan ebala eta Bidebarrieta kaleko denda baten erosi izan eutsala bere amak.

Edurne'k ori prantzesez esan eutsan eta beljekar neskatoak entzun eta,

—Isilik zagoz, guzurti ori —esan eutsan—. Zure erritik lau mantar zaarregaz etorri zara. Lapurra zara.

Santi'k iruntsi egin eban txistua, Jacquot andereñoa begira eukala.

—Edurne —itandu eban barriro be—, benetan gero jersey ori zeurea dana? Iñok ez dautsu asarrerik egingo, eta ez da ezer jazoko. Esaidazu egia.

—Neurea da, neurea da —esan eban arek—. Neure amak erosi eustan Bilbo'n.

—Ez egiozu jaramonik egin —esan eutsan Santi'k, eta neskatoari eskutik oratu eutsan—. Geugaz etorri zaitez.

Baiña antxe egoan Jacquot andereñoa; eta, Edurne'gana urreraturik.

—Biurtu egiozu jersey ori bere jabeari —agindu eutsan.

Santi'k, bere barruko sumiña ezirik,

—Ez egin jaramonik —esan eban euskeraz—. Zatoz nigaz, Edurne.

Jacquot andereñoak Edurne'ri jerseya kendu ta beljekar neskatoari emon eutsan. Santi mutu, geldi-geldi geratu zan, Edurne'ren negarra entzunik; eta

—Goazan —esan eban.

Euskotar neskato-mutiko guztiak, Santi'ren aurpegi asa-

rrea ikustean, aregaz joan ziran. *Gernika'ko arbola'ren* inguruan berbetan geratu ziran, goiz aretan jazo zanz esamesaka: leenen, lo-gelakoa ta Jacquot andereñoaren iraiñak; orain, jerseyarena ta guztiai "lapurrak" esatea; eta azkenez, Edurne'ri beronen jerseya kendu ta beljekar neskatoari emotea.

—Zerbait egin bear dogu —esan eban Santi'k—. Ez dago ondo gogoak emoten dautsen guztietan gu iraintzea.

—Eta zer egingo dogu? —itandu eban Xabier'ek—. Ezin ezer egin daikegu.

—Bai, zerbait egin daikegu... joan egin gaitekez, alde egin emendik —esan eban Santi'k.

Eta Santi ta amabi euskotar mutikoak eta bederatzi neskatoak, jolastokian zear igarorik, etxean sartu ziran. Mutikoak euren lo-gelara joan ziran eta neskatoak eurenera. Guztiak ekien egitekoa: maletak egin aalbait lasterren, eta joan. Baiña maletak etxebeean egozan. Jatsi ziran ara Santi, Xabier, Manu ta Yosu Kareaga, eta atea itxita egoala ikusi eben.

—Ori ez da ezer —erabagi eban Santi'k—. Aldean daukagunaz urtengo gara.

—Baiña nik ba-daukadaz gauza batzuk eta... —esan eban Manu'k.

—Ondo da —erantzun eban Santi'k—. Bere gauzarik eroan nai dagianak, artu ta edozelan lotu dagizala. Goazan aalbait lasterren.

Neskatoak alde batetik bestera ebizan euren lo-gelan, euren gauzatxoak gertatzen ebezala. Baiña Manu'k, an sarturik —neskatoen lo-gelan sartzea debekatuta egoan mutikoen-tzat—, aal ebena batzeko ta beebarrura jatsiteko esan eutsen, berealaxe urten bear ebela-ta.

Neskatoen zain egozala, André agertu zan.

—Agur, André —esan eutsan Santi'k—. Ba-goaz.

—Nik ez dot iñor be —esan eban André'k—. Zeuekaz joan nai dot.

Aren berbotsa eskari garbia zan.

—Ori ezin izan daiteke —erantzun eutsan Santi'k—. Zu ez zara guretarikoa.

Euskotarra ez zala esan nai eutsan Santi'k, a euskotarren arazo bat zala eta, beraz, ezin joan zeitekeala eurakaz; baiña André'k ori ez ebala ulertzen zirudian eta negarrez asi zan.

—Zegaitik ez dautsagu geugaz etorten itziko? —esan eban Manu'k.

André'k, burua jasorik, Santi'ren begiak billatu ebazan, aregandik baiezkoa jaristeko.

—Ez —erantzun eban Santi'k—. Ez da euskotarra.

Euskotar neskato-mutiko guztiak gertu egon ziranean, beebarrura jatsi ziran. André'ren negarrak entzuten ziran artean, beste umeak jolasean ziarduen; eta, talde a ikustean, begira-begira jarri yakezan. Jacquot andereñoa be an egoan umeakaz eta orretzaz konturatu zanean, deadarka asi zan: "Tys, Tys!". Beingo baten etorri zan Tys andereñoa, eta

—Zer da ori, Santi? —itandu eutsan.

—Ba-goaz —erantzun eban Santi'k.

Tys andereñoa isil-isilik eta zer egin ez ekiala geratu zan segundu batzuetan.

—Biurtu zaitze zuen lo-geletara —esan eban gero—. Gero egingo dogu berba orretzaz.

Ori ez eban zemai lez esan, mesede bat eskaturik lez baiño. Santi'k, buruari eragiñik.

—Ez, andereño —esan eban—. Gu ba-goaz.

Ume asko batu ziran zer jazo zan jakitera eta euskotarrak bat-batean zegaitik yoiazan ikustera. Fleury zuzendaria be, an jazoten zana ikustean, beingo baten jatsi zan. Jacquot andereñoaren begiai bildurra ta gorrotoa erien.

—Zer jazoten da emen? Zer da au? —itandu eban Fleury jaunak.

Itauna Tys ta Jacquot andereñoai egin izan eutsen; baiña Santi'k, ikararik egin bagarik.

—Ba-goaz, Fleury jauna —esan eban.

—Ba-zoazela? Baiña... baiña au zer dala uste dozue?

Eta barriro Tys eta Jacquot andereñoai begiratuz.

—Jakin daiteke, baiña, emen zer jazoten dan? —itandu eban—. Ez dautazue esango?

Santi orain nasai egoan; eta, berbots baretsuaz.

—Jacquot andereñoak euskotarroi zikiñak eta lapurrak garala esan dausku —esan eban Santi'k.

—Tira, biurtu zaitze zuen lo-geletara —esan eban Fleury jaunak—. Laster garbituko dogu auzi au.

Mutiko ta neskato batzuk banandu egin ziran taldeagandik, zuzendariaren aginduari esana egiteko lez. Baiña Santi'k, Manu'k, Xabier'ek, Tomas'ek eta Aitor Kareaga'k ez eben zirkiñik be egin. Guztiak Santi'ri begiratzen eutsoen.

—Biurtu zaitze zuen lo-geletara —esan eban barriro be

Fleury jaunak—. Ez dot atsegin gauza bera birritan esaterik.

—Gu ba-goaz —esan eban Santi'k.

Geldi-geldi iraun eban toki berean, baita enparaduak be. Jokabide a *Fleury*'ko nagusien aurka jagitea lez zan, matxiña-da txiki bat. Fleury jaunak aurpegi asarrea eukala ikusi eban Santi'k, baiña bildurrez be ba-egoala somatu eban. Izan be, ez zan onezko izango, ez begi onez artuko, *Fleury*'n euskotarra zikiñak eta lapurrak esan izan yakela jakitea. Ori argi egoan, eta Santi'k ba-ekian ondo.

—Zer nai dozue? —itandu eban azkenez Fleury jaunak.

Irabazi egin izan ebela ulertu eban ondo Santi'k; eta

—Joatea —erantzun eban Santi'k, urteerako ateruntz oinkada bat emonez—. Agur, Fleury jauna. Agur, Tys andereño —esan eban gaiñera.

Jacquot andereñoari be begiratu eutsan, baiña ez eutsan ezer be esan. Orduan, Fleury jaunak arei aurrea artu eta ate-aurrean jarri yaken. Santi'k, ostera, guztia erabagita egoala ekian, irabazi egin ebela, *Fleury*'n jarraituko ebela eta arrezkerro iñok be ez ebazala iñoiz be irainduko.

—Ziur nago Jacquot andereñoak ez eutsuena iraiñik egin nai. Ez al-da egia, Jacquot andereño? —esan eban Fleury jaunak.

—Ez, ez zan nire asmoa orrei iraiñik egitea, zuzendari jauna —esan eban Jacquot andereñoak—. Asarre ta artega nenbilen eta...

Eta Santi'ri ta Edurne'ri begiraturik.

—Damu dot —esan eban.

Eta berbots eztitsuz eta aurpegi samurrez.

—Parkatzen daustazue, ezta? —esan eutsen—. Aaztu gaitzan jazoriko guztiaz, e? Ez daustazu parkatu nai, Edurne?

Edurne negar baten asi zan; eta Jacquot andereñoak, Edurne besarkaturik, mosu bat emon eutsan. Santi'k, jazoriko guztiari azkena emonaz.

—Goazan barriro lo-gelara —esan eban.

Eta guztiak lo-gelaruntz jo eben.

—Pozten naz zuen erabagi orreaz —esan eban Fleury zuzendariak—. Guztia garbituko da; eroapena euki bear da. Ba-dakit alkarregaz bizi izatea batzuetan gaitz izaten dana, baiña parkatzen jakin bear da eta bakotxak bere aldetik zer-bait be eskiñi bear dau. Auzi au aaztuta geratzen da eta bako-

txak bere aldetik zerbait be eskiñi bear dau. Auzi au aaztuta geratzen da, eta jolasean orain...

Gabeen Tys andereñoak, argia atzamatu ebanean, "Gabon" esan eban, eta lo-gelea isil-isilik geratu zan.

Bat-batean, André'k, beste gabetan oi ebanez, ez ebala negarrik egiten konturatu zan Santi.

—André, André —egin eutsan dei Santi'k—, onik zagoz?

—André'k ez eban erantzun. Santi'k barriro be itaun bera egin eutsan, ari begiratzeko ogean jesarten zala.

—Ez dozu esan, ba, ez nazala zuetarikoa eta ezin joan neintekeala zuekaz? Ez dot nai, ba, zugaz berba egiterik. Itzi nagizu baketan!

André'ren negarra entzun zan isillean. Eta Santi loak artu eban bereala.

XII

Biaramon-goizean, André'gaz bakeak egiteko aalegiñak egin ebazanarren, André'k ukatu egin eutsen itza euskotarra. Santi'k edo beste edozein euskotarrek zerbait esaten edo begiratzen eutsan bakotxean, André'k bira egiten eutsan buruari eta aurpegi illuna jarten eban. Baiña Santi'k ba-ekian eurakaz asarratuta ez egoana; André adiskide bagarik geratu zan, bakarrik, eta orrexek jarten eban itun eta babes bagarik. Santi'k ori beste une batzuetan be somatu eban: mutiko batek be ez eban André'gaz barbarik egiten, iñok be ez eutsan "Jolas egizu gugaz" esaten. Beste mutikoak adiskide egiten ziran bereala alkarregaz eta alkarri gauzak izten eutsoezan eta egun guztian alkarregaz berbetan ziarduen; André'k, barriz, ez eban iñogaz artu-emonik izaten. Gabetan, ogerakoan, aurpegia iza-reaz estalduta, negar egiten eban.

Euskotarrak etorri ziranean, André adiskide egin zan arekaz, batez be Santi'gaz eta Manu'gaz; eta, areik Fleury'tik joateko asmoa artu ebanean, berak be arekaz joan nai eban. Santi'k "Zu ez zara guretarikoa" esan eutsanean, André iñoiz baiño bakarrago geratzen zala konturatu zan.

Santi erruki yakon, eta arek André egoera larri aretatik zelanbait atara egin bear ebala erabagi eban. Aretarako, bazkal-ostean, Santi'k Xabier, Manu, Aitor Kareaga ta Tomas beragaz artuta, bostak *Gernika'ko arbola*-ondoan batu ziran.

—Zerbait egin bear dogu André'ren alde —esan eban Santi'k—. Ba-dakizue zer jazoten dan.

Lau bizkaitarrak baietz esan eben, ba-ekiela. Guztiak ekien André ez zana domeka baten be kanpora urteten, arek bein be ez ebana iñoren ikustaldirik izaten, ez idazkirik artzen.

André'ren gurasoak banandu egin izan ziran, itxuraz; ama Kongo'ra joan izan zan, lan egitera, eta aita Beljika'n geratu zan, Namur'en, baiña beste andrazko bategaz asi ei'zan artu-emonetan. Beraz, iñok be ez eban André'ren ardurarik.

—Poz-pozik etorri izango zan gugaz —esan eban Manu'k.

Manu'k André'ren oge-urrean egiten eban lo, eta bera zan, bearbada, aren adiskiderik andiena.

—Baiña ori ezin izan zeitekean —erantzun eban Xabier Agirre'k—. Ez da euskotarra.

Orixe nai eban entzun Santi'k.

—Zegaitik ez dogu geure zainpean artzen? —esan eban Santi'k.

—Zelan? —itandu eban norbaitek. Eta Santi'k:

—Zegaitik ez dogu euskotar egiten?

—Leenen, don Gregorio'gaz egin bear izango geuke berba, ea berari zer deritzan —esan eban Tomas'ek.

—Ez leuskigu olakorik ulertuko —azaldu eban Santi'k—; au, gai astuna da eta geuk erabagi bear dogu. Nagusiak sartzen ba'dira, guztia galduazoko dabe. Geu bat ba'gatoz, euskotar egingo dogu ta kitu.

Bururapen ori ontzat artu eben Manu'k, Aitor'ek, Tomas'ek eta Xabier'ek; baiña, lauron eritziz, beste euskotarrakaz berba egitea erabagi eben, auzia guztien artean ebazteko.

—Neskatoai be esan bear izango yake, ez? —esan eban Manu'k.

Santi'k ezetz erantzun eban, neskatoak ez ebela orrelakorik ulertzen. Bere etxean politikaz berba egiten ebana bere aita soillik zala esan eban. Amak "amen" esan eta ez eutsala iñoiz be orretan aurka egiten; eta aitak zuria zala ba'iñoan, zuria zala, eta arek baltza zala ba'iñoan, baltza zala. Izan be, politika-gaia gizonen auzia zala, eta euren gaia be,zelanbait, politika-arazoa zala, eta neskatoak ez ebela orretan eskuartu bear.

Manu'k, Xabier'ek, Tomas'ek eta Aitor'ek ontzat artu eben Santi'ren errazoibidea eta beste mutikoen billa joan

ziran. Guztiak, etorrita, aretxaren ondoan jesarri ziran. Santi'k André euskotar egin nai eben ala ez itandu ebanean, guztiak eskua jaso eben, baietza emoteko.

Santi'k, guztiai banan-banan begiratuta.

—Ontzat artzen da erabagia —esan eban.

—Dei egingo dautsat André'ri —itandu eban Manu'k.

Manu artega egoan, barria André'ri esateko gurariz. Guztiak baietz esan eben. Manu joan eta André'gaz biurtu zan. Beljickarra areitz-ondora eldu zanean, eurak egin izan ebena azaldu eutsan Santi'k, eta

—Nai ba' dozu, André, aurrerantzean euskotar zara —esan eutsan.

—Benetan? —itandu eban André'k, eta pozez gaiñezka jarri zala ikusi eben guztiak.

—Bai, nai dot —esan eban.

Guztiak zutik jarri ziran, ari eskua emoteko, eta Santi'k eta Manu'k besarkatu egin eben. André zorionekoa zan. Aurrerantzean bera be zugatz andiaren ondoan jarri aal izango zalata, poz-bitsetan egoan, eta berak be areitz ari *Gernika'ko arbola* esango eutsala, euskotarrak esaten ebenez. Eta ez zala bakarrik egongo eta euskotarrak andik joan zeitezenean, bera be arekaz joango zala. Aurrerantzean ez eutsoen berari "Zu ez zara guretarikoa" esango.

André Euzkadi'ko zein lekutakoa izango zan itandu eban Manu'k, nonbaitekkoa izan bear ebala-ta. Ori ez egoala itandu bearrik be, erantzun eban Santi'k: guztiak Bizkai'koak zirala, eta André be, eurak lez, Bizkai'koa izango zala.

—Ondo da, bai, bizkaitarra: baiña nongoa? —itandu eban-barriro Manu'k—. Tokiren batekoa izan bear, ez?

Aitor Kareaga'k bera lez André be Barakaldo'koa izan zeitela nai eban; Josetxu'k Sukarrieta'koa esan eban; Xabier Agirre'k eta beste batzuek Bilbo'koa; eta beste batzuek Santurtze'koa, Lekeitio'koa, Bidebieta'koa ta Sestao'koa.

—Ori zeuk erabagi bear dozu, André —esan eban Santi'k.

Nongoa zan itandu eutsan André'k Manu'ri, eta Manu'k bera Barakaldo'koa zala esan eban; orduan, Santi'ri itandu eutsan, eta bera Ugarte'n jaio izan zala esan eban, baiña gero Barakaldo'ra joan izan zirala bizi izatera, antxe artu ebala guduak eta antxe egozala orain bere gurasoak.

—Neu be Barakaldo'koa izan nai dot —esan eban André'k. Ikastokira joateko ordua eldu zan ezkerro, erabagitekkoa

bertan-beera itzi eben. Jolastaldian barriro batu ziran, André'ri ze izen ezarri bear ete-eutsoen erabagiteko, euren belarrieta-rako *André* ez etorrela egoki-ta.

—*Ander* esango dautsugu? —esan eban Santi'k—. Edozela be, izki bi lekuz aldatzea baiño ez da. André'ri ta beste guztiai atsegin izan yaken izen barri ori, eta antxe, *Gernika'ko arbola*'pean, barriro "bateatu" eben.

Arrezkero, Ander barriaren izakerea aldatu egin zan: adikorragoa ta biotz-zabalagoa zan guztientzat; Euskotasuna benetan eta arro-arro artu eban, eta berba ori ta bestea euskeraz zelan esaten zan itauntzen eban takean-takean. Itz bako-txa orri baten idatzi ta buruz ikasten eban, eta aste batzuetara ba-ekian esanaldi pilloa esaten be.

Egun areitan Santi'k, euskotarrak abots guztiz ona ebela ta arein abesbatzak eta abestiak Europa'n entzutetsuak zirala irakurri eban liburu baten. Orduan, urrengo jolastaldian, Santi'k euskotar guztiak, neskato ta mutiko, batu ebazan eta liburuan irakurri ebana azaldu eutsen. Eta,

—Zegaitik egin ez abestalde bat euskotar guztien artean? —itandu eban Santi'k.

Gogo beroz artu eben guztiak bururapen ori. Arrezkero, *Gernika'ko arbola*'ren inguruan batzen ziran, eta euskal-abestiak kantatzen jarduten eben ekin eta ekin. Arela abestean, zerbait etxean egotea lez zala pentzatzen eban Santi'k. Baiña, soiñua ondo jakiñarren, sarritan ez etozan guztiak bat izkiaz. Orixe jazoten zan "Antero txaparrotia" abestean. Batzuek onetara esaten eben:

*Antero txaparrotia,
Kaisar'en bibotia;
arexek ei'dauko
preso tximiñoia.*

Eta beste batzuek beste era batera.

Beste abesti batzuetan be antzerakoa jazoten zan. Orduan, Santi'k, Aitor'ek eta Josetxu'k, abesti batzuen izkia idatzi eta papelak guztien artean banatu ebezan, guztiak batera ta zuzen abestu egien. Beste egun baten, neskatoak abots batetara ta mutikoak beste batetara abesteko esan eban norbaitek. Alantxe egin eben, geroago ta obeto. Beljickarrak abestiak entzutera urreratzen yakezan sarritan, eta txalo errimeak jotzen eutseezan.

Liburutegia, *Gernika'ko arbola* eta abesbatza *Fleury'ko* euskotar ume guztien alkartze-lokarri andiak izan ziran. Alkarraren artean bat-bat eginda lez egozan; etxekoen barriak azaltzen ebezan; alkarri *tebeoak* izten eutsoezan; abestiak obeto ikasteko, talde txikika banantzen ziran, gero areizpean guztiak batera abesteko...

Domeka baten, Begoña ta Bogaerts jauna Santi ikustera etorri ziran; gozo batzuk eta liburu bat ekarri eutsoezan. Joaterakoan, Bogaerts jaunak ea ezer bear eban itandu eutsan Santi'ri. Ezer be ez ebala bear erantzuten eutsan bestetan Santi'k; baiña egun aretan gauza bat gura izango ebala autortu eutsan.

—Ederto —esan eutsan gizonak—. Zer da gauza ori, Santi?

—Ba... *Bilbo'ko Athletic'* en kamiseta bat nai izango neuke.

Bogaerts jaunak ez ekian *Bilbo'ko Athletic'* zer zan. Bilbo'ko futbol-ekipoa zala azaldu eutsan Santi'k; Euzkadi'ko ta España'ko ekiporik onena zala, eta aren ostikolariai "San Mames'ko leoiak" esaten eutseela.

—Ondo da —erantzun eutsan Bogaerts jaunak—. Biar bertan erosiko dautsut kamiseta ori, eta bereala ekarteko esango dautset. Zeintzuk dira koloreak?

—Gorria ta zuria —esan eban Santi'k—; gorria ta zuria goitik beerako marra andiz.

Astearte-goizean, *Fleury'* ra zorro bat ekarri eben Santi'rentzat. Lo-gelara joanda, zabaldu egin eban zorroa: Bilbo'ko Athletic'en kamisetea zan. Arratsaldean, ikastaldi-ostean, ostiko-pelotan jokatzeko gertatu ziran. Orretarako, beti lez, Raymond eta Santi ekipoak aukeratzen asi ziran. Ori onelaxe egiten eben: oinkada batzuk atzeraka egiñik, aurrerantz egiten eben, oin bata bestearen aurrean ezarririk; bere oiñaz bestearena leenen zapaltzen ebana, axe asten zan lagunak aukeratzen.

Santi asi zan leenen; onek Manu aukeratu eban; Raymond'ek, barriz, Josetxu; eta orrela, txandaka ta banan-banan, ekipo biak osotu ebezan. Santi'renean sei euskotar eta bost beljekar ziran eta Raymond'enean lau euskotar —Josetxu, Eujenio, Ander eta Xabier— eta zazpi beljekar.

Jokatzen asi bear ebenean, une baten itxaroteko esan eban Santi'k. Beingo baten lo-gelara igo eta *Athletic'* en kamisetea jantzita jatsi zan. Leenengotan, ez Josetxu'k, ez Xabier'ek, ez Ander'ek, ez Eujenio'k ez eben ezer esan; eta jokatu egin

eben. Miñutu batzuk geroago, Santi'k kamisetea kendu ta Manu'ri emon eutsan.

—Erabilli egizu une baten, nai ba' dozu.

Manu'k jantzi egin eban, eta miñutu batzuk barru erantzi ta Aitor'i itzi eutsan. Orduan.

—Gelditu, gelditu —esan eban Xabier'ek deadarka.

Gelditu ziran, ba, eta

—Nik ez dot nai Bilbo'ko Athletic'en aurka jokatu —azaldu eutsen Xabier'ek.

—Neuk be ez dot jokatu nai beljekarrek Athletic'en aurka —esan eban Eujenio'k be.

Josetxu'k eta Ander'ek be orixe esan eben. Laurak Santi'ren ekipoan jokatu nai eben, eurak be kamiseta gorria ta zuria jantzi nai eben-eta. Kapitan biak alkarregaz izketan asi ziran:

—Nire ekipoko lau beljekarrek lau euskotar aldatuko dautsudaz. Bai? —esan eutsan Santi'k.

—Zelan lau euskotar? Iru soillik dagoz —erantzun eutsan Raymond'ek.

—Lau —esan eban barrero Santi'k—. Ander be euskotarra da.

—Ander euskotarra dala? —itandu eban Raymond'ek.

—Jakiña, ba —esan eban Santi'k—. Zer zara zu, Ander? —itandu eutsan Ander'i.

—Ni, euskotarra. Zuek *Athletic'* oak ba'zaree, neu be bai, ezta?

—Guztien artean egin dogu euskotar —esan eban Santi'k

—Ondo da —esan eban Raymond'ek—. Ander euskotarra da.

Eta Ander'ek arnasea artu eban.

Raymond'ek, besterik ezean, ontzat artu eban aldakuntza.

—Eurok aldatu nai ba'dabe...

Areik baietz esan eben, eta Santi'ren ekipora aldatu ziran. *Bilbo'ko Athletic'* ekipoan orain amar euskotar eta Jacques ize-neko beljekar bat ziran. Santi'k, Jacques'i begiraturik.

—Ekipoko guztiak euskotarrak izan bear gendukela uste dot nik —esan eban. Eta olantxe azaldu eutsan Raymond'i:

—Bilbo'ko ekipoan ez dau iñoiz be arrotzik jokatzen; guztiak dira euskotarrak.

—Ondo da... —esan eban Raymond'ek.

Santi'k amaikagarren euskotarra sartu eban ekipoan;

eurak baiño gazteagotxoa zan izan, baiña bizkorra. Guztiak jantzi eben txandaka ta banan-banan Bilbo'ko Athletic'en kamisetea eta benetako leoiak lez jokatu eben, batak bestea adoretuz. Eta bost eta bi irabazi eben.

Ostiko-jokoa amaitu ebenean, aretxaren azpian batu ziran euskotar guztiak, eta, abots bitara, "Boga, boga" abestu eben, baita "Goiko mendian" be.

Arrezkero, ostiko-pelotan jokatzan eben bakotxean, euskotarrak areizpean batzen ziran eta euskal-abestiak kantatzen ebezan guztiak batera. Baiña kezka eta arduratan egozan: aste batzuk zirala ez eban inok be artu izan etxeko idazkirik eta ez ekien Bilbo'n zer jazoten zan.

Laster udako oporrak asi ziran. Ikastaroa amaituta, beljekar asko euren etxeetara joan ziran aste batzuetarako. *Fleury* erdi-utsik geratu zan; jantokian utsune andiak ikusten ziran, eta oge asko ume bagarik.

Goiz baten, euskotar guztiak, beljekar batzuk, *Fleury* andra-gizonak, onein Marie alabea, *Jacquot* eta *Tys* andereñoak, sukaldaria ta geiso-zaintzaillea, autobus andi baten, Bruselas'tik urten eta *Gouy-lez-Piétons* izeneko errira joan ziran, an udea egiteko.

XIII

Gouy-lez-Piétons ez zan erri polita, ezta itxusia be. Etxebizitza biko etxeak ziran, guztiak bardiñak. Kale nagusian, enparaduak baiño etxe andiago bat egoan; eta antxe egiten ebezan *Fleury*'ko umeak udako euren oporrak. *Fleury*-etxeaz jazoten zana jazoten zan etxe oneaz be: kanpokaldetik zirudiana baiño askozaz zabalagoa zala barrutik. Beekaldean eskarata, jantokia ta egontoki andi bat egozan; leenengo etxe-oiñean neskatoen, *Fleury* ta onen emaztearen eta andereñoen lo-gelak egozan; bigarreanean, mutikoen lo-gelak; eta irugarrena etxe-sabaia zan, sagar, igali ta edozetariko ontziz beterik. Sagar-usaiña etxe guztian zabaltzen zan.

Etxe-ostean ortua egoan, bere sagar, okaran eta madari-zugatzez.

Etxe aretara elduta ordu bete geroago, atea jo eben. Ume guztiak egontokian egozan arteetan. Eta andra-gizon bi ta mutiko bi sartu ziran: areik ikusi ta bereala jakin eikean edonok andra-gizonak beljekarrek zirana eta mutiko biak euskotarrak.

Santi'k eta Xabier Agirre'k berealaxe ezagutu eben bietariko mutiko nagusia: Aresti zan, Oleron'go ta ondar-metetako laguna. Santi'k, aregana urreraturik eta eskua luzaturik.

—Kaixo, Aresti. Zelan zagoz? —esan eutsan.

—Kaixo, Santi —esan eban arek.

Aren ondoan egoan andreak euskeraz nasai-nasai egiteko esan eutsen, Aresti, lotsatuta lez, geldi-geldi ta isilik egoan-eta.

Santi'k, ari besotik oraturik, ortuko ateragiño eroan eban, eta.

—Onak dirala dirudie —esan eban.

—Bai. —erantzun eutsan Aresti'k.

"Ni *Dufour* andra-gizonen etxean nengoanez dago au", esan eban Santi'k berekautan.

—Pozten naz zu ikusteaz, mutil —esan eutsan Santi'k—. Gogoan al-do zu Xabier Agirre?

—Jakiña, ba —esan eban Aresti'k; eta agurtu egin eban. Eta Santi'k:

—Emen orain ogei ta bi euskotar gagoz guztiz.

Fleury'n egiten ebena azaldu eutsan: liburutegi bat ebela, *Gernika*'ko *arbola*-azpian batzen zirala, ostiko-pelotan euskotarrak beljekarren aurka jokatzan ebela, *Bilbo*'ko *Athletic*'en kamisetea jazten ebela eta euskal-abesbatza eratu ebela, euskotar guztiak batera euskal-abestiak kantatzeko.

—Eta zu? —itandu eutsan Santi'k.

Bera egoan etxeakoak oso onak zirala erantzun eutsan Aresti'k. Qndo erabilten ebela, maite-maite ebela, ez ebala eze-ren bearrik eta inoiz be ez ebela jotzen.

Alan be, Aresti gogait eginda egoan. Bizkaitar lagunak nako utsunea eban, alkarren arteko artu-emon eta jolas egin eziñarena.

—Erri onetako mutikoak ez dira gu lakoak —esan utsan Aresti'k—. Etxera doaz bereala eta kalean be ozta-ozta egiten dabe jolasean. Etxetik urteten diranean, bizikeletan joaten dira, baiña bakarrik, taldeka ez.

—Eta ori? —itandu eban Santi'k.

Beste euskotar mutikoa izentatu eban; bederatziren bat urtekoa zan eta geldi-geldi egoan andra-gizon bien ondoan.

—Bilbo'koa da, eta ni baiño geroago etorri zan. Agustin dau izena —erantzun eban Aresti'k.

Egun oro, erreka-ondora edo landan jolas egitera urteten ziranean, Aresti'k eta Agustin'ek atean itxaroten eutseen; baiña

Agustin ezinbestean-edo yoiala zirudian. Aresti'ri, ostera, euskotarren artean egoteaz zorioneko zala igarten yakon.

Aresti'k bizikeleta polit bat be ba-eukan, tirrin, argi ta guzti —Dufour andra-gizonak Santi'ri ekarri eutsoena lakoa zala zirudian—, eta euskotar guztiai izten eutsen bere bizikeletan ibiltan. Agustin'ek, ostera, ez eutsan berea iñori be izten. Arratsalde baten, Manu'k bizikeletea artu ebanean.

—Itzi egizu bizikeleta ori. Neurea da —esan eutsan dea-darka Agustin'ek.

Agustin ez yakon gogoko egin *Fleury*'ko euskotar bati be: ozta-ozta egiten eban berba, beti prantzesez, berba egiñaz mesede egin bai'leuan. Arroputza zan. Agoa zabaltzen eban bakotxean, bera egoan etxean eta Bilbo'koan berak nai eban guztia eukala esaten eban; eta edozer azaltzen ebanean, takean-takean "ulertzen dozu?" esaten eban beti, beste mutikoak tentelak bai'litzaz. Berak be argi ikusten eban ez ebela onartzen; eta arratsalde baten alde egin eban arein artetik bere bizikeletan, eta arrezkero ez zan barriro agertu...

Gouy-lez-Piétons'en aste batzuk eginda, alde egin eban andik. Autobusera joaterakoan, Aresti'k negar-unpuluh heterik begiratu eutsan Santi'ri. Berba egin nai eban eta ez eban aal izan. Geroago, autobusa joateko gertu egoala, Santi'k eskua luzatu eutsan.

—Laster ikusiko dogu alkar, Aresti. Gure errian ikusiko dogu alkar.

—Bai —esan eban Aresti'k—. Euzkadi'n ikusiko dogu alkar.

Aresti negarrez asteko zorian egon zan. Eta Santi'ri zerbait emonik.

—Eutsi. Euskotar guztiontzat —eta alde egin eban, burumakur.

Autobusak, astiro-astiro, abiadea artu eban. Santi'k Aresti'k emon izan eutsan zorrotzkoa zabaldu eta itsulapiko bat zala ikusi eban.

—Begira. Aresti'k emon dausku —esan eutsen bere lagunai.

Santi'k eta Manu'k itsulapikoa guztien aurrean ausi egin eban: 15 franko aurkitu ebazan. Biotzeragiño sartu yakon Aresti'ren egintza maitetsu a; ez yakon aaztu, ez, luzaro.

Bitartean, autobusa aurrera yoian; ta Nivelles eta Waterloo atzean itzirik —Waterloo'n galdu eban Napoleon'ek bere

azken-gudaketa—, bidean aurrera ta aurrera, Bruselas'era eldu ziran.

Gouy-lez-Piétons'eko egunak atsegintsuak egin yakezananren, Santi pozago egoan *Fleury*'ra biurtzeaz: naiago eban emengo jantoki zabala, bere ogea pasilloko ate-ondoan eta, batez be, *Gernika'ko arbola*-ondoan jesartea. Eguraldi onak ebazan eta aste bi ikastaldiak asteko. Santi, Xabier, Manu, Aitor, Ander eta Tomas orduak eta orduak egiten ebazan logelako leiotik kalera begira. Leen, kale a, beti utsik egoten zan: ia iñor be ez zan andik igaroten. Orain, barriz, arratsaldetan, mutil batzuek pelota bataz jokatzen eban, lurrean, tenis antzera, sarerik ez eukiarren be. Santi'k eta lagunak ez ekien joko a zer izan zeitekean.

Arratsalde baten, leioan begira egozala, pelotea *Fleury*'ko orma-gaiñetik barrura jausi zala ikusi eban.

—E, mutikoak —egin eutsen deadar mutil batek—. Nai dozue pelotea billatu ta biurtu?

—Bai, oraintxe —esan eban Santi'k prantzesez.

Guztiak jatsi ta pelota-billa asi ziran. Berealaxe idoro eban Xabier Agirre'k; barriro ormatik gora jaurtiteko egon zan; baiña, obeto pentzatuta, peloteaz jolasean asi ziran. Eta alkarri begiratu ta ezer esan bagarik, pelotea gordetea erabagi eban. Pelotan egitea *Fleury*'n debekatuta egoan; baiña orain, pelota a uste bagarik aurkitzean, tentaldia indartsuegia zan.

—Zer da peloteaz? —itandu eban deadarka gizon batek kaletik.

—Ez dogu idoroten —erantzun eban Santi'k—. Ziur alzagoz ona jausi dana?

Biaramon-goizean, etxeko orman marra zuri bat egiñik, pelotan asi ziran. Zorionez, lurra be lau-laua zan; ormeak ta lurrak pelotaleku naiko egokia egiten eban. Kanean jokatzen eban mutil areik, esku-estalkiakaz emoten eutsoen peloteari; Santi'k eta onen lagunak, barriz, esku-utsik nai eban jokatu, euren errietako pelotariak lez. Iñok be ez ebazan pelotan jokatzen ikusi, eta olantxe ekin eutsoen egun batzuetan, euria egin arte.

Gero, beljekar umeak etorten asi ziran. Jantzi ta soiñeko barriz etozan, bezusa asko ekarrezala. Pelotan geiago ez jokatzea erabagi eban euskotarrak, eta Santi'k pelotea bere armarioan gorde eban.

Egun orretan, ain zuzen be, *Fleury* jaunak Santi'ri dei

egin eta, ikastagiri ona atara ebala-ta, oso pozik egoala adierazo eutsan, eta egun gutxi barru, ikastaro barria asi zeiteanean, ez zala *Fleury*'ko ikastaldietara joango esan eutsan, Ateneora baiño, Klaude ta Helene'gaz, neskatoetarik nagusienakaz.

Santi, ori beretzat goragarri izanarren, kezka eta artega jarri zan, ikaskai barriak beretzat gogorregiak izango zirala-koan. Baiña laster baretu zan: mutikoak —guztiak beljikarrak— naikoa adikorrak ziran eta ikaskizunak ez ziran ain gogor-gogorrrak, gabean be *Fleury*'n ikasten jarraitu bear ebarenren. Orregaitik, Claude, Helene ta Santi ez ziran arrezkero beste mutikoen orduan ogeratuko, ordubete geroago baiño.

Gabetan beeko areto nagusian geratzen ziran ikasten, irurak soillik, eta orrek gora andia emoten eutsen guztien begien aurrean. Ogeratu aurretik, eginbearrak amaituta gero, Tys andereñoak gailleta batzuk eta edontzi bete esne eroaten eutsezan.

Santi poz-pozik joaten zan egunoro Ateneora, burua beti txapelaz estalduta, bere nortasuna agertzeko. Jakintza ta matematika-gaiak ez yakozan ezer be atsegin; istorian, latinean eta literaturan, barriz, nota oso onak lortzen ebazan.

Baiña bere artean eta bere lagunkideen artean alde egoala ikusten eban Santi'k; bera ez zala Ateneoko beste ikasleak lakoa. Ateneotik urteten ziranean, enparaduak une baten kalean berbetan geratzen ziran edo zinera eta ostikopelotan egitera joaten ziran. Santi'k, barriz, andik urten eta jarraian *Fleury*'ra joan bear izaten eban, *Fleury* jaunaren aginduz kalean miñutu bat be ezin zeitekean geratu-ta. Santi beti Claude'gaz eta Helene'gaz biurtzen zan *Fleury*'ra.

Irakasle ta ikasleen artean Santi'k, zelanbait, euskotarren irudi lez artzen eban bere burua; ikasle ona ba'zan, enparadu euskotarra buruz be eritzi ona izango eben, eta ikasle txarra ba'zan, eritzi txarra. Orregaitik, ez aban miñuturik galten bere ikaskizunetan, bere aberkideak leku onean izteko. Gabetan be, ogeratuta gero, linterna baten bidez ikusten eban (linternea Aresti'k emondako diruaz erositakoa zan), enparaduak lo egiten eben artean. Sarritan loak linternea iziotuta artzen eban ezkerro, argi bagarik geratzen zan. Orduan, bere lagunak emoten eutsoen beste pila bat erosteko dirua; eta orrela Santi'k gabetan ikasten eta ikasten jarraitu eban. Loak beran-

du artzen eban ezkerro, goizetan gaitz egiten yakon iratzartzea, batez be neguan.

Baiña egun baten, jazo bear ez zana jazo zan Ateneoan. Istoriako ikastordu baten izan zan. Goiz aretan, irakaslearen ordezkoa —irakaslea geisorik egoan—, ikaskaia azaltzean, euskotarren aurka itz egiten asi zan: gudazaleak zirala, burugogorrrak, arroak, askatasunaren, zuzentasunaren eta kulturaren arerioak, eta abar.

Biotza taupadaka asi yakon Santi'ri eta odola burura igoten, bere etxeokaz eta errialdeaz pentzatzan eban artean. Bere jesarlektutik jagirik.

—Ori guzurra da, jauna —esan eban argi ta garbi.

Ba-ekian, jakiña, iñor be ez dala bikaiña, euskotarrak be euren alde onak eta txarrak ebezala, eta erri batzuk beste batzuk baiño geroago dagozala gai batzuetan. Baiña ez da jokabide zuzena alde onak isildu ta txarrak soillik agertzea. Ba-ekian, Barakaldo'ko bere etxean liburu baten irakurrita, euskotarrak beti bakezaleak izan zirala, euren aurka etozanean soillik egiten ebela gudua, gizaldiz-gizaldi euren askatasunean bizi izan zirala, euskotarren itzak orri-agiriaren indarra ebala... Ez eban eroapenik izan irakasle-laguntzaille arek iñoana isilik iruntsiteko.

Laguntzailleak, Santi'ri begiraturik.

—Guzurtia nazala adierazo nai dozu? —itandu eutsan.

—Adierazo nai ez, jauna —azaldu eban Santi'k—: zu guzurtia zarala diñot.

Ikasle guztiak isil-isilik geratu ziran, agoa zabalik. Laguntzailleak, ateragiño joanda, atea zabaldu eta

—Zatoz nigaz —esan eutsan.

Santi aren atzean joan zan. Ateneoko nagusiaren gelara eron eban; eta, laguntzailleak nagusiagaz berba eginda gero, Santi'ri zigorra ezarri eutsoen: egun bateko zigorra, Ateneora joatea debekatuaz.

Barrero orrelakorik egiten ba'dozu, barriz, bialdu egingo zaitugu betiko —esan eutsan gaiñera laguntzailleak.

Eta Santi'k Ateneotik kanpora urten bear izan eban; goizeko amaikak-edo ziran. Orri bat emon izan eutsoen, zigorra jakiñerazorik, *Fleury* jaunak izenpetu egian. Santi'k ez eban *Fleury*'ra biurtzeko paparrak; "Leku txarrean itzi dodaz guztiak —esan eban berekautan—; baiña eginbearra egin dot". Ez eban damurik.

Eta jarleku baten jesarri zan, eta barriro ibilten asi zan ara-ona, eta bazkalordua eldu zan, baita igaro be. Zer esango eban Fleury jaunak, Santi Claude'gaz eta Helene'gaz etorri ez zala jakitean? Eta barriro be jesarri ta ibilli egin zan ara-ona; denda guztiai ta bere aurretik igaroten ziran tranbia ta autobus guztiai begira geratzen zan; eta gose izan zan, eta arratsaldean edu ta igaro egin zan; baiña Santi ibilli ebillen ara-ona, *Fleury*'ra biurtzeko adorerik ez ebala, zer egin ez ekiala.

Egun aretan ez eutsan iñok dirurik emon izan zerbait erosteko, eta goseak geroago ta geiago egiten eutsan kili-kili. Agorako gozoki batzuk erosteko be ez eukan sakelean txanponik.

Ibilli ta ibilli, zugazti batera eldu zan: Soignes'ko zugaztia zan. Illunabarra zan, eta ia iñor be ez ebillen zugatz-artean. Illuntzean, zugaztia utsik geratu zan, eta Santi'k ibilliari ekin eutsan ara-ona, orbelak zapalduaz. Santi gose, egarri, bildur, logura ta otz zan; noizean bein abesten be asten zan, bere burua adoretzeko ta bideko orriak jasotean bere oiñak egiten eben zarateaz ez ikaratzeko. Amaibagako ibilladia Santi'rena! Ze ordu zanik eta zein lekutan egoanik be ez ekian.

Argi-urratzea zan zugaztitik urten zanean, eta ondoko bidezabalera jo eban. Ain zuzen be, polizia bat yoian bizikeletan; arek Santi ikusi ebanean, onegana urreraturik.

—Galdu egin zara? —itandu eutsan.

Santi'k ez eban erantzun eta poliziak astiro-astiro begiratu eutsan.

—Iges egin dozu etxetik, ala? —esan eutsan poliziak—. Zatoz, igo bizikeletara ta oratu gogor.

Eta kale batzuetatik igarota, polizi-etxe baten aurrean gelditu ziran. Edontzi bete esne emon eta non bizi zan itandu eutsoen. Santi'k *Fleury*'n bizi zala esan eban. Poliziak *Fleury*'ko norbaitegaz telefonoz berba egiñik, "Bai, ementxe dago. Oraintxe eroango dogu", esan eban. Eroan eben, ba, *Fleury*'ra berebillez, eta, atea jo ebanean, Fleury jauna ta Jacquot eta Tys andereñoak ari itxaroten ziarden; gau guztian ez ziran ogeratu izan. Poliziak alde egin eban eta itxi egin eben atea. Santi'k ez ekian orain zer esan. Zigor-agiria atarata, Fleury jaunari emon eutsan. Baiña onek ez eban irakurri.

—Ateneora egin neban dei eta eurak azaldu eusten jazorkoa —esan eban—. Arduratan genduzuzan eta poliziari jakiñerazo geutsan.

Fleury jauna ez egoan, itxuraz, asarre.

—Gose zara? —itandu eutsan.

—Bai, jauna —esan eban Santi'k.

Emon egiozue zerbait jateko, berotu daiten, otzez dago-ta —agindu eban Fleury jaunak. Eta barriro be Santi'ri begiratuta.

—Ogera noa —esan eban—. Gabon, edo obeto esan, onezkerogun on.

—Egun on, jauna —esan eban Santi'k.

Jacquot andereñoa joan egin zan arrausika. Tys andereñoak, barriz, Santi'gaz eskaratzean sarturik, katillu bete kafe-esne emon eutsan, baita ogia guriñaz be. Andereñoa poz-pozik egoan Santi jaten ikusteaz, bere ondoan eukiteaz eta ezer ez yakola jazo izan jakiteaz. Gero, lo-gelaragiño egin eutsan lagun. Mutiko guztiak lo egozan. Santi ogean sartu zanean, Tys andereñoak mosu bat emon eutsan bekokian.

—Ondo lo egin, Santi —esanaz. Eta alde egin eban.

Ordu batzuk geroago, txiliña jotean begiak zabaldu ebazanean, lo-gelako mutiko guztiak bere oge-inguruan egozala ikusi eban Santi'k, baita Tys andereñoa be orduantxe etorrela.

—Egon zaitez oraindiño ogean, Santi —esan eutsan andereñoak—; neuk ekarriko dautsut geroago kafe-esne beroa.

Santi loak artu eban barriro. Eta arratsaldean, lauretan edo, bere gurasoen idazkia jaso eban; etxean guztiak onik egozala zirautsoen, eta laster biurtuko zala Barakaldo'ra.

XIV

Gabonilleko leenengo astartean, Santi'k, eguerdian Ate-neotik etorri ta jantokira joan zanean, ume barri batzuk egozala ikusi eban bereala. Areik ikusiaz batera jakin eban España-aldekoa zirana.

—Gaur goizean etorri dira don Gregorio'gaz —jakiñerazo eutsan Manu'k—. Lau mutiko dira, eta Montserrat izeneko neskatilla bat beronen nebeagaz.

—Barakaldo'korik etorri da? —itandu eban Santi'k.

—Ez —esan eban Manu'k—. Ezta Bilbo'korik be. Katalunia-rrak dira, Barzelona'koak.

—Gero agurtuko dodaz —esan eban Santi'k.

Jantokitik urtetean, lau mutikoak agurtu eta Montserrat'i

“Hola” esan eutsan, ari eskua luzaturik. Montserrat neskato naikoa andia zan, liraiña ta molde onekoa; eta, amalau urte soillik ebazanarren, neskatillea zirudian.

—Hola —erantzun eban Montserrat’ek be.

—Ni Santi naz eta Barakaldo’koa, Bilbo-ondokoa —jakiñe-razo eutsan Santi’k—. Zu kataluniarra zara, ezta?

—Bai —esan eban arek—. Barzelona’koak gara.

“Gara” esatean, bere nebea izentatu eban, Luis izenekoa, zortzi urtekoa. Montserrat’ek irribarre egiten eban, neska nagusiak lez. Santi’k Begoña zaintzen abanez, olantxe zaintzen eban Montserrat’ek bere nebea. Gogoko egin yakon kataluniar neskatillea.

—Nik amaika urte dodaz eta Ateneo deritzan ikastetxean ikasten dot. *Fleury*’ra etorri zan leenengo euskotarra naz.

Montserrat’ek irribarre egin eta begietara begiratu eutsan, baiña lotsa-itxuraz, eta

—Bai, orixe esan dauste —erantzun eutsan.

Santi zerbait artega egoan, zegaitik zan ziur-ziur ez ekiala.

—Abestalde bat daukagu eta euskal-abestiak kantatzen doguz —esan eban—. Noizbait geugaz abestu nai ba’dozu...

—Jakiña, ba —esan eban Montserrat’ek—. Guztiz gogoko yataz euskal-abestiak eta dantzak. Nik sardanak dantzatzen irakatsiko dautsuet.

—Ederto; ondo da —esan eban Santi’k.

Gero, Santi’k liburutegia ta *Gernika’ko arbola* erakutsi eutsazan; baiña berandu egiten yakon, eta

—Orain joan egin bear dot —esan eban—. Urten egin bear dot, Ateneo’ra joateko.

Santi’k, ari eskua luzaturik.

—Gero arte, Montserrat —esan eutsan.

—Gero arte, Santiago —erantzun eutsan arek.

Santi’k Ateneora Claude ta Helene’gaz joanarren, ez eban bide guztian barbarik egin. Montserrat’egaz izan eban alkarriketea ausnartzen joan zan, eta bardin *Fleury*’ra biurtzera-koan be.

Apaltzen eban artean, euria asi zan goian-beean. Jantokitik urten ziranean, ume guztiak beeko areto andira joan ziran eta an Santi’k, Montserrat’i buruaz agur bat egiñaz, goiz aretan etorri ziran mutikoakana joan zan, arekaz berba egitera...

Gau aretan, guztiak lo-geletara igo ziranean eta Santi

Helene ta Claude’gaz geratu zanean, ordu erdian-edo ikasten jardunda gero, liburutegira joan zan. An Gustavo Adolfo Bécquer’en “Rimas” izeneko liburua artu eta txamarrako sakelean gorde eban. Ez eban liburutegiko fitxarik bete, liburu ori irakurten ziarduanik iñok jakin ez egian, bestela lotsaz gorri-gorri jarriko zan-eta. Ogeratu zanean, beste mutiko guztiak lo egozan artean, olerkiak irakurten asi zan, linternearen argipean. Biaramon-goizean liburua bere armarioan gorde eban, bere gauzen artean ondo-ondo sartu ta estaldurik, eta, iñoiz be egiten ez ebanarren, armarioa giltzaz itxi eban.

Illaren 5’garren egunean ez zan Ateneoan ikastaldirik izan, San Nikolas-eguna jai egiten eben-eta; biaramonean be ez *Fleury*’n, eta egun orretan ume guztiak gozokiak eta jostailuak emon eutseezan. Izan be, Santi’k beste euskotarra azaldu eutsenez, an ez zan Urtarrillaren 6’ko Erregen ospatzen, San Nikolas’en eguna baiño.

Egun a, jaieguna izanarren eta gozokiak eta jostailuak artuarren eta ostikopelotan edo jolasean aspertu arte jardunarren, euskotarrentzat ez zan alai-alai izan, jai arek euren etxeak eta erriak gogorazo eutsezan-eta.

Egunari aparteko jai-itxurea emoteko, goizean *Gernika’ko arbola*-inguruan, euskal-abestiai ekin eutseen. Eta abestien artean, urrengo au be abestu eben:

*Gazte-gaztetandikan
erritik kanpora,
estranjeri-aldean
pasa det denbora.
Errialde guztietan
toki onak ba-dira;
baiña biotzak dio:
Zoaz Euskalerrira.*

Arratsaldean, barriz, Montserrat’ek, Santi’ri begiraturik, —Sardanak dantzak egiten ikasi nai dozue? —esan eban—. Oso politak dira; ikusiko dozue.

Santi’k eta guztiak baietz esan eben. Orduan, ume guztiak, eskutik oratuta, biribillean jarri bear zirala azaldu eban Montserrat’ek. Orixen egin eben, areitz andia inguraturik. Santi’k Montserra’t en ondoan egoan ezkeren, eskutik oratu eutsan. Gero, ankai eragiten irakatsi eutsen, berak katalunieraz zer-

bait abesten eban artean. Eres-negurria samurra, erraza ta baretsua zan, baiña Santi'k ez eban orretarako balio (Santi beti izan zan traketsa ingirirako, dantzarako ta bizikeletarako). Guztiak aretxaren inguruan biraka ziarduen artean, soiñuaren negurria eroatea baiño naiago eban Santi'k Becquer'en olerkiak irakurtea.

Dantzea amaitu ebenean, polita zala esan eben guztiak, eta beste egun baten be barrero egin bear ebela. Santi'k be ori-xe berori esan eban, Montserrat'i begiratu bagarik. Taldea banandu zanean, Santi ta onen lagunak orturuntz joan ziran, eta Montserrat eta neskatoak *Gernika'ko arbola*-ondoan geratu ziran, jardunean.

Gabonilla aurrera yoian. Edurra izan zan egun batzuetan. Zoragarria zan areitz andia edurrez beterik ikustea! Gabetan Santi'ren lo-gelako mutiko guztiak leiotik begira geratzen ziran luzaro, kristalen barrukaldetik; inguru guztia edurrez eta mamuz beterik ikusten eben, tximist-argipean; geisotegiko geletan, barriz, Noel-zugatzak agertu ziran, koloreetako argiz apainduta. Orrek be itun jarten ebazan, Gabonak gaiñean ebezan-eta; eurak, barriz, egun areitan Euzkadi'tik iñoiz baiño urrunago egongo ziran... Barrero be Iparragirre'ren "Gazte-gaztetandikan" ekarri eben gogora.


Baiaramonean eta bestean be edurra izan zan. Egun areik oso maitetsuak ziran Barakaldo'n: aizeak eta otzak, zugatzak eta etxeak, kaleak eta laguntaldeak Gabon-usaiña agertzen eben. Santi'ren etxean Gabon-gabeen apaldu bear ebeneko zerrenda bat egiten eben: bisigua ta angulak, almendra-sopa ta Jijona-turroia beintzat utsik egin bagarik. Gabon-egun goizéan, barriz, ez eben zugatzik ipinten, urte askotan etxean eüken Jaiotza baiño. Eta euskal-abesti au be beti abesten eben:

*Gabon-gabeen oituten dogu
guztiok aparti ona;
besigu, lebatz, makailu-saltza,
bakotzak berak aal dauna...*

Baiña *Fleury*'n ez zan orrelako oiturarik; eta Gabon-gaba etorri zan lez joan zan. Edurra jausten eta lo-geletan utsik egozan ogeak zirala zirudien Gabon-gabearen ezaugarririk nabarmenenak, beljekar neskato-mutiko asko jaiak egitera euren etxeetara joan izan ziran-eta. Bogaerts jaunak Gabon-eguna



17. Jacquot andereñoak Edurne'ri jersey kendu ta beljekar neskatoari emon eutsan. Santi mutu, geldi-geldi geratu zan.



18. Euskotar umeak **Gernika'ko arbolapean** batzen ziran, guztiak batera eusko-abestiak kantatzeko.

19. **Beti lez**, Raymond eta Santi ekipoak aukeratzen asi ziran.



20. Eta guztiak jantzi eben txandaka ta banan-banan Bilbo'ko Athletic'en camisetea.



eurakaz egiteko esan eutsan Santi'ri, baiña onek ez eban joan nai izan; euskotar lagunakaz egon nai eban, arein erri-miñetan eta itunaldietan eskuartuaz. Beti oi eben lez baiña zerbait obe-to apaldu eben eta lo-gelara ordubete geroago igo ziran, eta ori-xe izan zan guztia. Baiña Santi ta onen adiskideak ez ziran bereala ogeratu: leiotik begira geratu ziran berandurarte, beste leio batzuk, beste Gabon batzuk eta beste edur batzuk gogora ekarten ebezala. Manu'ek ez eban bere etxeko zorion-agurrik jaso izan —egun bi geroago eldu zan idazkia— eta itun eta goibel egoan. Ander'ek bere armonika jotzen asi zan, baiña ez Manu'k, ez Santi'k, ez Aitor'ek ez eben izan abesteko gogorik. Alan be, Santi'k, oitureari jarraitzeko ta bere lagunai zelanbait adorea emotearren.

—“Ator, ator” abestu bear dugu —esan eutsen bat-batean.

—Ori, ori! —esan eben besteak (Ander isilik geratu zan, abesti ori ez ekian armonikaz jotzen-eta). Eta lo-gela guztian auxe entzun zan:

*Ator, ator, mutil, etxera,
gaztaiña zimelak jatera,
Gabon-gaba ospatuteko
aitaren ta amaren ondoan.
Ikusiko dok aita barreka,
ama be poz-atsegiñez.
Eragiok, mutil,
aurreko danbolin orri;
gaztaiñak erre artean,
txipli, txapla, pun.
Gabon-gaba pozik
igaro daigun.*

Ozta-ozta ta nekez amaitu eben: iztarrian korapilloa egin yaken eta begiai negar-tantak erien...

Balendin bereala ogeratu ta ogean geldi-geldi geratu zan, iratzarririk, begiak zabalik, ezertxo esan bagarik, amaikak arte.

Eldu zan 28'garren eguna, iruzur-eguna. Zuzendariak dei egiten eutsala esan eutsoen Aurelia'ri, eta guzurra zan. “Astoa naz” iñoan orri batek, neskato-mutiko batzuen lepotik dingilizka. Telefonora ta atera joateko be esan eutseen batzui...

Eta edurra jausten jarraitu eban eta Gabonzaar-eguna

eldu zan. Gabon-gabeen lez jazo zan: zerbait obeto apaldu eben eta euren lo-geletara ordubete beranduago joan ziran. Baiña euskotarrak ez ziran ogeratu: amabi-amabietan alkarri Urtebarri zoriontsua opa izatea erabagi eben; bitartean, barriz, lo-gelan ibilli ziran alde batetik bestera, eta Tys andereñoak ez eutsen asarrerik egin, ezta ezertxo esan be, arein asmoa ba-ekian-eta.

—Amabiak bost gutxiago dira —esan eutsan Santi'k Aitor Kareaga'ri; eta au neskatoai esatera joan zan, oneik be amabietan gertu egon zeitezen. Neskato ta mutiko guztiak pasillora urten ziran.

Santi'k, erlojura begira ta besoa gora jasota,

—Oraintxe! —esan eban, besoa jatsiaz. Amabi-amabiak ziran eta urte barri bat.

—Urtebarri zoriontsua guztioi! —esan eban deadarka Santi'k—. Laster biurtu gaitezala etxera!

Neskato bat negarrez asin zan.

Guztiak alkar besarkatu egin eben, anai-arreba lez, "Urtebarri zoriontsua, Xabier'", "Zorionak, Manu'", esanez. Santi'k, Montserrat'egaz bat egin ebanean be,

—Urtebarri zoriontsua, Montserrat —esan eutsan, baiña ez eben alkar besarkatu.

—Zorionak, Santiago —erantzun eutsan Montserrat'ek, eta eskua luzatu eutsan.

Tys andereñoak be, ara elduta, "Urtebarri zoriontsua guztioi" opa izan eban eta guztiak "Urtebarri zoriontsua, andereño" erantzun eutsoen. Gero,

—Orain guztiok ogera —esan eban Tys andereñoak—. Ogera joateko ordua da, ez? Ea, ba, guztiok zeuen lo-geletara orain.

Guztiak euren lo-geletara joan ziran. Baiña mutikoak, ogeratu bearrean, leio-ondoan geratu ziran, edurra jausten ikusten. Geisotegian Noel-zugatzeko koloreetako argiak iziotuta ikusten ziran...

Santi'k, erlojura begiratuta,

—Lo egitera noa —esan eban—. Ea urte onek zer ekarten daukun.

Enparaduak be ogeratu egin ziran eta berealaxe artu ebazan loak.

Biamonean, ondezik egoala esan eban Eusebio'k, eta ogean geratu zan. Tys andereñoak buruko min a laster joango

yakola esan eutsan; baiña eguerdian be bardin egoala ikusirik, osagilleari egin eutsoen dei. Osagilleak ikusi ebanean, geisogelara eroan bear ebela esan eban. Eusebio txikia zan, zortzi urteko mutikoa, baiña lodia ta errimea. Santi'k eta Xabier'ek jazten lagundu ta bien artean besoetan arturik, geisogelara eroan eben.

Gabon-jaiak euren etxeetan egin ebezan umeak *Fleury*'ra biurtu ziran, ta ikastaldiak be barriri asi ziran. Santi be Ate-neora joan zan barriri Claude ta Helene'gaz. Eta Erregen-egunean —Erregen ez zan jai—, Santi arratsaldean biurtu zanean, etxean sartuaz batera, geisogelara joateko esan eutsan Jacquot andereñoak ari.

—Zer jazoten da, ba, andereño? —itandu eutsan Santi'k.

—Zoaz, zeuri itxaroten dagoz —esan eutsan andereñoak samur-samur—. Eusebio oso txarto dago.

Santi geisogelara joan zan. Ez egoan osagillea. Eusebio'ren oge-aurrean Berg geisozaintzaillea aulki baten jesarrita egoan.

—Kaixo, Eusebio, zelan? —agurtu eban Santi'k.

Eusebio'k ez eban erantzun.

—Ez dautsu entzun —esan eban Berg andereñoak.

—Txarto dago?

Geisozaintzailleak buruaz baietz esan eban.

—Baiña onik jarriko da, ez? —itandu eban Santi'k.

Andereñoak begietara begiratu ta ez eutsan erantzun.

—Esaidazu, andereño... Eusebio il-zorian dago?

Orduantxe sartu zan osagillea; eta Eusebio'ren oge-aurrean egoan orria irakurri ta eskua aren bekokian ezarrita gero, buruari eragin eutsan, "Ume gizajoa!" esanez.

Santi zer egin eta zer esan ez ekiala egoan; eta

—Esan dautsazue don Gregorio'ri —itandu eban.

—Bai —erantzun eban osagilleak—. *Fleury* jaunak egin dautso berba telefonoz.

Usillune baten ostean.

—Gaur goizean itz-erotuak esaten ebazan eta guk ulertu ez geutsan zerbait iñoan —esan eban osagilleak.

Miñutuak orduak egiten yakozan Santi'ri. Alako baten, don Gregorio sartu zan. Osagilleari begiratu eutsanean, "Au ba-doa" esan eban onek, buruari eragiñez.

Alako baten, Eusebio zirkin egiten eta zerbait esaten asi zan, ixil-ixilik, inok ez ulertzeko eraz. Gero, bat-batean, euskeraz ta prantzesez berba batzuk esan ebazan errime, zentzunik ez euken berba batzuk. Barreirri zabal eta baketsu bat egin, begiak zabaldu ta bere aurrera begira-begira jarri zan, zerbait guztiz ederra ta baretsua ikusi bai'leuan. Eta alantxe, begiak itxi bagarik, irribarreka, burua eskumaldeña makurtuta gero, geldi-geldi geratu zan. Osagilleak betazalak itxi ta eskuak papar-gaiñean tolestu eutsazan.

—Il egin da —esan eban Santi'k. Eta negarrez asi zan, burua Eusebio'ren beso-gaiñean ezarriaz. Bitartean, edur-matazak jausi ta jausi, *Gernika'ko arbola* zearo estaltzen ebela...

IRUGARREN ZATIA

ETXERA BIURTZEA

*O Euskalerrri, eder-maitea,
ona emen zure semea,
bere lurrari mun egitera
beste gabe etorria;
zuregatikan emango nuke
pozik bai nere bizia;
beti zuretzat, il arteraiño,
gorputz ta arima guztia.*

(Iparragirre'ren "Ara nun diran")

XV

Eusebio'ren gorpua furgoneta baten eroan eben ta ez zan joan umerik illetara, Santi bera be ez.

Urrundu ziran edurrak, baita urtarrilla be, eta etorri ziran zezeilla ta epailla be, aize ta zaparradakaz, ta joan be bai.

Jorrailleko leenengo egunakaz batera eguraldi ona eldu zan; urte aretan udabarria aste bi atzeratuta eldu zan Bruselas'era. *Fleury*'ko berogailluak ez euken orain berotasunik, eta goizeko leenengo orduetan, ogetik jagitean, inoiz baiño otz andiagoa somatzen zan. Baiña eguratsa epelagoa ta atsegingarriagoa zan, ortzia (zerua) batzuetan zuriagoa ta beste batzuetan urdiñagoa, eguzkia ordu geiagotan, beroagoa ta adiskideagoa. Zugatzak eta landarak jantzi barria artzen asi ziran eta

izadia iratzartzen. Neguan urrungo lurraldeetara joan izan ziran txoriak barrero etorri ta txorrotxioka asi ziran, areitz andiaren adarretan euren abiak egiten ebezala.

Fleury'ko neskato-mutikoak be etxe-ostera urteten ziran, jolasean, ariñeketan eta ostikopelotan egitera. Euskotarrak barrero be *Gernika*'ko *arbola*'ren inguruan egiten ebezan euren batzarrak, baita euskal-abestiak abestu be. Eguzkiak baztar guztiak argitzen ebazan egun baten, urrungo au abestu eben poz-pozik:

*Askatasun eguzkia
basotik urten da,
bere argia edonun
arin zabaltzen da.
Itxartu zaiz, euskotarra,
aupa euskaldun guztiak!
Gora, gora antxiñako legeak!*

Arratsalde baten, ostikopelota-ostean, Santi lo-gelara yoian. *Athletic*'en kamisetea kendu ta jantziak aldatu nai ebazan, apal-aurrean, gela andira jatsi ta an aldi baten zerbait ikasteko. Baiña, ain zuzen be, sarrerako ateko arrizko lau mailak igotean, aizeak atea bat-batean itxi eban. Santi ateari bultza egiten asi zan, kisketa jasoten eban artean; baiña berak ori egiten eban artean, beste batek bestekaldetik orixe berori egiten ziarduala konturatu zan. Norbaitek urtetea gura eban, Santi'k sartzea gura eban, eta biak alk'arri traba egiten eutsoen, kisketa erabilten eta ateari bultza egiten.

—Jaso egizu kisketa, ez egiozu beeruntz egin —esan eban deadarka Santi'k, bestekaldetik ondo entzun egioen.

Orduan, Santi'k ateari bultzakada andi bat egin eutsan, bestekaldekoak kisketa goruntz jasoten eban une berean. Santi'ren bultzakadeaz atea zabaldu ta bestekaldekoa lurrean zear jausi zan. Montserrat zan.

—Parkatu, neska —esan eutsan Santi'k.

—Neurea izan da errua —esan eban Montserrat'ek.

—Ez, zuk ez dozu errurik, kisket orrek baiño —azaldu eban Santi'k.

Esku biak emon eutsazan, lurretik jagiten laguntzeko, eta zutik jarri eban. Orduantxe, ain zuzen be, igaro ziran atehondotik Xabier, Manu, Ander eta Aitor Kareaga, eta ikusi egin

ebezan Santi ta Montserrat eskutik oratuta egozan unean. Begira geratu yakezan, zerbait arrituta lez, eta Xabier'ek ukondokada bat emon eutsan Manu'ri.

Santi'k, Xabier'i ta enparaduai begiraturik.

—Zer bear dozue? —esan eutsen.

—Ez, ezer be ez —erantzun eban Xabier'ek. Eta, agoa barrez beterik.

—Lagunduko zaituegu, ala? —itandu eban.

Itaun maltzur ori eginda gero, ibiltan jarraitu eben astiro-astiro, arei begiratzeko noizean bein buruari eragiñez.

—Parkatu, neska —esan eban Santi'k—. Mutiko tentel orreik...

Montserrat ariñeketan beste umeakana yoian artean, Santi lo-gelara igo, bereala gela andira jatsi eta ikasten asi zan, baiña oso gaitz egin yakon bere barruan batzea. Lotsagarri ta beeratuta somatzen eban bere burua, eta Xabier'en barre maltzurra ta arek Manu'ri emon eutsan ukondokadea ikusten jarraitzen eban.

Biamonean, *Fleury*'ko guztien artean zabaldu zan Santi ta Montserrat ezkongaiak ziraneko zurrumurrua.

Egun bi barru, albista pozgarri bat eldu zan *Fleury*'ra.

Egun aretan, beste guztietan lez, Santi'k, ogetik jagi, aurpegia ta agoa ondo garbitu, jantzi eta gosalduta, Claude ta Helene'gaz Ateneorako bidea artu eban. Arin-arin yoiazan irurak, goiz guztietan lez, barbarik egiteko asti bagarik. Bideerdian-edo, egunorokoak saltzen ebazan gizona ikusi eben, beti lez deadarka. Baiña goiz aretan bestetan esaten ez eban berba bat entzun eutsan argi ta garbi: "gudua". Eta Santi gizonagana urreratu zan, eta gizonak barrero iragarri eban albistea. Santi'ri arnasea be gelditu egin yakon.

—Egunorokoa erosteko dirurik ba-daukazu? —itandu eutsan Claude'ri.

Claude'k dirua eukan. Eskua sakelean sartu eta egunorokoa erosi eban. Santi, egunorokoa arturik, irakurten asi zan.

—Berandutu egingo yaku —esan eban Helene'k.

—Itzi egiozu irakurten —esan eban Claude'k—. Ez zara konturatzen?

AMAITU DA ESPAÑA'KO GUDUA, ekarren egunoroak leenengo orrian.

Santi'k esku-zorroa lurrean itzi ta irakurten jarraitu eban.

—Berandu eldu nai ba'dozue, or konpon —esan eban Helene'k—. Ni ba-noa.

—Egia da, Santi —esan eban Claude'k geroxeago—. Beran-dutu egin bear yaku.

Alan be, Santi'k irakurteari ekin eutsan. Leenengo orrial-de guztia España'ri buruzko albistaz etorren, idazkiz eta argazkiz beterik.

—Claude, ba-goaz ala zer? —esan eban artega Helene'k.

—Bai —esan eban Claude'k. Eta Santi'ri ta Helene'ri begi-ratuta gero,

—Bai, goazan —esan eban.

Eta Claude ta Helene joan egin ziran. Santi'k, barriz, an-txe jarraitu eban, egunor koa begiakaz jaten lez, be%e ndotik igaroten ziranak emoten eutsoezan bultzakadai jaramonik egin bagarik.

Ariñeketan *Fleury*'ra biurtu zan, beso-barru baten zorroa ta beste eskuan egunorokoa eroiazala. Atea zabaldu eutsoe-nean, ez zan konturatu nok zabaldu eutsanik be; "zer jazoten da?, zer jazoten yatzu?" entzun eban soillik. Baiña Santi'k ez eban erantzun. Eskillara-ondoan Tys andereñoa ikusi eban, eta onek gelditzeko eskatu eutsan, "Santi, ezbearren bat jazo da?, zegaitik ez zagoz Ateneoan?" itauntzen eutsan artean. Santi, ari be jaramonik egin bagarik, eskillarak biñan-biñan igo ta lo-gelara elduta, deadarka ta saltoka asi zan, mutiko guztiak ikastokira jatsiteko egozala.

—Amaitu da gudua! Emen, egunorokoa...

Egunorokoa Xabier'i emon eutsan, eta Manu guztiai erri-me irakurten asi zan.

—Zer jazo da? —itandu eban Balendin'ek.

—Amaitu da gudua —esan eban Xabier'ek. Eta auxe be bai gaiñera—: Franco'k irabazi dau.

—Franco Errepublikaren alde egoan, ala aurka? —itandu eban Yulen'ek.

—Aurka —esan eban Santi'k.

Eta alkarri begiratzen eutsoen, isilik, eta ezin sinitu eben alakorik. Ez ekien zer zala-ta edo zegaitik jardun eben burru-kan, ez zegaitik asi ziran. Politikea lan egitea lez zan, tabako-orria erretea lez, agintzea edo kafe-etxera edo ardandegira joatea lez: gizonen arazoa. Baiña Santi ta onen lagunak zin-tzoak ziran euren senide, adiskide, auzoko ta erritarrai buruz,

eta gudua etxeokak irabaztea nai izan eben. Eta barrero isilta-sun luzea egin zan arein artean.

—Orain gudurik ez dagoan ezkerro, laster etxera joan aal izango gara, ezta? —itandu eban Manu'k.

Santi'k, Manu'ri begiraturik.

—Bai —esan eban—, gudurik ez dagoan ezkerro, laster etxe-ra joan aal izango gara.

XVI

Egun aretan bertan, bazkal-ostean, Balendin, Aitor, Tomas eta Manu —baita neskato batzuk be—euren gauzak bat-tzen asi ziran eta zer eroango eben eta zer ez. Berealaxe alde egingo ebela zirudian.

—Ez ibilli arrapatata oraindiño —esan eban Santi'k—. Gu joan aal izan baiño leen, asteak igaroko dira, urrean.

Baiña Balendin, Aitor, Tomas eta Manu Tys andereñoa-ren billa ibilli ziran, etxabeean eukezan narruzko maletak ego-zan atea zabaldu egitsen. Euren armarioak be aztertu ebezan; antxe egozan etxeko idazkiak, San Nikolas-eguneko bezuzak, *tebeo* batzuk, liburu bat, gomazko pelota bat... Jaiegun-aurreko aize pozgarria somatzen zan *Fleury* guztian euskotar guztien aurpegi, berba ta egokeretan.

Ander, ostera, gertuerak ikustean, guztiz itun eta gogo-illun jarri zan. Ille batzuetan izan ebazan asmoak ames utsak zirala konturatu zan. Egin-eziña eldu izan zan: euskotar guz-tiak joan egingo ziran eta berak *Fleury*'n geratu bear izan-go eban.

—Ez zaitez orrela jarri, zu —adoretu eban Aitor'ek—. Geu-gaz etorriko zara-ta...

—Neure etxera etorriko zara, nai ba'dozu —esan eutsan Manu'k—. Gogoko egingo yatzu Barakaldo.

Ander'ek ba-ekian Aitor eta Manu tolesbageak zirana eta ori benetan zirautsoena; baiña beste au be ba-ekian: bat dala umeak eskintzen dabena eta beste bat gurasoak erabagiten dabena, eurok dira agintzen dabena-eta. Eta zelan artuko eben bera Manu'ren gurasoak? Gañera, itziko ete-eutsan don Gregorio'k *Fleury*'ko euskotar ume-taldeagaz joaten? Ez, ori ezin izan zeitekean; Ander'ek ba-ekian ori ezin izan zeitekeana. Zorionekoa izan zan Ander *Bilbo'ko Athletic*'en kamisetean.

jantzi izan eban egunean, areitz andiaren inguruan dantzan egitean eta euskal-abestaldean parte artzean.

Baiña ez, bera ez zan Bizkai'koa, bera ez zan areitarikoa. Santi'k eta enparaduak *Gernika'ko arbola'*ren kerizpean bera euskotar egin ebenean esan eutsoena ez zan egia. Izan be Ander'ek ba-ekian bizitza umeak egiten ez dabena, gizonak baiño, eta gizonak euren negurriz egiten dabena. Gizonak gizonak dira eta arei begirunea izan eta esana egin bear yake; ez dago beste urtenbiderik.

—Ez naibagetu, Ander —esan eutsan Santi'k, sorbaldan eskua ezarten eutsala—. Ez gara oraindiño aldi baten joango, eta nok daki...?

Esanaldia eskegita itzi eban, ari itxaropena emoten eutsala. Baiña Santi'k be ba-ekian itxaropen ori utsa zana; ondo ekian eurak *Fleury'*tik alde egindakoan, Ander bakarrik eta itun geratuko zana. Orregaitik, eguerdian, jantokian Santi'k —Santi Raymond'en ondoan jesarten zan, leenengo egunean lez,— Raymond'i auxe esan eutsan:

—Gu joan gaitezanean, Ander bakarrik ez izteko aalegindu zaitez.

Ander orain oso adikorra zala esan eutsan Raymond'ek, eta beljekar ume guztiak aren adiskide izan nai ebela, ostikopelotan ondo jokutzen ebalako, barre eragiten eutselako ta armonikea zoragarriro jotzen ebalako...

“Emendik joan gaitezanean, izan bear danez izango da guztia”, ausnartu eban Santi'k: “etxeke guztiak alkartuta eta ez bananduta, euskotar guztiak bakean, beljekar umeak beljekar umeakaz eta euskotar neskato-mutikoak euron errialdean ikasten, jolas egiten eta andi egiten...”

Santi'k eta enparaduak uste eben baiño geiago luzatu zan urteera-eguna. Orril-azkenetako goiz baten —illabete baiño geiago zan gudua amaitu izan zana—, don Gregorio ta don Damaso joan yakezan, arei ikustaldia egitera; aalbait lasterren euren etxeetara biurtuko zirala esan eutseen. Baiña, Euzkadi'tik urten ziran umeak eundakak izanik eta Beljika guztian eta beste errialde batzuetan sakabanatuta egozan ezkerro, ez zirala guztiak batera biurtuko, txandaka baiño, taldeka.

—Trenak atondu ta zeaztasun asko erabagi bear doguz —esan eban don Damaso'k—. Guztia gertutakoan, zeuen etxeetara biurtuko zaree. Ez da aldi luzerik igaroko.

Etxera joateko pozik egozan itandu eutsen don Gregorio'k, eta guztiak “Bai” luze bataz erantzun eutsoen.

—Zeuek be geugaz etorriko zaree, ezta? —itandu eban Santi'k.

—Gurea ez da bardin, Santi —esan eban don Gregorio'k—. Ba-dakizu: politika-gaiak. Zuen etxekeak zeuen zain dagoz, baiña gu... Galdu egin dogu gudua, Santi.

—Ba-dakit —esan eban Santi'k; eta makurtu egin eban burua, bere tamala agertzen ebala.

Baiña, zegaitik geratuko ziran don Gregorio, don Damaso ta beste gizonak Bizkai'ra biurtu bagarik? Ori ezin eban Santi'k ondo ulertu, ezin eban buruan sartu. Gudua beretarak irabaztea nai izan eban eta beretarrak galdu egin eben; baiña bizitza, berak uste ebanez, politikea baiño geiago da, zorioneko edo zoritzarreko politikea baiño gorago izan bear nai ta nai ez. Izan be, Santi'ren senideak, adiskideak, auzokoak eta erritarrak galdu egin izan eben gudua, bai; baiña Euzkadi'k arein errialdea izaten jarraitzen eban eta Bizkaia'k arein eskualdea izaten jarraitzen eban, eta Barakaldo'k, Barakaldo, eta Bilbo'k Bilbo.

“Ni ezin bizi izango nintzake bizi guztian Euzkadi'tik urrun”, esan eban berekautan Santi'k. Ain zuzen be, erbestean egoan artean, bere errialdea maiteago ta bearrago izaten ikasi izan eban; Barakaldo, Bizkaia ta Euzkadi beretzat zer ziran be bai. Aberriaganako maitasuna biotz-barreneragiño sartu yakon erbestaldian, errimiñaldian.

—Min andia artzen dot gugaz ez zatozelako —esan eutsen aurpegi illunez.

—Geuk be bai, Santi, geuk be bai —esan eban don Gregorio'k, arnasa sakon bat egiñik.

Eldu ziran ikastaroko azken-azterketak, eta Santi'k nota onak atara ebazan. Beljekar neskato-mutikoak euren etxeetara joan ziran, oporretara, eta bārriro jantokian, lo-geletan eta jolastokian utsuneak somatzen ziran. Goiz baten, eguzkiaz ditziratsu, euskotar eta kataluñiar ume guztiak eta beljekar batzuk, Fleury andra-gizonak eta onein alaba Marie, eta Tys andereñoa ta Jacquot andereñoa, autobus batera igo eta Gouy-lez-Piétons'era joan ziran, aste batzuk egitera. Antxe egoan Aresti bere bizikeleteaz eta euskeraz egiteko gogoaz eta bere irribarre andiaz, arein zain.

—Nire poza zuek ikusteaz! —esan eban deardarka Ares-

ti'k—. Ba-dakizue gudua amaitu dana eta laster biurtuko gara-na etxera, ezta?

—Bai —esan eban Santi'k—. Eta bestea? —Itandu eban.

—Nor? Agustin? —Aresti'k, unetxo baten isilik egonda—, Ez dau etorri izan nai.

Gouy-lez-Piétons'era eldu ta egun batzuk geroago, aparte-ko zerbait somatzen zan inguruan, bestetan ez lako artegata-suna erriko bizilagun guztien aurpegian; egunoroakoak izki andiak ekarrezan eta irratiko gizonak be estu ta urduri esaten ebazan eguneko albistak.

Sarritan aitatzen ziran izen batzuk: "Naziak", Munich, Maginot gudarokia, Hitler, Dantzig, judarrak, sudeteak, Cham-berlain... Iraillaren leenengotan, Europa'n gudua asi zala esan eutsen isilpean Aresti'k Santi'ri, Xabier'i ta Montserrat'i; jana-rietan negurria ezarri bear ebela, eta mutillai be soldadutzara joateko dei egin bear eutseela.

Lau egun geroago, erreka-ondora jolas egitera yoiazala, egazkin batzuk igaro ziran arin be arin, leenen bee-beetik egaz, gero bereala odei-artean ezkutatuz eta barriro bee-beetik. *Fleury*'ko ume guztiak eta Aresti'k eta erriko andra-gizon guz-tiak gora begira asi ziran, eguzkiagaitik eskua bekokira eroa-nik, eta "lauburu" izeneko gurutze batzuk ikusi ebazan egazki-ñen egoetan margoztuta. Orduan, gizon bat deadarka asi zan; eta aren berbak entzunaz batera, batzuk lurrean etzan eta bes-te batzuk euren etxera joan ziran ariñeketan. Ametrailladoren ta-ta-ta-ta edo bonben dunbota noiz entzungo ete-eban egon zan Santi, baiña ez zan ezer izan.

Lurrean etzanda, "Barriro be gudua", esan eban Santi'k bere kolkorako; barriro be gauza ikaragarri a bere inguruan, zegaitik eta zetarako zan ulertzen ez ebala. Bildurgarri, iguin-garri, gorrotagarri ta izugarri yakon gudua.

Laster biurtu ziran Bruselas'era, baiña orduan ez egoan bakerik, ez poztasunik *Fleury*'n. Ituna ta naibagea sartu ziran beljekar guztien biotzean.

Biamonean, goizeko amarretan-edo, don Gregorio eto-rrri yaken, *Fleury* jauna lagun ebala, eta beeko gela nagusian batu ebazan euskotar guztiak. Etxera biurtzeko ordua eldu izan yakela ulertu eben.

—Etzi, aparteko tren bat urtengo da Euzkadi'rantz —ira-

garri eban don Gregorio'k—. Antxe joango zaree zuetariko asko. Oraintxe irakurriko dodaz izenak. Enparaduak beste egun baten joan bear izango dabe. Baiña iñok ez dagiala ardu-rarik izan; urrengo txandakoak be laster joango dira.

Sakeletik orri batzuk atarata, izenak irakurten asi zan. Norbaiten izena esaten ebanean, etxera biurtu bear eban muti-ko edo neskatoa barrezka edo pozez negarrez asten zan; baiña bereala estaltzen eban bere poza, txanda aretan joango ez zira-nai naibagerik ez emoteko. Ez zan txanda aretan joango *Fleu-ry*'ra azken eldutako bat be: Montserrat eta onen nebea ta bes-te kataluniarrak bertan geratuko ziran. Bizkaitarretarik guz-tiak biurtuko ziran, Tomas, Yulen eta Aitor izan ezik.

—Ez izan ardurarik —esan eutsen don Gregorio'k—. Urren-go txandan joango zaree.

Alan be, urten bear ez ebenak itun eta arduraz beterik geratu ziran.

—Etzi urten bear dozuenok, asi zaitekeze zuen gauzak gertatzen —esan eban don Gregorio'k—. Autobus baten etorriko gara zuen billa, eta gero trenez joango zaree. Paris'en jatsi eta andik Endaia'ra joango zaree. Gero Irun'era eta Donostia'ra. Donostia'tik be trenez joango zaree Bilbo'ra. Antxe itxarongo dautsuee zuen etxeakoak.

Gero, don Gregorio'k, Santi'gana biurturik.

—Egin dot berba Bogaerts jaunagaz —esan eutsan—. Gaur arratsaldean etorriko yatzu billa eta bere etxera eroango zaitu. Orrela, zeure arrebeagaz batera urtengo zara. Zure lagunak trenean ikusiko dozuz.

Don Gregorio ta *Fleury* jauna alde egin ebanean, muti-koak *Gernika'ko arbola*-ondoan jesarri ziran, isilik. Tomas'ek negar egiten eban.

—Nire gurasoai zerbait jazo yake, urrean —esan eban—, eta orrexegaitik ez noa txanda onetan. Ille bi ba-dira arein barririk ez dodala.

—Entzun dozu don Gregorio'k esan dauana: bereala biur-tuko garala etxera —esan eban Aitor'ek, ari adorea emonik.

—Esan, bai, orixe esan dau, laster biurtuko garala etxera. Baiña noiz?

Orduan, guztiak batera, areitz andi ari azken-agurra egin outsoen, "*Gernika'ko Arbola*" abestuz:

*Gernika'ko Arbola
da bedeinkatua,
euskaldunen artean
guztiz maitatua.
Eman ta zabal zazu
munduan frutua.
Adoratzen zaitugu,
Arbola santua.*

Abestia amaituta.

—Neure gauzak gertatzera noa —esan eban Santi'k—. Bogaerts jauna bazkal-ostean etorriko yat billa, urrean.

Lo-gelara joan zan eta guztiak lagun egin eutsoen. Txanda aretan euren etxeetara biurtzen ez ziran mutikoak leio-ondoan batu ziran; enparaduak beeko gelatik euren maletakaz igoten, armarioak zabaltzen eta euren gauzak gertatzen ikusi ebezan. Tys andereñoak jantzi garbiak ekarri eutsezán. Santi'k *Bilbo'ko Athletic'*en kamisetea Ander'i itzi eutsan.

—Emen geratzen zareen euskotarrantzat —esan eban.

Txiliñak jo ebanean, jantokira joan eta gero barrero lo-gelara biurtu ziran. Antxe egozan guztiak, berbarik egin bagarik, alkarri begira, Jacquot andereñoa eldu zanean.

—Santi, Bogaerts jauna zeure zain dago zuzendariaren gelan. Gertu daukazuz maletea ta zure gauzak?

—Bai, andereño.

—Zoaz, ba. Agur egiezu guztioi.

—Bai, oraintxe —erantzun eban Santi'k.

Mutiko guztiak begira geratu yakozan, eta Santi'k ez ekian zer egin, ez zer esan. Ez eban erabagi izan areik besarkatu bear ebazanik, banan-banan eskua emon bear eutsenik ala agur egiñez alde egin bear ebanik, negar egiteko zorian egoala konturatu ez zeitezán. Maletea artu ta ate-ondoan itzi eban. Baiña ez eban alde egin. Leiora joanda, geisotegira begiratu eban. Tomas'en negar-antzia entzunda, esku bata sorbaldan ezarri eutsan. Eta besterik ezean, bat-batean, bera be negarrez asi zan. Orrela, negar-unpuz ia ezer ikusten ez ebala, besarkatu egin ebazan banan-banan, berbarik esan bagarik, ezin eban berbarik egin-eta. Barrero ateruntz joan eta,

—Agur —esan eban ozta-ozta.

Ander, bat-batean jagirik —ogean jesarrita egoan—, ateragiño joan zan.

—Neuk eroango dautsut maletea —esan eutsan maitekiro.

Xabier eta Manu be lagun egitera joan yakozan, eta gero beste mutiko guztiak be bai. Leenengo etxebizitzan, euren lo-gelako ate-aurrean, Montserrat, Aurelia ta beste euskotar nes-katoak egozan.

Santi'k mutil nagusi lez agertu nai eban bere burua Montserrat'en aurrean.

—Hola —esan eban Santi'k.

—Hola —erantzun eutsan Montserrat'ek.

—Montserrat izan ezik, etzi goaz guztiok —esan eban Aurelia'k—. Trenean ikusiko dogu alkar.

—Bai —erantzun eban Santi'k. Gero, Montserrat'i begiratu ta eskua luzatu eutsan.

—Agur, Montserrat, beti...

Baiña Santi negar baten asi zan, Montserrat be negarrez asi zan, baita beste mutiko ta neskato batzuk be.

—Agur, ba, Montserrat —esan eutsan Santi'k—. Barrero ikusi arte.

Eta eskillaretan beera joan zan, beste euskotar guztiak lagun ebazala. Zuzendariaren bizitoki-aurrera eldu ziranean, gelditu egin ziran. Santi'k, zuzendariaren gelara igorik, atea jo eban. "Aurrera", esan eban Fleury jaunak. Santi sartu egin zan. Zuzendaria ta Bogaerts jauna egozan.

—Eldu da etxera biurtzeko ordua, Santi —esan eban Bogaerts jaunak—. Laster egongo zaree barrero zuen etxeetan, zuen etxeoakaz.

Fleury jaunak irribarre egin eta eskua luzatu eutsan Santi'ri. Santi'k poz-pozik estutu eutsan.

—Agur, Fleury jauna —esan eutsan—. Eskerrik asko biotzez. Beti izango zaitut gogoan.

—Ondo ibilli, Santi —esan eutsan Fleury jaunak—, eta zorioneko izan zaitezala zure aberrian. Utsune andia somatuko dogu zuek bagarik.

—Agur, Fleury jauna —esan eban Santi'k barrero be.

Andik urten eta eskillaretan beera jatsi zanean, neskato-mutiko guztiak berari itxaroten aurkitu ebazan. Bogaerts jauna aren ondoan yoian, eta ume guztiak atzetik.

Atera eltzean, Santi gelditu egin zan. Jacquot andereñoak atea zabelduaz batera.

—Zure maletea, Santi —esan eban Xabier'ek.

Santi biurtu eta une baten guztiai begira geratu zan. An-

txe ikusi eban Montserrat be, eta Ander beljickarra, ille batzuetan euskotar izan zana...

Maletea artu eta

—Goazan, Bogaerts jauna —esan eban.

Atondotik igaro ta Bogaerts jaunagaz aurrera egin eba-nean, norbaitek, negarrari eutsi eziñik.

—Agur, Santi —egin eban deadar. Ander'en berbotsa izan zan.

Kale-ertzean gelditu ziran. "Taxi, taxi", esan eban dea-darka Bogaerts jaunak. Taxia gelditu egin zan; txoferrak maletea artu ta bere jarleku-ondoan ipiñi eban. Irurak barruan egon ziranean, "Laeken'era, Stevens Delannoy kalera", esan eban Bogaerts jaunak. Taxia ibiltzen asi zan, eta Santi'k atze-kaldeko leiatillatik begira yoiian, begira ta begira, kale baten sartzean *Fleury* begietatik galdu arte.

XVII

Eguastenean zan, eguerdi-ostean, zemendian. Bruselas'ko taxi guztiak, kale guztiak, bide guztiak tren-geltokira jotzen eben. Eundakak yoiazan treneruntz euren maletakaz. Neskato-mutiko asko euren jesarlekuetan egozan, eta, leiatillak jatsita, agur egitera joan izan yakezanakaz berbetan ziarduen. Gurutze Gorridun neskak joan-etorrika ebizan, aginduak iragarten, batzui ta besteai lagun egiten, utsik egozan jesarlekuak izentatzen.

--Ogei miñutu doguz oraindiño —esan eban Bogaerts jaunak—. Astia dago.

—Itxaron emen unetxo baten —iragarri eban Santi'k—: ea *Fleury*'koak aurkitzen dodazan.

Andenetik yoiala, Xabier Agirre'k, Manu'k eta Aurelia'k ikusi eben tren-gelako euren leiatilletatik, eta deadarka ta eskuakaz kiñuka asi yakozan.

—Jesarleku bi doguz zuretzat —esan eban Xabier'ek.

—Oraintxe —esan eban Santi'k.

Eta Begoña'gana biurtu zan, Bogaerts andra-gizonakaz, Lucienne ta Simonne'gaz leengo lekuan egoan-eta; guztiak batera aurrekalderuntz abietu ziran, furgoiruntz, maletak izteko, eta gero *Fleury*'ko umeak egozan bagoira.

—Eldu gara,ementxe da —esan eban Santi'k.




21. Nik **sardanak** dantzatzen irakatsiko dautsuet.



22. AMAITU DA ESPAÑA'KO GUDUA.

23. ... ez ete-dabe iñoiz be kenduko alkarri gorroto izatea, etxeak eta uriak ondatzea eta alkar iltea?





24. Amak, Begoña'runtz abiatu-rik, laztandu egin eban; Santi, bere aita besarkatuta gero, geldi ta isilik geratu zan.

—Zortzi miñutu doguz oraindiño —esan eban Bogaerts jaunak, erlojura begiratu bat egiñez.

Begoña, Aurelia'ren ondoan jesarri zan, leiatilla-ondoan; Santi, ate-ondoan, Xabier aldamenean. Bogaerts andragizonak eta onein alaba biak andenetik begiratzen eutseen.

—Begoña —egin eutsan dei Bogaerts andreak.

Begoña, irribarre egiñez, jagi ta andenera urten zan. Bogaerts andreak besarkatu ta laztandu egin eban.

Guztiak alkarri erreguak egiten ziarduen: "Idatzi sarritan", "Zure gurasoak ezagutzeko gogo bizia dogula esan egizu etxean", "Jarraitu prantzesez egiten eta idatzi egiguzu noizean-bein", "Maletan Gante'ko oial bikain bat sartu dautsut zure amarentzat"... Mutikoak baietz esaten eben eta isilik geratzen ziran eta beste umeai begiratzen eutseen. Euskeraz egitea areitariko askori, urrean, ia aaztu egin izan yakela pentzatu eban Santi'k. Eta Begoña'k be euskeraz ia berba batzuk baiño ez ekizala konturatu zan. Bogaerts jaunaren etxera Begoña ikustera joaten zanean naiz Begoña *Fleury*'ra, Santi'k euskeraz egiten eutsan berba, baiña Begoña'k beti prantzesez erantzuten eutsan.

Une aretan, Tys andereñoa sartu zan bagoian, arnas-oska baten.

—Eldu naz azkenean be, Jaungoikoari eskerrak. Kaleko berebillen joan-etorriaz... —esan eban parka-eskatzen lez.

Karamelu-pilloa ta termo bat kafe-esne eroiazan, eta Aurelia'ri emon eutsazan.

—Bada-ezpada be ekarri dautsuet au —esanez.

Tys andereñoa negar egiteko zorian egoan eta ez eban negar egin nai. *Fleury*'ko neskato-mutiko guztiai agur eginda gero, Santi, Aurelia, Aitor, Manu, Xabier, Mertxe ta Balendin egozan tren-gelara biurturik, mosu bat emon eutsen banan-banan.

—Ondo ibilli guztiok —esan eutsen.

—Ninde-le-Tremoloo. Beti izango dot gogoan zure erriaren izena, andereño —esan eban Santi'k. Eta arek, buruari gora ta beera eragiñik.

—Neuk be beti —esan eban, eta andenera jatsi zan. Bogaerts jaunak bere erlojura begiratu ta Begoña'ri beronen jesarlekuragiño egin eutsan lagun.

—Agur, Santi —esan eutsan, aren eskua estuturik.

—Bogaerts jauna, ez dakizu zenbat... —asi zan Santi esaten.

—Ba-dakit —esan eutsan Bogaerts jaunak, irribarre naibagetsuaz itza ebagiten eutsala—. Ez da bearrezkoa ori esatea.

Trenetik jatsi ta andenean geratu zan bere emaztearen eta alaba bien eta Tys andereñoaren ondoan.

Trenak txistua jo eban, eta txirringak zirkin egiten asi ziran; treneko guztiak, deadarka baten, leiatilletara atara ebezan euren buruak eta besoak, guztiai agur egiten. Eundaka zapiak erantzun eutseen andenetik, arei azken-agurra egiñez. Trenak aurrera egin eban, geroago ta ariñago. Trenekoak eta andenekoak alkarri agurka jarraitzen eutsoen, trena tunel baten sartu arte.

Trena eguzkiaren argitara urten zanean, Santi'k atzerantz begiratu eban, baiña ez zan andenik ikusten, erriko azken-etxeak baiño.

—Ba-goaz etxerantz —esan eban Aurelia'k.

—Bai, ba-goaz —erantzun eban Santi'k.

Umeak alkarri begiratzen eutsoen, biotz-ikaraz ia berbarik egin eziñik. Geroago, barriz, zerbait baretu ziranean, guztiak txortxor asi ziran. Aurelia'k Begoña'ri euskeraz egiten eutsan eta onek ari prantzesez erantzun, eta Santi'k ori ez eban begi onez ikusten.

Illuntzean eldu ziran Paris'era, eta an trenetik jatsi ta autobus batzuetan sartu ziran, beste geltokira joateko. Paris'en zear igarotean, Santi'k etxe andiak eta arrizko irudiak eta kale luzeak eta Sena'ko zubiak ikusi ebazan; Bastilla-ondotik be igaro ziran eta alde guztietan gudagizonak egozan eta arezakuak zubi-azprietan eta etxe batzuen inguruan; "Ez ete-dabe gizonak iñoiz ikasiko? —iñoan Sati'k berkautan—, ez ete-dabe iñoiz be kenduko alkarri gorroto izatea, etxeak eta uriak ondatzea eta alkar iltea?, ez ete-dabe iñoiz be baztartuko umeak ikaratzea ta emakumeai negar eragitea?".

Aren begirakuneak Xabier'enegaz egin eban bat, eta biak gai bera pentzatzen ebela zirudian. Gudua zalako atara ebezan euren erri ta urietatik, eta Prantzia'n eta Belgika'n bakea aurkitu eben; baiña orain, Euzkadi'n eta España'n gudua amaitu zanean eta eurak euren etxeetara biurtzen ziranean, orain Belgika'n eta Prantzia'n gudarako gertatzen ziarduen. Eta beti gudua zan, gudu madarikatua; iru urteko gerratea España-aldean, gudu-gomutapenak ondar-metetako etxe-ondoan;

*Fleury'*ragiño eltzen ziran gudu-albistak, Belendin'i aita il egin izan yakola esaten eutsoela; gudu-ondakiña Bogaerts jaunaren belarrian; orain, barriz, beste gudu baten asiera, beronek ekarriko ebazan ezbearrak, zoritxarrak eta ondamendiak iñok ez ekizala, ezta noiz arte iraungo ebanik be. "Ez ete-dabe gizonak iñoiz be ikasiko, iñoiz be ez?", itandu eutsan barrero Santi'k bere buruari.

Eldu ziran beste geltokira; zaarra, illuna ta draula zan. Autobusetik jatsirik, bakotxa trenean bere lekuetan jesarri zan, eta ume batzuk arrausika asi ziran, otz zirala eta aalbait lasterren etxera eltzeko gogo ebela. Trena ibilten asi zanean, Ander, Montserrat eta enparaduak zelan geratu ziran itan du eutsan Santi'k Xabier'i. "Ondo; ba-dakizu", erantzun entsan arek.

—Zuri gorantziak emoteko eskatu eustan Montse'k —esan eutsan Aurelia'k Santi'ri.

—Benetan?

—Bai, bai —esan eban Aurelia'k.

Santi'k, begiak txilloturik, irribarre egin eban Montserrat'az pentzatzean. Ari egin eutsan azken-agurra ekarri eban gogora, baita ari esan bagarik barruan geratu izan yakozan berba polit asko be. Orretan ziarduala, Aurelia'ren eta Xabier'en begirakuneak somatu ebazan bere aurpegian. Eta jersarlekutik jagirik.

—Bernak soortu egin yataz —esan eban.

"Ondo zagoz, Begoña?", itandu eban; eta onek, buruari eragiñik, "Oui, Santi", erantzun eban prantzesez. "Oui" prantzes orrek min egin eutsan belarrian, eta tren-gelatik pasillora urten zan; antxe geratu zan zutik, illunetan leiatillatik begira. Aresti trenean etorren ala ez jakiteko gogo bizia sartu yakon, eta tren-gela guztiak ikusten eta aztertzen asi zan. Bagoitik bagoira joanda, ordu erdi baiño geiago egin eban aurpegi guztiai begira. Baiña Aresti'ren ahtarrenik be ez. Argi guztiak iziouta egozan tren-gela batera eldu zan, eta mutiko bat, naikoa nagusitxo bera, mutiko batzuk, neskato batzuk eta neskatillea zirudian bat egozan. An be ez egoan Aresti. Andik alde egiteko bira egin ebanean.

—Zu Santi zara —esan eutsan neskatillea zirudianak.

—Bai —erantzun eutsan Santi'k. Ari barrero aurpegira begiraturik, "Zapi gorridun neskatoa" zala ezagutu eban.

—Zu Lutzi zara.

—Bai.

—Andra biren erdian Euzkadi'ko Etxeko eskillaretan beera jatsiten ikusi zendudazan azkenengoz. Eta zapi gorri bt zeroian.

—Egia da —esan eban neskatilleak—. Gogoan dot.

—Noiz izan zan a! Arrezkero ainbat gauza igaro dira....

Neskatillea, buruari eraginda, jagi ta pasillora urten zan eta biak leiatillatik gabari begira geratu ziran.

—Aldakuntza andia egin dozu —esan eban Santi'k—. Ia neska bat zara.

—Zeu be ia beste bat zara. Baiña beingoan ezagutu zaitut.

Lutzi'k irribarre egin eban, irribarre maltzurra.

Isilik geratu ziran, trena aurrera yoian artean. Noizean bein urrunean galduta egoan erriko argiak ikusten ebezan eta diz-diz egiten eben izarrak goian. Alantxe jarraitu eben luzaro, isilik, alkar barrero ikusi ebelako pozik be bai, trena Euzkadi'rantz yoialako batez be. Alako baten.

—Otz naz —esan eban Lutzi'k.

—Bai.

—Ea loak artzen nauan unetxo baten. Gabon, Santi.

—Gabon, Lutzi. Biar ikusiko dogu alkar.

Arek baietz esan eutsan, eta, be e tren-gelan sarturik, atea itxi ta atzamatu egin eban argia. Beste tren-gela geienetan be kendu egin eben argia, eta Santi'k ez eban Aresti idoro. Logurea etorri yakon eta "Emen ba'dator, biar ikusiko dot Donostia'n eta Bilbo'n", esan eban berekautan. Eta bere tren-gelara biurtu zan. An be argiak atzamatuta eukezan, eta jesarri egin zan Santi. Xabier'ek ez eban zirkiñik egiten.

—Lo zagoz? —itandu eutsan Santi'k.

—Ez —esan eban Xabier'ek—. Pentzatzen diardut.

—Zertaz?

—Neure etxeaz, neure gurasoakaz, *Fleury'*az, leengo guztiaz...

Goizean goiz eldu ziran Euskalerriko Laburdi'ra, Baiona'ra.

—Sartu gara Euzkadi'n! —iragarri eban Santi'k deadarka.

Santi'ren bagoian norbaitek irrintzi luze bat egin eban, eusko-jaietan egin oi danez. Lo etozan guztiak iratzartu egin ziran.

Treko leiatilletatik Euzkadi'ko mendi berdeak eta baserri zuriak agertu ziranean, euskotar ume guztiai biotza taupa-

daka asi yakon. Trenak aurrera egin eban, eta Endaia'ra eldu ziran. Lagun gutxi egoan geltokian; euskeraz, prantzesez eta gazteleraz egiten eben berba. Eta Santi'k Iparragirre'ren bertso entzutetsuok ekarri ebazan gogora:

*Ara nun diran mendi maiteak,
ara nun diran zelaiak,
baserri eder, zuri-zuriak,
iturri eta ibaiak.
Endaia'n nago zoraturikan
zabal-zabalik begiak.
Ara, Euskalerrri, lur oberikan
ez da Europa guztian!*

Trena aurrera egiten asi zan astiro-astiro.

—Or dago Bidasoa —izentatu eban Santi'k—. Oraintxe igaroko gara zubitik.

Irun'era eldu ta trenetik jatsi ziranean, gizon batzuek etxe andi batera eroan ebezan eta an gosaria emon eutseen.

Santi'k, oraindiño amalau urtekoa izanarren, mutil bat lez ikusten eban bere burua, gudua galdu dauan gudari bat lez edo atzerritik bere aberrira biurten dan erbesteratu bat lez. Santi'k, alde batetik, oso itun eta goibel egoan, beretarrak gudua galdu ebelako, bai; baiña bestetik, pozik eta itxaropenez be bai, Goiko Jaunak emon eutsan lurra barrero zapaltzen ebalako, Santi'k bere barrutik ezin jaurti eikean eta jaurti nai ez eban lurra, urrun egozan bitartean biotzean eta gogoramenean ain sakon sartu yakon lurra. Bere barrua erreten eukan barrero bereakaz egoteko gurariz, bere ama, aita ta Yontxu laztantzeko, Portu-kalean ara-ona eta Arteagabetia'ko aldapan gora ta beera ibilteko.

"Gudua amaitu da, gudua amaitu da", esan eban bere kolkorako; eta gero: "Barrero Euzkadi'n nago. Etxera biurtu naz." Tamal andia artu eban Irun'go etxe batzuk ondatuta ta lur-jota ikustean, eta *Fleury'*n gau baten Jaungoikoari egin eutsan eskaria ekarri eban gogora: politikeak ez egizala barrero anaiak alkarren aurka gudarokian jarri; Euzkadi'n barrero iñoiz be ez zeiteala gudurik sortu; euskotar guztiak bat egin egiela, guztien artean Aberri baketsu, alaitsu ta zorionsua egiteko.

—Ordu batzuk barru Barakaldo'n egongo gara —esan eutsan Begoña'ri, beroni eskua estutuez.

Irun'dik Donostia'ra trenez joan ziran, eta Amara'ko geltokian beste tren batera igo ziran, tren luze-luze batera.

—Konturatzen zara, Xabier? —itandu eban Santi'k—. Tren au gelditu daitenean... Atxuri'ko geltokian egongo gara.

—Bilbo'n —esan eban Xabier Agirre'k.

—Bilbo'n —esan eban Santi'k.

Umeak, pozaren pozez, dardaraka yoiazan, trenaren dardareaz batera. Tren-makiñari ke-moltzo andia erion eta arnas-estuka lez jarten zan aldaparen bat igotean; bidean egarritu be egin zan, eta, geltoki baten geldituta, ura artu eban. Bitartean, trenekoak oso nekatuta egonarren, iñok be ez eban lo egiteko ez jesarteko gogorik. Guztiak ibilli ebizan pasilloetan alde bate-tik bestera; beste tren-geletan sarturik, alkarri agurka ta poza agertzen ziarduen. Amaika urteko mutiko bat tren-gela guztie-tatik igaro zan, "Ba-dago emen Bermeo'korik?", itaunka. Santi'k, tren guztian Aresti'ren billa ibilliarren, ez eban aurkitu. "Beste txanda baten etorriko da", esan eban berekautan.

Durango'tik igaro ziranean, Anboto ikusi eben, txapel zuriz jantzita, eta Udalaiz urrunago, Elorrio-aldean. Santi'k *Fleury*'ko Gabonak ekarri ebazan gogora, eta batez be *Gerni-ka'ko arbola* edurrez estalduta.

Alako baten.

—Begira: Aritz! —egin eban deadar norbaitek. Izan be, Bilbo-ondoan egozan. Trena tunel baten sartu eta barriri urten zan. Trena astiroago yoiar orain, eta, kirrinkada luze bat egin-da, gelditu egin zan.

—Eldu gara Atxuri'ko geltokira! —egin eban deadar Xabier'ek.

Jatsi ziran, ba, ume guztiak, eta geltoki-barrura eroan ebezan. Bestekaldean, ateko kristaletatik, laguntalde andia ikusten zan eta areik ataraten eben berbaroa entzuten. Ume batzuk arei begira jarri ziran, eta mutiko batek, bat-batean, "Ama, ama!" egin eban deadar eta, ateruntz ariñeketan joanik, andra bat besarkatu eban eta biak negar egin eben.

Geltokiko beste gelan izenak esaten eta bereala gizonak eta andrak sartzan asi ziran. Alkarri begiratzen eutsoen, umeak andrai ta gizonai, eta gizonak eta andrak umeai; eta, alkar ezagutzen ebenean, besarkatu egiten eben alkar, negarrez eta deadarka, "Ama" edo umeren baten izena esanez.

Eta alako baten, Santi'k be bere ama ta aita ikusi ebazan. Amak Begoña'ganuntz abiaturik, "Begoña, nire alabatxoa!" esan eta laztandu egin eban; Santi, bere aita besarkatuta gero, geldi ta isilik geratu zan; eta, bere ama laztandu ebanean, negarrez asi zan. Manu, Aitor, Lutzi ta Xabier be euren gurasoakaz egozan. Balendin'ek negar egiten eban, negar isilla, baltzik jantzitako andra baten ondoan.

—Barriri be etxean zagoze —esan eban Santi'ren amak.

Ez zan arei begira aspertzen. "Errime azi zaree", "Onik zagoze?", "Nekatuta zagoze?". Aitak, barriz, "Ta gizon bat egin da etorri zara", esan eutsan Santi'ri. "Goazan etxera, goazan etxera", esan eban amak; eta maleten billa joan ziran.

Kanpoko atera eldu ziranean, norbaitek "Santi, Santi!" egin eban deadar. Xabier Agirre zan; eta Santi'ri eskua luzaturik.

—Ba-dakizu nire zuzenbidea —esan eutsan—. Ba-daukazuz Aitor'en eta Manu'renak be, ezta?

—Bai —esan eban Santi'k.

—Egingo daustazu ikustaldi bat, ez?

—Bai, Xabier —esan eban Santi'k.

Alkar besarkatuta gero, Xabier andra argal bategaz eta gizon luze ta lodi bategaz joan zan.

—Goazan, ba —esan eutsan Santi'k bere gurasoai.

Kale-ertzean, Lutzi'gaz egin eben bat.

—Eldu gara, Santi —esan eban arek.

—Bai. Zu Bilbo'n bizi zara, ezta?

—Ni bai. Eta zu?

—Ni Barakaldo'n. Baiña, egunen baten alkar ikusiko dogu Arenal'ean-edo, ez?

Lutzi'k irribarre egin eban, betiko irribarre maltzurra. Barriri be zapi gorridun neskea zan.

—Ba-daiteke —esan eban. Eta samurkiro.

—Orain... agur, Santi.

—Agur, Lutzi.

Santi'k barriri be bere maletea artuta, laurak ibiltan asi ziran. San Anton'go eliza-ondora eldu ziranean.

—Eta Yontxu? —itandu eban bat-batean Santi'k.

—Soldadutzan dago. Ba-dakizu nun? Melilla'n —azaldu eban aren aitak—. Ezkontzeko asmotan diardu. Neskeak Itziar dau izena eta Bidebarrieta kalean bizi da.

“Antxe bizi da Xabier Agirre be”, ekarri eban gogora Santi’k.

Barakaldo’rako trena artu eben. Amek negar isilla egiten eban, Santi’ri ta Begoña’ri eta Begoña’ri ta Santi’ri itaunak egiten eta begiratzten eutsen artean. Barakaldo’ra eldu ziranean, trenetik jatsi ta antxe geratu ziran trena joan arte, Santi’k Ses-tao’ko gudu-geisotegia, Lasesarre’ko futbol-zelaia ta Galindo-errekako zubia barriro ikusten ebazan artean.

Ez zan zirimiririk, baiña ke ta busti-usaiña somatzen eban, eta Santi’ri ori gogoko izaten yakon. Santi’re ardua nagusia Barakaldo’n egotea zan, Barakaldo’ko kaleak zapal-tzea, Barakaldo’ko lagunak, etxeak eta gauzak ikustea.

Sabin, Yokin, *Pekatsua* ta santandertarra pelotan jokatzen jardun izan eben etxe-aurrera eltzean, Santi gelditu egin zan une baten; bere ingurura begiratuarren, ez eban iñor be ikusi. Bere aitaren berbotsa entzun eban barriro be bere barruan, andik alde egin eban azken-egunean arek azaldutakoa: “Santi ta Begoña kanpora doaz”; baita *Pekatsuak* itandutakoa be: “Laster biurtuko dira?”, eta aitak erantzundakoa: “Ez dakit. Au amaitu daitenean.”

“Au” ori gudua izan zan eta amaitu egin izan zan. Santi orain Portu-kalean gora yoian, oiñetakoak bere gogoz osintxo guztietan sartuaz. Eta orain be ez eutsan bere amak ezer esaten.

—Yokin eta Sabin etxera etorriko yatzuz billa gaur —esan eutsan aitak Santi’ri—. Zelan dozu ezker ori pelotarako?

—An ez egoan pelotalekurik, aita —erantzun eban Santi’k—. Oso gutxitan jokatzen genduan eskuz. An dana ezbar-din zan.

—Ainbat gauza azalduko dauskuzu, ezta? —itandu eutsan aitak.

—Bai orixe! —esan eban Santi’k.

Eta bera geroago idazle izango zala pentzatu eban. Eta don Segundo’k esan izan eutsanez, idazle izatera eltzen ba’zan, egunen baten eurai jazo izan yakon guzti-guztia idatziko ebala agindu eutsan bere buruari. Eta Tys andereñoa aitatu ebalan, Ninde-lez-Tremoloo’n jaio zala, berogaillua ta geiso-etxea, yodo tanta gorriak, Tomas’ek ogean txiz egin ebanean jazo zana, Aresti’k aurreratutako frankoak, Montserrat’egaz egiñi-ko alkarrizketak, jolastokiko areitz andiari izena *Gernika’ko arbola* ezarri eutsoeneko, areitz aren inguruan kantatzen ebe-

zan euskal-abestiak, *Bilbo’ko Athletic*’en kamisetea janzita egiten ebezan ostikopelotaldiak, Eusebio euskeraz eta prantzesez berba egiten il zanekoa, Ander euskotar egin ebenekoa...

Eta Santi’k, bere aitari begira.

—Bai, ainbat gauza jazo yaku —esan eban—. Ba-dakizu: mutiko-gauzak.

Negar egiteko gogoa etorri yakon bat-batean. Baiña antzi bat gordeaz, Portu-kalean gora jarraitu eban.

AURKIBIDEA

Leenengo zatia

Urteera	Orr.
I	7
II	15
III	24
IV	32
V	45

Bigarren zatia

Alseberg'eko euskotartxoak

VII	51
VIII	57
IX	62
X	67
XI	72
XII	80
VIII	86
XIV	93

Irugarren zatia

Etxera biurtzea

XV	101
XVI	105
XVII	112

En el nuevo amanecer de Vasconia pueden descubrirse sus arcanos maravillosos a través de la

BIBLIOTECA DE LA GRAN ENCICLOPEDIA VASCA

La más importante Editorial vasca de todos los tiempos (según Luis de Castresana en «ABC») en 10 años ha publicado cerca de 500 títulos y volúmenes.

LINGÜÍSTICA VASCA

DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES (2 vols.), Resurrección M.^a de Azkue, prólogos de Juan Gorostiaga y José María Martín de Retana.

REVISTA INTERNACIONAL DE LOS ESTUDIOS VASCOS (28 tomos en 26 vols.), dirigida por Julio de Urquijo, prólogo de Fausto Arocena, presentación e índices de Juan Ramón de Urquijo.

DICCIONARIO RETANA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA (8 vols.), Manuel de la Sota, Lino de Aquesolo y Pierre Laffitte, prólogo de José Lasa.

MILLA EUSKAL OLERKIAK (3 vols.), Santiago de Onaindia.

LA BIBLIA EN EUSKERA (3 vols.), Capitán Duvoisin, prólogo de Lino de Aquesolo.

OBRAS VASCAS COMPLETAS DE AGUSTIN DE KARDABERAZ (2 vols.), prólogo de León de Lopetegui, edición dirigida por Antonio de Zavala.

GRAMATICA BASICA DIALECTAL DEL EUSKERA (3 vols.), Resurrección M.^a de Azkue, prólogo de Alfonso Irigoyen

EFEMERIDES VASCAS Y REFORMA DE LA NUMERACION EUZKERICA, Sabino de Arana y Goiri.

OBRAS INEDITAS DE IZTUETA, José de Garmendia Arruebarrena.

DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO Y CASTELLANO-VASCO DE VOCES COMUNES A DOS O MAS DIALECTOS DEL EUSKERA, Buenaventura Oye-regui, «Arbelaitz».

OBRAS COMPLETAS DEL PADRE DONOSTIA (8 vols.), prólogo y notas de Jorge de Riezu (En preparación).

PERU ABARKA, Juan Antonio Moguel, prólogo de R. M. de Azkue, versión castellana de Juan Carlos Cortázar.

EL PRIMER LIBRO IMPRESO EN EUSKERA, Bernat Dechepare, prólogo de Nicolás de Alzola Gurediaga, primera versión castellana de Lino de Aquesolo.

LOS EJERCICIOS ESPIRITUALES DE SAN IGNACIO, Luis Eguía Rezola, prólogo de Manuel de Lecuona.

DISCURSOS DE LA ANTIGÜEDAD DE LA LENGUA CANTABRA BASCONGADA, Baltasar de Echave.

DIALOGOS EUSKERICOS GUIPUZCOANOS Y VIZCAINOS, Iturriaga e Iriarte.

LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LITERATURA VASCA, Santiago de Onaindia, prólogo de Gregorio San Juan.

ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK, Jaime de Kereseta.

INFLUENCIAS DEL VASCUENCE EN LA LENGUA CASTELLANA, Mikel Zárate, prólogo de Ricardo Ciérvide.

EL IDIOMA Y LA GEOGRAFIA DE ESPAÑA ILUSTRADAS POR EL IDIOMA VASCUENCE, Juan Antonio de Moguel, prólogo de Justo Gárate.

EL VASCUENCE EN LA TOPONIMIA CASTELLANA, Abelardo Herrero Alonso.

DICCIONARIO BASICO EUSKERA-CASTELLANO Y CASTELLANO-EUSKERA, Jaime de Kereseta.

GRAMATICA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS DEL EUSKERA (2 vols.), Arturo Campión.

CATALOGO DE NOMBRES VASCOS PARA EL REGISTRO CIVIL, José M.^a Bereciartúa Olarra.

(Ver más adelante **OBRAS EN EUSKERA, OBRAS BILINGÜES y ENCICLOPEDIAS y OBRAS GENERALES**).

DERECHO FORAL

EL DERECHO FORAL DE VIZCAYA EN LA ACTUALIDAD, Adrián Celaya Ibarra.

PRINCIPIOS CONSTITUCIONALES DEL FUERO DE VIZCAYA, Tomás de Otaegui, prólogo de Daniel Lizarralde.

MIL AÑOS CON FUEROS, CIEN SIN..., Elias Amézaga.

DISCURSO SOBRE LOS FUEROS VASCOS, Benigno Mateo de Moraza, prólogo y notas de Fermín Herrán.

Fernández Echevarría, Archivo Bidasoa, Archivo de la Junta de Obras del Puerto de Bilbao, etc., textos de José M.^a Bereciartúa Olarra.

DISCURSOS POLITICOS Y LITERARIOS, Arturo Campión.

PRINCIPIOS CONSTITUCIONALES DEL FUERO DE VIZCAYA, Tomás de Otaegui.

IGLESIAS RUPESTRES VISIGOTICAS EN ALAVA, LA CAPADOCIA DEL PAIS VASCO O EL COMPLEJO RUPESTRE MAS IMPORTANTE DE EUROPA, José M.^a San Sebastián «Latxaga».

ANTROPOLOGIA VASCA, (4 vols.), J. Caro Baroja, J. M. de Barandiarán, Luis Michelena, Manuel de Lecuona, Adrián Celaya, A. E. de Mañaricúa, J. M. Apellániz, Jesús Altuna, V. Palacio Atard, J. L. Goti Iturriaga, J. M. Satrustegui, C. González Echegaray, Leandro Silván, Manuel Laborde, Jean Haritschelhar, María Arrazola, F. Escudero, J. M. Azaola, Luis Villasante, Juan San Martín, Félix Alfaro, François Beaudouin, J. M. Basabe, Ig. Barandiarán, Manuel Basas, Fdo. Múgica, Fermín Leizaola, Bernardo Mesanza, Jesús Moya, Enrique Vallespi, J. M. Merino, J. I. Lasa, M. Fdez. Palacio, Martín Ugalde, Justo Mocoeroa, etc.

EUSKALERRIAREN ALDE, (21 vols.).

HISTORIA DE GUIPUZCOA-GUIPUZCOACO CONDAIRA, Juan Ignacio de Iztueta, versión, prólogo y notas de José Lasa Apalategui.

HISTORIA DE VIZCAYA A TRAVES DE LA PRENSA (4 vols.), Laura García Corella, prólogo del doctor Gregorio Marañón.

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DE GUIPUZCOA, Pablo de Gorosabel.

HISTORIOGRAFIA DE VIZCAYA, Andrés E. de Mañaricúa.

LO QUE EL RIO VIO, Luis Rodríguez Gal «Luis de Uranzu», prólogo de Pedro Mourlane Michelena.

CAMINOS DE VIZCAYA EN EL SIGLO XVIII, M.^a Angeles Larrea, prólogo de Vicente Palacio Atard.

COMPENDIO DE LA HISTORIA DE LA NOBLE VILLA DE BILBAO, Teófilo Guiard y Larrauri.

CRONICA DE LOS SEÑORES DE VIZCAYA DEL LINAJE DE HARO, prólogo de Andrés E. de Mañaricúa, transcripción de Angel Rodríguez Herrero.

CRONICAS DE LA CASA DE VIZCAYA, Lorenzo de Padilla, prólogo y notas de Andrés E. de Mañaricúa.

DISCURSOS DE LA ANTIGÜEDAD DE LA LENGUA CANTABRA BASCONGADA, Baltasar de Echave.

PERFILES BILBAINOS, K-Toño Frade.

BILBAO CAMP, German Elorza Arrieta.

EMOCIONARIO GUIPUZCOANO, Francisco M.^a de Labayen.

POLEMICAS SOBRE VIZCAYA EN EL SIGLO XVII (EL BUHO GALLEGO, EL TORDO VIZCAINO Y EL PAVO ANDALUZ), Andrés E. de Mañaricúa.

ESCUDO DE LA MAS CONSTANTE FEE Y LEALTAD, Fontecha Salazar, prólogo de Andrés E. de Mañaricúa.

BIOGRAFIA

VIDA Y OBRA DE IPARRAGUIRRE, Luis de Castresana.

JAUREGUI EL GUERRILLERO, José Ignacio Lasa.

VIDA Y OBRA DEL DOCTOR AREILZA, Manuel Vitoria, prólogo de Luis S. Granjel, epílogo de José María de Arelliza.

VIDA Y OBRA DEL DOCTOR ACHUCARRO, Manuel Vitoria, prólogo de Luis S. Granjel.

DICCIONARIO BIOBIBLIOGRAFICO DE ESCRITORES EUSKERICOS, Juan San Martín.

APENDICE AL DICCIONARIO BIOBIBLIOGRAFICO DE ESCRITORES EUSKERICOS, Juan San Martín.

LA MONJA ALFEREZ, Luis de Castresana.

JUANA DE ASBAJE LA MONJA ALMIRANTE, Cecilia G. de Guilarte, prólogo de Herminio Ahumada.

DICCIONARIO DE VIZCAINOS ILUSTRES, Juan Eustaquio Delmas, prólogo de A. Rodríguez Herrero.

NEMESIO DE MOGROBEJO, SU VIDA Y SUS OBRAS, Juan de la Encina, prólogo de Miguel de Unamuno.

PRIMER QUIEN ES QUIEN EN VIZCAYA, Celia López Sainz.

UN RECORD INTERNACIONAL... COMO IRIBAR NO HAY NINGUNO, Enrique Terrachet.

CIEN VASCOS DE PROYECCION UNIVERSAL, Celia López Sainz, prólogo de Luis de Castresana.

FRANCISCO DE YTURRIBARRIA, NUESTRO GRAN POETA, Félix Santiago Latona.

JUAN DE ECHEVARRIA, José Camón Aznar y Luis de Castresana. (En preparación).

JORGE DE OTEIZA, Miguel Pelay Orozco. (En preparación).

OBRAS COMPLETAS DE JOSE DE ARTECHE, (8 vols.), prólogo de Miguel Pelay Orozco. (En preparación).

DICCIONARIOS

DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES, (2 vols.), Resurrección M.^a de Azkue, prólogos de Juan Gorostiaga y José M.^a Martín de Retana.

DICCIONARIO ONOMASTICO Y HERALDICO DEL PAIS VASCO, (6 vols.), Jaime de Kereseta, apéndice de F. Menéndez Pidal y J. L. Vidaurrazaga.

DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO Y CASTELLANO-VASCO DE VOCES COMUNES A DOS O MAS DIALECTOS DEL EUSKERA, «Arbelaitz».

DICCIONARIO DE VIZCAINOS ILUSTRES (hasta mediados del siglo XIX), Juan Eustaquio Delmas, prólogos de Angel Rodríguez Herrero y Juan Ramón de Urquijo.

DICCIONARIO MARITIMO ILUSTRADO VASCO-CASTELLANO Y CASTELLANO-VASCO, Ignacio Garmendia Berasategui

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DE GUIPUZCOA, Pablo de Gorosabel.

DICCIONARIO RETANA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA, (8 vols.), Manuel de la Sota, Pierre y Lino de Aquesolo, prólogo de José Lasa Apatategui.

DICCIONARIO BASICO EUSKERA-CASTELLANO Y CASTELLANO-EUSKERA, Jaime de Kerexeta.

CATALOGO DE NOMBRES VASCOS PARA EL REGISTRO CIVIL, José M.ª Bereciartua Olarra.

DICCIONARIO HISTORICO-GEOGRAFICO DEL PAIS VASCO, (3 vols.), Real Academia de la Historia, prólogo de José María Martín de Retana.

PRIMER QUIEN ES QUIEN EN VIZCAYA. DICCIONARIO DE VIZCAINOS NATURALES O ADOPTIVOS, DE DESTACADA PROYECCION PUBLICA EN LAS DISTINTAS ACTIVIDADES Y PROFESIONES, Celia López Sainz.

DICCIONARIO ILUSTRADO DE MITOLOGIA VASCA, José de Miguel de Barandiarán, prólogo de José María Martín de Retana.

ETNOLOGIA

OBRAS COMPLETAS DE JOSE MIGUEL DE BARANDIARAN, (15 vols.), prólogo de José M.ª Martín de Retana.

EUSKALERRIAREN ALDE, Revista de Cultura Vasca 1911-1931 (21 vols.), fundada por Arturo Campión, Julio de Urquijo, Carmelo de Echegaray y Domingo de Aguirre. Dirigida por Gregorio Múgica prólogo de José Miguel de Barandiarán.

MUSEO DE SAN TELMO, Gonzalo Manso de Zúñiga.

CANCIONERO POPULAR VASCO, (2 vols.), Resurrección M.ª de Azkue, prólogos de Manuel de Lecuona y José M.ª Martín de Retana, epílogos de Ambrosio de Zatarain y Juan Oñatibia, notas de Louis Dassance, Juan San Martín, José María Satrústegui, Antonio de Zavala y Ambrosio de Zatarain.

GRAFIA, ORNAMENTACION Y SIMBOLOGIA VASCAS, (3 vols.), Louis Colás, presentación de Luis de Castresana y estudios de Camille Julián, Julien Vinson, Pierre Lhande, M. Philippe Veyrin y José Miguel de Barandiarán.

ANTROPOLOGIA VASCA, (4 vols.). Ver Historia.

ESTAMPAS EUSKARAS, Francisco M.ª de Labayen, prólogo de A. M. Labayen.

EMOCIONARIO GUIPUZCOANO, Francisco M.ª de Labayen, prólogo de Jesús Elosequi.

JAKA'RA OÑEZ NAPARROA'N ZEAR, José M.ª San Sebastián «Latxaga».

CIEN CANCIONES VASCAS PARA 1977, selección de Jaime de Kerexeta.

ANTIGUAS DANZAS DE GUIPUZCOA-GUIPUZCOACO DANTZAK, Juan Ignacio de Iztueta, versión castellana de Santiago de Ondiandía, prólogo de Gaizka de Barandiarán.

HISTORIA DE GUIPUZCOA-GUIPUZCOACO CONDAIRA, Juan Ignacio de Iztueta, versión castellana y prólogo de José Lasa.

OBRAS COMPLETAS DEL PADRE DONOSTIA, (8 vols.), prólogo, notas del Padre Jorge de Riezu. (En preparación).

DICCIONARIO MARITIMO ILUSTRADO VASCO-CASTELLANO Y CASTELLANO-VASCO, Ignacio Garmendia Berasategui.

PRIMER CATALOGO DEL MODELISMO NAVAL EN VIZCAYA, Alfonso Chapa Ozamiz, prólogo de Julio Caro Baroja.

LA COCINA VASCA, Ana M.ª Calera, prólogo y revisión de J. M. Busca-Isusi.

HISTORIA GENERAL DEL SEÑORIO DE BIZCAYA, (15 vols.), Estanislao Jaime de Labayru.

COSAS MEMORABLES O HISTORIA GENERAL DE GUIPUZCOA, (9 vols.), Pablo Gorosabel, Carmelo de Echegaray, Martínez de Isasti, Francisco Labayen, Juan Ignacio de Iztueta, etc.

GUIPUZCOA OLVIDADA, L. P. Peña Santiago (agotada). Prólogo de José de Arceche.

GUIPUZCOA PASO A PASO, L. P. Peña Santiago (agotada).

GUIPUZCOA ULTIMO CAMINO, L. P. Peña Santiago (agotada).

OBRAS EN EUSKERA

OBRAS COMPLETAS DE TEATRO, (3 vols.), Antonio María Labayen.

LA BIBLIA EN EUSKERA, (3 vols.), Capitán Duvoisin, prólogo de Lino de Aquesolo.

50 CANCIONES VASCAS PARA HOY, Kerexeta.

OBRAS VASCAS COMPLETAS DE AGUSTIN DE KARDABERAZ, (2 vols.), prólogo de León de Lopetegui, S. I., edición dirigida por Antonio de Zavala.

IPUIÑAK, Resurrección M.ª de Azkue.

ELIZ-GURASO APOSTOLIKUAK, Jaime de Kerexeta.

JAKA'RA OÑEZ NAPARROA'N ZEAR, José María San Sebastián, «Latxaga».

ORREAGA, Arturo Campión.

MILLA EUSKAL OLERKIAK, Santiago de Onaindía.

COLECCION: IPUIÑIK EDERRENAK (agotada).

PINOTXO, Manu Ziarsolok euskeratua.

TXANO GORRITXU, Manu Ziarsolok euskeratua.

IRU TXARRIKUMEAK, Imanol Berriatuak euskeratua.

MARI ERRAUSKIN, Imanol Berriatuak euskeratua.

LAMIÑA ULEGORRITXUA, Manu Ziarsolok euskeratua.

EDUR ZURITXU'TA ZAZPI EPOAK, Manu Ziarsolok euskeratua.

KATUA ZAPATAKAZ, Manu Ziarsolok euskeratua.

PETER PAN, Manu Ziarsolok euskeratua.

LOAKARTUTAKO PRINTZESATXUA, Imanol Berriatuak euskeratua.

LARROSAZURI TA LARROSAGORRI, Manu Ziarsolok euskeratua.

ERPURUTXU, Imanol Berriatuak euskeratua.

POSPORODUN NESKATOA, Manu Ziarsolok euskeratua.

BERAUNEZKO SOLDADUTXUA, Manu Ziarsolok euskeratua.

ALIZIA GAUZA MIRAGARRIEN MUNDUAN Imanol Berriatuak euskeratua.

PAITAKUME ITXUSIA, Imanol Berriatuak euskeratua.

MARI ERPURUTXU, Manu Ziarsolok euskeratua.

COLECCION: ABERE ALAIK (agotada)

DURI KATTAGORRIA, Peña'tar Xabier'ek euskeratua.

TERRY ARTZAKUMEA, BASOAN, Peña'tar Xabier'ek euskeratua.

DUDU ZALDITXOA, MOZORRO-DANTZAN, Peña'tar Xabier'ek euskeratua.

HIRU KATAKUME KEZKATIAK, Juan San Martín'ek euskeratua.

PUFFI TXITA IBILTARIA, Juan San Martín'ek euskeratua.

KURRIN TXERRIKUMEA ETA BERE JAIA, Juan San Martín'ek euskeratua.

IKA OIHANEKO OREINKUMEA, Juan San Martín'ek euskeratua.

PIRU AHATETXOA, Juan San Martín'ek euskeratua.

UNTXI KUITXO ARRANTZALEA, Juan San Martín'ek euskeratua.

OBRAS BILINGÜES

(Obras publicadas en dos o más idiomas o dialectos. No se incluyen los Diccionarios, que van en capítulo propio).

CANCIONERO POPULAR VASCO, (2 vols.), Resurrección M.ª de Azkue, prólogos de Manuel de Lecuona y José María Martín de Retana, epílogos de Ambrosio de Zatarain y Juan Oñatibia, y notas de Louis Dassance, Juan San Martín, José María Satrústegui, Antonio de Zavala y Ambrosio de Zatarain.

ANTIGUAS DANZAS DE GUIPUZCOA, Juan Ignacio de Iztueta, prólogo y versión castellana de Santiago Onaindía.

OBRAS INEDITAS DE IZTUETA, José de Garmendia.

PERU ABARKA, Juan Antonio de Moguel, prólogo de R. M. de Azkue, versión castellana de J. C. Cortazar.

EL PRIMER LIBRO IMPRESO EN EUSKERA, Bernat Dechepere, prólogo de Nicolás de Alzola Guerediaga y primera versión castellana de Lino de Aquesolo.

LOS EJERCICIOS ESPIRITUALES DE SAN IGNACIO, Luis Eguía Rezola, prólogo de Manuel Lecuona.

ORREAGA, Arturo Campión.

DIALOGOS EUSKERICOS GUIPUZCOANOS Y VIZCAINOS, Iturriaga e Iriarte.

LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LITERATURA VASCA, Santiago de Onaindía.

HISTORIA DE GUIPUZCOA-GUIPUZCOACO CONDAIRA, Juan Ignacio de Iztueta.

IGLESIAS RUPESTRES VIZGOTICAS EN ALAYA. LA CAPADOCIA DEL PAIS VASCO O EL COMPLEJO RUPESTRE MÁS IMPORTANTE DE EUROPA, José María San Sebastián «Latxaga».

ANTROPOLOGIA VASCA. (Volumen I). Resúmenes en euskera, castellano, francés, alemán, ruso y japonés).

ENSAYO

LA COCINA VASCA, Ana M.ª Calera, prólogo y revisión de José M.ª Busca Isusi.

EL MUNDO VASCO EN LA OBRA DE LUIS DE CASTRESANA, Jacinto Fentanes Ariño.

LA ENCRUCIJADA, Miguel Pelay Orozco.

CARMEN LA GITANA DE MERIME Y BIZET QUE SABIA VASCUENCE, José María Iribarren.

GUIA LIRICA DE VIZCAYA, Mario Angel Marrodán, prólogo de Luis de Castresana.

BAROJA Y EL PAIS VASCO, Miguel Pelay Orozco.

LAS CIEN MEJORES POESIAS DE AMOR DE LA LITERATURA VASCA, Santiago de Onaindía.

VASCONIANA A LOS CUATRO VIENTOS «EMANDA ZABALZAZU MUNDUAN FRUTUA», Vicente Talón Ortiz.


PALABRAS, PALABRAS, Miguel Pelay Orozco.

RETABLO VASCO, Isidoro de Fagoaga, prólogo de José de Arceche.

EL TEATRO POR DENTRO, Isidoro de Fagoaga, prólogo de Roberto F. Giusti.

¡VIVA LA MEJORCRACIA!, Ernesto Perea, prólogo de Luis de Castresana.

CREADORES LIRICOS VASCOS (I): MIGUEL DE UNAMUNO, RAMON DE BASTERRA, FRANCISCO DE YTURRIBARRIA Y ESTEBAN CALLE ITURRINO, prólogo de Federico Carlos Sainz de Robles.



LINGÜÍSTICA VASCA

- DICCIONARIO VASCO-ESPAÑOL-FRANCES (2 vols.), **Resurrección M.^a de Azkue**, prólogos de **Juan Gorostiaga** y **José María Martín de Retana**.
- REVISTA INTERNACIONAL DE LOS ESTUDIOS VASCOS (28 tomos en 26 vols.), dirigida por **Julio de Urquijo**, prólogo de **Fausto Arocena**, presentación e índices de **Juan Ramón de Urquijo**.
- DICCIONARIO RETANA DE AUTORIDADES DEL EUSKERA (8 vols.), **Manuel de la Sota**, **Lino de Aquesolo** y **Pierre Laffitte**, prólogo de **José Lasa**.
- OBRAS VASCAS COMPLETAS DE AGUSTIN DE KARDABERAZ (2 vols.), prólogo de **León de Lopetegui**, edición dirigida por **Antonio de Zavala**.
- GRAMATICA BASICA DIALECTICA DEL EUSKERA (3 vols.), **Resurrección M.^a de Azkue**, prólogo de **Alfonso Irigoyen**.
- EFEMERIDES VASCAS Y REFORMA DE LA NUMERACION EUZKERICA, **Sabino de Arana** y **Goiri**.
- DICCIONARIO VASCO-CASTELLANO Y CASTELLANO-VASCO DE VOCES COMUNES A DOS O MAS DIALECTOS DEL EUSKERA, **Buenaventura Oyregui**, «Arbelaitz».
- OBRAS COMPLETAS DEL PADRE DONOSTIA (8 vols.), prólogo y notas de **Jorge de Riezu** (En preparación).
- INFLUENCIAS DEL VASCUENCE EN LA LENGUA CASTELLANA, **Mikel Zárarate**, prólogo de **Ricardo Ciérvide**.
- EL IDIOMA Y LA GEOGRAFIA DE ESPAÑA ILUSTRADAS POR EL IDIOMA VASCUENCE, **Juan Antonio de Moguel**, prólogo de **Justo Gárate**.
- EL VASCUENCE EN LA TOPONIMIA CASTELLANA, **Abelardo Herrero Alonso**.
- DICCIONARIO BASICO EUSKERA-CASTELLANO Y CASTELLANO-EUSKERA, **Jaime de Kerexeta**.
- GRAMATICA DE LOS CUATRO DIALECTOS LITERARIOS DEL EUSKERA (2 vols.), **Arturo Campión**.
- CATALOGO DE NOMBRES VASCOS PARA EL REGISTRO CIVIL, **José M.^a Bereciartúa**.

NOVELAS Y CUENTOS

- AMAYA O LOS VASCOS EN EL SIGLO VIII, **Francisco Navarro Villoslada**.
- RAMUNTXO, **Pierre Loti**, prólogos de la **Condesa de Pardo Bazán** y **Luis de Castresana**, ilustraciones de **José Antonio Sangróniz**.
- MIRENTXU, **Pierre Lhande**, ilustraciones de **Eva Engelman**.
- CHOPERENA EL CONTRABANDISTA, **Miguel Pelay Orozco**, ilustraciones de **José A. Sangróniz**.
- LA QUIEBRA (2 vols.), **Juan Antonio de Zunzunegui**.
- BLANCOS Y NEGROS, **Arturo Campión**.
- IPUIÑAK, **Resurrección M.^a de Azkue**, prólogo de **Santiago de Onaindia**.
- ZIGOR Y OTRAS NARRACIONES VASCAS, **Arturo Campión**.
- ELOGIOS, ASPEREZAS Y NOSTALGIAS DEL PAIS VASCO, **Luis de Castresana**.
- EL PUEBLO OLVIDADO Y OTROS RELATOS VASCOS, **Luis de Castresana**.
- EL OTRO ARBOL DE GUERNICA, **Luis de Castresana**.
- ADIOS, **Luis de Castresana**.
- RETRATO DE UNA BRUJA, **Luis de Castresana**.